

Bailarako 9 lagun kantu txapelketan

Domekan jokatu dute finala | 32



Arrasateko ordezkariak. | GOIENA

Euskalerraren Adiskideen Elkarteko kideen ekitaldia gaur Bergaran | 4



Mugagabeko greba hasi dute Torunsako langileek | 17



Euskararen Eguneko grabaziorako dei egin du Arrasateko Euskalgintzak | 13



MENU OSASUNTSUAK LANGILEENDAKO

Ulma Taldeak hainbat jatetxerekin sinatutako hitzarmenari esker, menu osasuntsuak izango dituzte aukeran langileek astelehenetik aurrera. Langileen %18k bazkaltzen dute egunero etxetik kanpo. Hori horrela, menu orekatuen aukera eskaini nahi die taldeak kanpaina horrekin. | 20

Etxe Aundi jatetxea da hitzarmena sinatu duenetako bat. Irudian, Iker sukaldeburua Ulmako lau langilerekin. | MONIKA BELASTEGI

Genero indarkeria salatzeko elkarretaratzeak gaur

Puntu morea, genero indarkeriaren aurkako seinalea.

Azaroaren 25a da gaur, Emakumeen Aurkako Biolentziaren Kontrako Eguna. Horren harira, berdintasuna, emakumeen askatasuna eta bizi izateko eskubidea aldarrikatuko dira Debagoieneko ia herri guztietako herriko plazaetan gaur egingo dituzten elkarretaratzeetan. | 4

SINADURAK

	TXIPI ORMAETXEA 6
	6 ENEKO AZKARATE
	ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL 13
	16 JOSE ANGEL MIKEO
	ARATZ LOSADA 20
	40 XABIER ZUBIZARRETA

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 30 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38

Bertso txapelketako lehenengo finalaurrekoa bihar Arrasaten

Sei bertsolari arituko dira, 17:30ean, Uarkapen | 32

"Ezagutza merkaturatu, eta ezagutzatik etekina ateratzea da berrikuntza"



Xabier Zabaltza
Jaurlaritzako Berrikuntza eta Jakintzaren Gizarteko zuzendaria | 8

Sei lagun inputatuta Korrikan presoan irudia eroateagatik

Terrorismoa goraipatzea leporatzen diete | 5



Iban Altuberen omenezko bizikleta martxa etzi Oñatin | 29

Gidariei burujabeak izaten erakutsiko diete autoeskolek

- Gidatzeko azterketa praktiko berria dute Nafarroan, eta urtarrilean EAEn ere bai
- Instrukzioak jaso beharrean, leku jakin batera gidatu beharko du ikasleak
- Bailarako autoeskola batzuk aurre hartu eta hasi dira eskolak horrela ematen

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Azaroaren 2az geroztik, gida-baimena ateratzeko azterketa praktikokoak proba berri bat dauka: gidatze burujabea delakoa, hau da, aztertzaileak nora joan esan, eta aztertzen dabilenak bere kabuz gidatu beharko du leku hartaraino. Oraingoan, Hego Euskal Herrian, Nafarroan bakarrik hasi dira azterketak horrela egiten, eta baita Espainiako sei erkidegotan, baina urtarrila ezker EAE eta Espainian ere hala egingo dute.


Debagoieneko autoeskola batzuk hasi dira ikasleak horretarako prestatzen. Horietako bat Peñakoba da. Hango arduradun Iban Peñakobak dioenez, ahal den neurrian, gidatze burujabea eginarazten die ikasleei sesio praktikoetan.

Debagoieneko autoeskoletako ikasleek ez dute azterketa Debagoienean egiten. Horregatik, bat baino gehiago kezkatu egin daiteke. Izan ere, baliteke azterketan kiroldegira joan dadin agintzea eta bidea ez jakitea. Baina ez dago kezkatzeko arrazoirik, Peñakobak Arrasate Irratian esan zuen moduan: "Aztertzaileak badaki leku jakin batera ailegatzeko nahikoa seinale eta adierazpen dauden bidean zehar, eta berak baloratzen du ikaslea nahasteko arriskurik dagoen. Malgua izango da".

Helburua ez da leku jakin horretara ailegatzeta, baizik eta "ikasleak gidatzerakoan benetan izango duen egoera baten ahalik eta parekoena izan dadin azterketa. Izan ere, gidatzen gaudenean, inork ez digu esaten eskumara edo ezkerretara joan behar dugun; guk prestatzen ditugu maniobrak, denbora nahikoarekin". Hala, azterketa berrian "ikasleak erakutsi behar du maniobrak prestatzen badakiela, eta gidatzea askotariko lana dela: egoera baloratzea, ez bakarrik bolanteari eragitea".

Peñakobaren ustez, "askotan, bidean ez dago nahikoa seinale edo adierazpen behar den tokira ailegatzeko". Kasu horietan, instrukzioak eman ditzake irakasleak, ikaslea bakarrik jarraitze-ko gai izan arte.

Azterketa mota berria Europako Batasuneko 2006/126 zuzentarauaren ondorioa da.



Azterketa luzeagoak

Espainiako Autoeskolen Konfederazioak (CNAE, gaztelaniazko siglak) 55 autoeskola batzen ditu Hego Euskal Herrian –Debagoienean ere bai– eta Espainian, eta hark ondo hartu du neurria, "baldin eta ez badu azterketa egutegian atzerapenik ekartzen, azterketak luzeagoak izango direlako", CNAEren hitzetan.

CNAEk azaldu duenez, azterketa horrelakoa izango da: lehenengo, aztertzaileak ikasleari galdetzen dio leku jakin batera joaten dakien, eta gero kontuan hartzen du ea ikaslea obserbatzailea den eta ea ondo orientatzen den errailak aukeratzeko orduan, seinaleei begiratuta. CNAEko

presidente Jose Miguel Baezen esanetan, "ikaslearen eta aztertzailearen artean elkarriketatxo bat sortzen da, eta ikaslea lasaitu egiten da eta azterketa hobeto egiten du". Hainbat adituk ere halaxe diote. Izan ere, urdurien egoten da ikaslea azterketa hasieran.

Azterketa hasi aurretik, aztertzaileak beste lan batzuk eska diezazkioke ikasleari, hala nola segurtasun sistema, autoaren oinarriko elementuak eta dokumentazioa ondo dauden begiratzeta. Baina hori gidatzeko ematen den denboratik kanpo gertatzen da –25 minutu– eta horregatik baliteke azterketak luzeago irautea. Dena dela, Baezen esanetan, "sarritan, aztertzaileak bazuen ondorio bat ikaslearen gainean 25 minutuak bukatu baino lehenago; baina orain, lan gehiago egin behar dira, eta horregatik, 25 minutu horietatik gehiago hartzeko joera egongo da".

Bi litro gutxiago

Azterketa behin bakarrik egin behar da, baina, norbera gidaria den bitartean, komeni izaten da norbere burua "birziklatzea".

Horretarako badaude ikastaroak: adibidez, gidatze ekonomiko ikastaroak. Horiek hainbat lekutan ematen dituzte. Iban Peñakobak badu horrelako ikastaroen esperientzia, irakasle moduan, eta "jendeak oso ondo hartu" dituela esaten digu, eta ondorioak "harrigarriak" izaten direla: "Lehenengo eurek gidatzen dute, ohikoan gidatzen duten moduan. Autoak ordenagailu bat du eta datu batzuk jasotzen ditu. Gero, azalpen teoriko batzuk ematen dizkiet eta, segidan, neuk gidatzen dut, erakustaldi gisa. Horren ondoren, eurek hasierako bidea egiten dute berriz, ikasitakoa aplikatuta; eta abiadura, denbora, bidea... dena berdina izanda, harrigarria da zenbat gutxiago kontsumitzen den: adibidez, lehenengo bueltan zazpi eta bigarren bost. Estresa ere kentzen dute. Lau arau jarraituta, egunerokoan, gidatzeko estiloa aldatu dezakegu".

Gidatzeko ikastaro horiek noizean behin antolatzen dituzte Debagoienean ere. Euskal erki-

IBAN PEÑAKOBA | AUTOESKOLAKO IRAKASLEA

"Azterketa praktikoarekin, normalean, gazteek ez dute arazorik izaten"

Peñakoba autoeskolako arduradun eta irakasle Iban Peñakobaren esanetan, "egunero denbora pixka bat eman behar zaio teorikoari".

Ikasleek zerekin izaten dute zailtasun handiena?

Ez da zailtasun handirik izaten; baina dedikazioa eskatzen du gida-baimena ateratzek. Jende askok gogoz eusten dio, baina gero uzten joaten da; orduan, luzatu egiten da eta jendea asper- tu egiten da. Teorikoa ez da arazo izaten egunero pixka bateskainiz gero. Eta azterketa praktikorekin, gazteek ez dute ere arazorik izaten.

Oraindik entzuten da mutilek erraztasun handiagoa dutela gidatzeko. Egia da?

Bai eta ez. Hara, Oñatin asko ibiltzen naiz, eta han mutiko asko autoeskolara etorri orduko ibilita daude: baserrian, aitarekin, aitona- rekin, traktorean edo motorrean, denak ibili dira. Horrekin, aurreratuta izaten dute asko. Arrasaten, gutxiago ibili izan dira. Baina ez

dut uste mutilek erraztasun handiagoa dutenik. Egia da, ordea, inizatiba handiagoa izaten dutela gidatzen hasteko. Psikomotritatean akaso ere hobeto dabilta, baina neskak ordenatuagoak izaten dira, maniobrak- eta egiterakoan.

Aurrekoan txinatar bat ikusi nuen teorikarako ikasten, nahiz eta hizkuntza ez zuen menderatzen.

Bai. Guk argialetxe batetik jasotzen dugu beste hizkuntza batzuetako materiala. Teorikorako ez da arazo izaten, baina praktikorekin bai, ikasle eta irakasle artean ondo komunikatu behar direlako. Dena dela, gero eta atzerri- ritar gehiago etortzen zaizkigu.

Eta euskaraz atera gura izaten du jendeak?

Aukera hori ematen dugu. Hasieran, material falta zen arazoa, baina orain badugu material hori. Eskatera egonkortu egin da eta, egia esan, ikasle gutxiak eskatzen dute euskaraz ikastea.

"Eskolara etorri orduko, mutiko askok gidatu dute zer edo zer, bereziki Oñatin"

Gidatzea, 'multi tasking' lana

ASKOTARIKO LANAK Gidatzen dugunean, lan asko egin behar ditugu denbora txikian: ikusi, egoera ulertu, erabaki eta egin. Beraz, ezinbestekoa da estresa kentzea eta presaka ez ibiltzea.

ARRETA DA GAKOA Istripu gehienak ez dira errepide handietan gertatzen. Gehienak gertatzen dira autoa bidetik irteten delako. Kausak izaten dira gidariak arre- ta galtzea eta agudoegi joatea. Hortaz, ikasi eta gogoratu egin behar da arre- ta osoaz gidatzeaz eta abiadura egokia izateaz.

ORDUTEGIA Azterketek hau diote: istripu gehienak 14:00etatik 20:00etara gertatzen dira, eta aste bukaeretan. Logura handiena izaten da 14:00etatik 16:00etara eta 03:00etatik 05:00etara; hortaz, bidaia luzeetan, komeni da tarte horiek baztertzea.

LAU GOMENDIO Aurreztu eta lasaiago gidatzeko, gogoratu: pneumatikoek presio egokia dutela ziurtatu, ez egin balaztada edo azeleratze bortitzik (egoera aurreikusitako eta astiro joan), martxa egokienak aukeratu eta zama ahalik eta txikienak eraman.

ESANAK

"Azterketa berriarekin ados gaude, ez badu atzerapenik ekartzen"

JOSE MIGUEL BAEZ
AUTOESKOLEN KONFEDERAZIOKO PRESIDENTEA

"Helburua da azterketa eredu hobea izatea eta Europarekin bat etortzea"

PERE NAVARRO
ESPAINIAKO TRAFIKO ZUZENDARI NAGUSIA



Eskola praktikoa hastear daude irakaslea (Iban Peñakoba, ezkerrean) eta Aitor ikaslea. | LEIRE KORTABARRIA

degoan, CNAEk antolatzen ditu, eta horren bidez autoeskola batzuek ematen dituzte. Udalek lagunduta ere antolatu izan dira.

Norbera birziklatzeko beste premia batzuk ere egoten dira: hala, gida-baimeneko puntuak galdu dituztenek haiek berreskuratzeke ikastaroa egin behar dute nahi eta nahi ez. Debagoienean, ikastaro horiek Aretxabaletako Solozabal autoeskolak bakarrik ematen ditu. Han, "hilean bi edo, batzuetan, hiru ikastaro ematen ditugu, eskaeren arabera, baina bai, ia hilero ematen ditugu", esaten digute hango arduradunek. Puntu guztiak edo puntu batzuk

galdu dituzten gidariak joaten dira. Eta esanguratsua da beste hau: 10 ikasletik bakarra izaten da emakumezkoa. Adin aldetik, 30 eta 60 artekoak izaten dira gidariak, eta gehienetan abiadura handiegiagatik, alkoholaren edo drogen eraginpean gidatzeagatik edo, batzuetan, gidatzerakoan telefonoa erabiltzeagatik galdu dituzte puntuak.

Gidari onak

Salbuespenak salbuespen, Iban Peñakobaren iritziz "nahiko ondo" gidatzen da Debagoienean: "Gero eta gehiago erabiltzen ditugu argi keinukariak, biribilguneetan ere

DATUA

150

GAZTE

Arrasaten 18-22 urte arteko 150 bat gazte dago; 10 urte dela, ia 500 ziren.

hobeto seinaleztatzen dugu, zebra-bideak ere errespetatzen ditugu..."

Bideak orain urte batzuk baino hobeto egoteak ere laguntzen

du: "Saihesbidea nahiko kaskar zegoen eta konpondu zuten; herri barruan zuloak egoten dira batzuetan, baina, bestela, ondo dago bidea. Puntu batzuetan, seinale larregi dago. Baina, oro har, errepidea ondo dago Debagoienean".

Argitzen duenez, badago ere "larregi" adierazten duen gidari-rik: esaterako, biribilgune barruan ezkerreko keinukaria piztea, eskumakoa nahikoa denean.

Arrasaten, harrapaketa asko

Arreta handiena herri barruan eta inguruan ipini behar da, hor gidatzea delako ohikoena, eta ez hainbeste autobidean. CNAEren

ikerketaren arabera, askogatik, istripu larri gehienak ohiko errepideetan gertatzen dira.

Barne Sailaren arabera, Arrasatek 3. harrapaketa-tasa altuena du Euskal Autonomia Erkidegoan: 10.000 biztanleko 47 harrapaketa egon ziren. Iban Peñakobak dio "harrigarria" iruditzen zaiola datu hori. Dena dela, onartzen digu herri barruan ere badaudela leku arriskutsuak: "Oinezkoen pasabide batzuetan oso gutxi ikusten da, edukiontziak-eta egoten direlako espaloian. Oso poliki joan behar gara, bestela ez da ikusten espaloian norbait dagoen zain edo ez".

Lasan artisau-turroiak egiten ditugu. Etorri eta eros ezazu gurean!

ARTISAU-TURROIAK

- Gogorra
- Biguna
- Gorringo txigortua
- Esne gaina-intxaurra
- Pistatxoa
- Pontxe errusiarra
- Laranja-trufa
- Cadiz
- Txokolate-pralina
- Fruta

LASA jatetxea

Ozaeta jauregia
943 76 10 55
BERGARA
www.restaurantelasa.es
reservas@restaurantelasa.es



Edurne Uribarren-Isturrieta, zinegotzia; Marije Lizartza, harakina; eta Arantza Uribarren, Itur-zuri elkarteko kidea. | J.B.

Emakumeen kontrako biolentzia salatzeako bilkurak

Berdintasuna, emakumeen askatasuna eta bizi izateko eskubidea aldarrikatuko dira ibarreko hainbat herritan

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE

Gaur, azaroak 25, Emakumeen Aurkako Biolentziaren Kontrako Nazioarteko Eguna da. Bada, egun hori aldarrikatzeko bailarako ia herri guztietan ekitaldiak antolatutuzte; batzuk astean zehar dira eta beste hainbat, elkarretaratzeak, batik bat, gaurko deitu dituzte -ikus ondoko taula.

Arrasaten, urtero bezala, kartela egin dute nazioarteko egun horretarako propio Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Plataformak eta Udaleko Berdintasun Sailak. Kameraren objektiboa da kartelaren motibo nagusia eta horrekin bi ideia nabarmendu eta aldarrikatu nahi

izan dituzte, astelehenean prentsaurrekoan azaldu zuten moduan: berdintasuna eta emakumeen askatasuna eta bizi izateko eskubidea. Horren harira, 2011n Euskal Herrian, momentura arte, gizonezkoek zazpi emakume hil dituztela ekarri zuten gogora.

Bergaran, protokoloa

Emakumeen aurkako indarkeria kasuen atentzioan parte hartzen duten erakundeek eta udal sailen Koordinaziorako I. Protokoloa egin du Bergarako Udalak.

Protokoloaren helburua da Bergaran tratatu txarren edota sexu-erasoen biktimak diren emakumeei berehalakoa eta diziplina anitze-

koa izango den arreta emateko, babesa eskaintzeko eta dauden askotariko baliabideak haien eskura jartzeko, udalerrri-mailan arretan inplikaturako eragileen koordinazioa eta elkarlana bermatzea.

Protokolo hori gaur sinatuko dute, 11:00etan, udaletxean; izan ere, udal arduradunek emakumeen aurkako biolentziaren kontrako nazioarteko egunean egin nahi izan dute. Honako erakundeek hartuko dute parte sinadura ekitaldian: Ertzaintzak, osasun etxeak, Udalak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak eta Lanbide Heziketako institutuak.

EKITALDIK GAUR

ARRASATE

19:00 Elkarretaratzea, Herriko Plazan.

Gero, lau film labor emango dituzte Herriko Plazan.

BERGARA

11:00 LABek deitutako elkarretaratzea San Martin plazan.

ANTZUOLA

18:30 Elkarretaratzea, Herriko Plazan.

ARAMAIO

19:00 Elkarretaratzea, Sastiña parean.

ELGETA

19:30 Elkarretaratzea, Herriko Plazan.

LEINTZ GATZAGA

19:00 Elkarretaratzea, Herriko Plazan.

OÑATI

18:30 Elkarretaratzea Herriko Plazan.

HILAREN 29AN, MARTITZENA

19:00 *Preveniendo la violencia sexista desde la participación social* delako hitzaldia
Carmen Sara Gonzalez Barreireoren eskutik, kultura etxean.

Aramaion, puntu morea

Bestalde, Aramaio Udalak eta Itur-zuri emakume taldeak, berdintasuna bultzatzeko, dendariei erakusleihoetan gaur puntu morea jartzeko gonbita egingo diete. Udaletxean dagoeneko jarri dute, herritarren kontzientzia pizteko.

Rufi Etxeberria eta Iñigo Iruinen hitzaldia 28an Huhezin

M.B. | ARRASATE

Astelehenean, hilaren 28an, hitzaldia egingo dute Eskoriatzako Huhezi fakultatean Rufi Etxebarria Sortuko buruak eta Iñigo Iruin abokatuak, 14:00etan. *Gizarte aldaketak* delako ikasgaiaren barruan gonbidatu ditu fakultateak eta Euskal Herrian gertatzen ari diren aldaketak ezagutzea du helburu.

Iruinek azkeneko urteetako epaiketak ulertzeko marko teorikoa trazatuko du, alderdi politikoen legalizazioa eta euskal presoen egoera eta etorkizun posibleak. Rufi Etxeberriak, berriz, azken hilabeteetan gertatutako aldaketa politikoak aztertuko ditu; azken batean, euskal politikagintzan zabaltzen ari den paradigma berriaren giltzarri nagusiez hausnartuko du.

Emakumeak Euskal Herriko historian izan duen garrantzia hizpide

Jose Antonio Azpiazu Oñatiko historialariak *La presencia de la mujer en la historia vasca; su importancia social y económica* delako hitzaldia egingo du abenduaren leian, eguna, 18:00etan, Arrasateko Kulturaretoan. Goienagusi elkarteak antolatuta du hitzordu hori.

ARIZMENDI KOOPERATIBA ELKARTEAREN BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Arizmendi Kooperatiba Elkartearen Estatutu Sozioletako 30. artikulua dioenari jarraituz, Kontseilu Errektoreak 2011ko urriaren 27an egoitza sozialean egindako bileran adostu du Arizmendi Kooperatiba Elkarteko bazkideak Ohiko Batzar Nagusi honetara deitzea, kooperatibaren interesetarako onuragarria delakoan.

DEIALDIA

Eguna: 2011ko abenduaren 15a.
Lekua: Arimazubi guneko aretoa.
Ordua: Lehen deialdia: 18:00.
Bigarren deialdia: 18:30.

GAI-ZERRENDA

LEHENA: Aurreko Batzar Nagusiaren aktaren onespenera irakurtzea. Aktaren onespenera bi bazkideren izendapena.
BIGARRENA: 2010-2011 ekitaldiko sozietate-kudeaketa aztertzea eta, hala balegokio, Urteko Kontuak (Balantzea, Galera eta Irabazien Kontua eta Txostena), baita kudeaketa-txostena ere, onartzea.
HIRUGARRENA: 2010-11 ekitaldiko emaitzen banaketa.
LAUGARRENA: 2011-2012 ekitaldirako aurrekontuaren aurkezpena.
BOSGARRENA: Kontseilu Sozialaren berriztatzea.
SEIGARRENA: Kontseilu Errektorea ahaldundutzea.
ZAZPIGARRENA: Galde-erantzunak.

Andoni Mujika Ulazia
Lehendakaria
Arrasate, 2011/10/27

Arizmendi
ikastola

Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak Bergaran irekiko du ikasturtea gaur

M.B. | ARRASATE

Nazio Batuek 2011 Kimikaren Nazioarteko Urte izendatu dute. Izendapen horrekin kimikak gizartearen duen garrantzia gorai-patu nahi dute, zientzia horrek gizadiaren ongizatean egindako ekarpenaz jendea kontzientzia dadin.

Bada, Kimikaren Nazioarteko Urtearen ospakizunarekin bat eginez, Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak ikasturte hasierako ekitaldia egingo du gaur, egubakoitza, Bergaran, Udalarekin elkarlanean. 19:00etan hasiko da ekitaldia, osoko bilkuren aretoan, eta Martin Garitano diputatu

nagusia, Jose Maria Urkia Etxabe elkarteko lehendakaria eta Jesus Elortza Bergarako alkatea egongo dira.

Ekitaldiaren gaia izango da Bergarak eta kimikak izan duten lotura XVIII. mendean Adiskideen Elkarteak Bergaran izan duen jarduerari esker. Hain justu, Xabier Maria Munibe Peñafloordako zortzigarren kondeak (1729-1785) sortu zuen Euskalerriko Adiskideen Elkarte Bergaran. Elkartearen asmoa arteak eta zientziak lantzea, industria bultzatzea eta hezkuntza hobetzea zen eta Bergara izan zen hezkuntza-mugimendu ilustratu haren sorlekua. Horren barruan, besteak beste, Elhuyar anaiek wolframioa bakartu zuten 1783. urtean.

Musika, gozoak eta liburuak

Ekitaldian Peñafloordako kondaren musika interpretatuko da, herriko tradizioako gozoak dastatu ahal izango dira eta bi liburu aurkeztu: Ines Pellonek *Bergarako herria nazioarteko kimika urtea (2011) dela eta*. Iraganeko diztirak argituko du geroa izenekoa aurkeztuko du; Julian Serranok, *2011 nuevos extractos* delakoa.

Gizonezkoen
Bruck soft shel txaketa eta latton softshel frakak % 25 eko deskontua.

Emakumezkoen
Baclay soft shel txaketa eta Azumac soft shel frakak % 25 eko deskontua.



IRATI GOITIA

EHUren argibideak ikasleendako

Etorkizuneko unibertsitate-ikasleen zalantzak argitze aldera, hitzaldia egin dute Euskal Herriko Unibertsitateko ordezkariak asteon Arrasateko Kulturaren. Saioak interes handia piztu zuen; guraso eta ikasle ugari joan zen jardunaldira, EHUren eskaintza akademikoaz gehiago jakiteko asmoz.

Debagoieneko PSE-EEK iruzurtzat jotzen du zaborra batzeko atez ateko sistema eta erabat kontra dago

Debagoienean dauden lau zinegotzi sozialistek "sen ona" eskatu diote Debagoieneko Mankomunitateari eta "ohiko edukiontzi sistemara itzul" dadila eskatu diote. Bestalde, aurreko egubakoitzean Zero Zabor taldeko ordezkariak egindako adierazpenak "deskalkifikazio hutsak eta irainak baino ez" direla azpimarratu dute. Era berean, galdetzen diete Zero Zabor taldekoei ea zergatik ez dieten azaltzen debagoiendarrei zenbat kostatuko den atez atekoa ezartzea.

Sei lagun inputatuta Korrikan presoen argazkiak eroateagatik

Presoei elkartasuna adieraztea debekatu nahi dutela uste dute

A.T./M.B. | BERGARA

Debagoieneko sei lagunek –Bergarako bost eta Arrasateko bat– Madrilgo Auzitegi Nazionalen inputatu gisa deklaratzeko zitazioa jaso dute. Azken Korrikan presoen argazkiekin korrika egitearren, terrorismoa goraipatzearen akusaziopean bi urteko kartzela zigorra jaso dezakete.

Horren berri emateko, Bergaran egindako prentsaurrekoan inputatuak azaldu zuten salaketa Ertzaintzak egin duela, euren aurkako frogak Auzitegi Nazionalen aurkeztuta: "Azaroaren 15ean Pablo Ruiz epaileak salaketa tramitera onartu eta guri zitazioaren berri emateko agindu zion Ertzaintzari. Joan den asteburuan gure gurasoen etxeetara joan dira ertzainak gure bila ari zirela esanez. Senideei beldurra, haserrea eta ezinegona eragitea besterik ez dute lortu".

Hala, salatu dute Ertzaintzak, haien arduradun politikoeak eta Auzitegi Nazionalak "iraganera eraman" nahi gaituztela, "zuri-beltezko argazkiarekin jarraitu nahi dutela: errepresioa, zigorrak...". Eta hau gehitu zuten: "Euskal Herrian garai berriak bizi ditugu. Guk, euskaldun guztiek bezala,



Inputatuak herritar askoren babesa jaso dute. | AMAIA TXINTXURRETA

bestelako etorkizuna nahi dugu, koloretako etorkizuna. Eta koloretako etorkizun horretan euskal herritar guztien eskubideak errespetatuak izatea nahi dugu, baita preso politikoenak ere". Etorkizuna elkartasunez eraikitzen dela eta eurek elkartasuna "eskaini" baino ez dutela egin nabarmendu zuten. "Gure aurka egiten ari direna ez da sei lagunen aurkako prozesu judiziala, presoei elkartasuna adieraztea debekatu nahi dute". Hori horrela, datozen egunetan

presoei elkartasuna adierazteko ekimenak antolatu dituzte.

Elkartasun ekimenak

Biharko, 15 minutuko Elkartasun Antxintxika deitu dute, 19:00etan, San Martin plazatik abiatuta. Herritarrek lekukoa eroango dute errelebuka eta bukaeran mezu bat irakurriko dute Muniben. Hilaren 30ean, Madrilen deklaratuco duten egunean, elkarretaratzea egongo da plazan, 12:00etan, eta bi orduko geldialdiak eskoletan.

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA

Bergara / Irizar 2
T: 943 76 03 35

BEGOÑA LASAGABASTER

Arrasate / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

Aretxabaleta / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA

Bergara / Artekale 1
T: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

aretxabaleta / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

DONOSTIA / Easo 57-3 esk.
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

ZABALIK

TXIPI ORMAETXEA
http://goiena.net/iritzia/



Kepa eta Eusebio

Mallea eta Osa. Eusebio Osa Deba ibarrekoa zen, Bergarako Elorregi auzoko Aierdisakona baserrian jaioa, Gerra Zibila hasi baino lau hilabete lehenago hain zuzen. Duela 18 urte zendu zen Gasteizen, gaixotasun anker batek eraman zuen, artean sasoiko gizona zela.

Berriki, duela bi aste Santutxun heriotza tragikoa izan duen Kepa Mallea munitibartarrak ondo ezagutu zuen Eusebio. 60ko hamarkadan Eusebioren ondoan izan zen Oñatin eta Haron. Kepak duela sei urte Eusebioren euskaltzaletasuna gorai patzen zuen, garai hartan (Eusebiok hogeitaka urte eta Kepak hamar bat gutxiago zituela) euskararekin guztiz identifikatuta bizi zela esanez. Eta, besteak beste, oso gizon pragmatikoa zela esaten zuen, bidea garbi ikusten zuena. Gauza gehiago ere bazen Eusebio, jakina. Kontutxo bat bakarrik: ondo gogoan dut Eusebiok, hil baino 20 egun lehenago, *Euskal-dunon Egunkaria*-n idatzi zuen azken artikulua, elkarrizketaren kulturaren alde jarritz, eta politikariaren agintearen kulturaren aurka (ez dugu lar aurreratu!).

Kepa Malleak duela hamabost egun heriotza bidegabea bezain zentzunbakoa izan du. Bere bertso famatuko (hauxe azken puntua: "Gure gatazkak bideratzeko / arma onena da HITZA") espiritua erabiliz, erasotzailearekin hitz egiten eta hura lasaitzen saiatu bazen ere, hark labankadaka hil zuen. Egunkarietatik jakin dugu nolako pertsona zen Kepa: euskaltzale fina, bertsozalea, konprometitua, bakezalea... (*El Correo* egunkariak *"El maestro del diálogo"* deitu zion).

Heriotza ia beti da bidegabea, baina batez ere era anker eta traumatikoan gertatzen denean. Eta hiltzen diren pertsonak Kepa eta Eusebio bezalakoak badira, bidegabekeria-sentipen hori areagotu egiten da. Izan ere, holako pertsonak dira gizarteak eta gure Herriak behar dituenak aurrera egiteko.

Agur eta ohore, Eusebio eta Kepa!

"Holako pertsonak
dira gizarteak eta
gure herriak behar
dituenak"

USTEAK USTE

ENEKO AZKARATE | eazkarate@goiena.com

Erreferenteei eutsi

Asteotan gogoratu dute Mondragoeko kooperatiben mugimenduaren sustatzaile nagusia izan zena: On Jose Maria Arizmendiarrjeta. Martitzenean dira 35 urte hil zela. Eta hari buruz irakurri dut liburu batean, egunotan, lehendik ez nekiena: Arrasatera etorri aurretik, heriotza zigorrera kondenatu zuela Francoren diktadurak, euskaltzaletasunari lotutako ekintzetan nahastu zela-eta. Ardantza lehendakariaren memoria liburuan irakurri dut. Arrasatek asko zor dion Pedro Biteriren gainera gauza asko ere ez dakizkit. Martitzenean aurkeztuko dute haren gainera liburua, Intxorta Elkartearen ekimenez. Lan bikaina egin dute, beste behin, Garaik eta konpainiak.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | http://goiena.net/iritzia/



HANDIK ETA HEMENDIK

Prozesua eta jokalaria

Aitor Manterola
http://berria.info/blogak/futbolsofatzen/

Bielsa eta Montanier. Entrenatzaileen jiran dabil gure bi talderen jarduna. Marcelo Bielsa eta Philippe Montanier denen ahotan daude. Nik ere bie helduko diet, baina ez asteburuan beren taldeek eginagatik, eta ezta biek bizi dituzten egoera ezberdinengatik ere. Realekoak ostiralean egin zituen adierazpen batzuei lotuko natzaie. Hitzok entzun eta gero, Athleticekoak duela ia hamar urte esandako beste hitz batzuk etorri zitzaizkidan burura.

2002ko Munduko Kopa. Argentinako entrenatzailea zen orduan Bielsa. Favorito handiaren izena soinean jarrita heldu zen selekzioa lehia. Sailkatzeko fasean, emaitza bikainak lortu zituen, eta joko ona egin zuen. Baina txapelketak zartako latza eman zion. Lehen fasean kalera. Ingalaterra, Suedia eta Nigeria zituen multzoko aurkari, eta ez zen sailkatu. Jota zegoen Bielsa baina prentsaren aurrean zerbait esan behar. Gutxi asko, honela azaldu zien barruan

sentitzen zuena: "Prozesua da garrantzitsuena, nahiz eta emaitzen eragina oso handia izan. Emaitza txarra izan dela onartzen dut, baina prozesua oso ona". Txapelketaren aurreko lana oso ona izan zela esan zien hitzokin kazetariei, eta horrek betetzen zuela, nahiz eta emaitza txarren eraginez jota egon.

Ostiralean, Zubietan. Montanier antzera mintzatu zen Espanyolen partidaren aurretik: "Garaipena ez da programatzen, aurretik eraikitzen da". Prozesua berriz ere. [...]

Lan onik gabe, irabazi. [...] Metodologia ugari daude. Bi adibide muturreko jartze aldera: batek landuko ditu kontu txikiak ere, mugimendu guztiei egundoko garrantzia emanez. Bielsa izan daiteke multzo horretako bat. Metodo analitikoa erabiltzen dute gehienbat; hau da, arlo bakoitza bere aldetik lantzen dute, eta ez nahasian. Beste batek aldiz, errazetik joko du, ez die asko erreparatuko mugimenduei, adibidez. Praktikotasuna izango du oinarri. Horien metodoa integratua izango da: arlo guztiak nahasian landuko dituzte. Ez dut esan nahi metodologia integratua txarra denik, ezta gutxiago ere. Hau

irakurri eta gero, pentsatzekoa da lehen multzokoek emaitza hobeak lortuko dituztela. Baina ez da beti hala izaten. Metodo denak dira onak, eta denak txarrak. Guztiek dituzte aldeko eta kontrako ezaugarriak. Baina berriro ere, jokalarien mailaren eragina azaltzen baita. [...]

Athletic eta Real. Batean, Bielsaren metodologia dago oinarrian. Bestean Montanierrena. Biek dute metodologia. Argentinakoaren taldea jokutzen ikusita, argi dago asko lantzen dituztela taktika eta teknika. Prozesua ikusi egiten da. Normandiakoaren taldean anabasa da nagusi, neurri handi batean. Galdera pare bat, bukatzeko: Bielsaren metodologia erabiliko balu emaitza hobeak lortuko al lituzke Montanierrek? Bielsak Realeko jokalariekin lortuko al luke Athleticekoekin lortzen ari dena? Gustatzen zaizkit prozesuak, gogoko dut metodologiaren gaia, eta kontu horietan sakontzea eta ikastea atsegin dut. Baina azkenaldian, gero eta gehiago erreparatzen diot jokalarien mailak duen eraginari. Entrenatzaile batek hobe egin dezake talde txar bat, baina hortik irabaztera jauzi handi samarra dago.

goiena“
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi
Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Inaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiriano, Ziortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.


EGOTZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale.
Difusioa: 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRTITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetan kolaboratzaileek, adierazitako initzien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

Pentsiodun eta helduok eragile aktiboak izan behar dugu

Itziar Usandizaga
(LAB-Helduak)
Bergara

LABeko Helduen eta Pentsiodunen Arloko Asanblada Nazionalak hurrengo ebazpena adostu du: Garai berria ireki da Euskal Herriarentzat. Momentu historikoa bizi dugun honetan, aukera berriak ireki dira eta guztiok erantzukizunez jokatu behar dugu. Pertsona pentsiodun eta helduok eragile aktiboak izan behar dugu egoera berri honetan ere bai. Bizi osoan horren alde borrokatu ostean, orain dugu aukera Euskal Herri libre eta solidarioa behingoz eraikitzeko. Aldaketa politikoak aldaketa soziala ahalbidetu behar du. Trantsizio honetan, langile klasearen interesak ere

defendatu behar ditugu, eta pertsona helduok eta pentsiodunok asko daukagu egiteko eta esateko. Egun bizi dugun krisi ekonomiko eta sozialaren aurrean, gure herrian inposatzen ari diren erreformak eta elite ekonomiko-politikoen eskutik adosten diren neurri ultraliberalek eragindako kalteen kontrako borrokan jardungo dugu. Adostutako politika publikoak zorrotz kritikatzin ditugu, eta hauen norabide aldaketa aldarrikatzen dugu, jendartearen interesak defendatuko dituen politikak izan daitezela. Pertsona helduak eta pentsiodunak garen heinean, ezaugarri eta arazo espezifikoak ditugu. Hauei erantzutea da gure aldarrikapenen eta borroken ardatza, gure bizi-baldintzak duintasunez bermatu arte. Egungo egoera gainditu ahal izateko, Euskal Herriko instituzio eta eragile sozialok legegintzazko ahalmen eta eskumen guztiak izan behar ditugu gure eskuetan alor ekonomiko eta sozio-laboralean.

Beharrezkoa dugu Lan Harremanen eta Babes Sozialaren Euskal Esparruaren apustua errealitate bihurtzea. Burujabetza politiko eta ekonomikoa Euskal Herriarentzat!

Esna dezagun herria

Jon Otero Uribarren
Arrasate

Esnatu egin behar da herria, lozorroan bizi baita. Lozorroan telebista ikusten, irratia entzuten, edo musika diskoekin nonahi ematen du denbora. Ia lau ordu egunean da batez bestekoa telebistari so. Lau ordu kirolrik egin gabe. Lau ordu lagunekin egon gabe, paseatu gabe, irakurmena landu gabe, alternatu gabe, probetxuzko zerbait egin gabe, benetako atsedena hartu gabe, lau ordu saskira botata. Aspaldi, mutikoa nintzela, abesten zuten kantu bat: *Agur, telebista*. Eta bukaeran zioen: *Agur, telebista, gu guztion izorratzaile galanta*. Berbena

alaietan. Aisialdi merkeak dira hiru gailu horiek; horra hor beren arrakasta. Merkeak bai, baina kaltegarriak. Joan den mendearen hasieran hedatu zen irratia, eta orduko jendearen komunikazio kontzeptua aztoratu egin zen; jendea erotu egin zen eta mundu gerra bat etorri zen. Gizatasunaren simulazioa dira hiru gailu hotz horiek. Asmatu zen telebista eta are gehiago oldartu zen komunikazio zentzua, eta handik gutxira II. Mundu Gerra etorri zen. Mirariz bezala, uhin batzuen bidez zetorren komunikazioa, eta jendeak ezin zuen ulertu. Hotza da berez gailua, nahiz eta musika goxoa entzun. Merkatu egin zen telebista eta 1968an zabaldu zen herri osoan. Eta orain, horrenbeste kate, horrenbeste sintonia, 24 orduetan. Hitz batean: zaborra, besterik ez. Laburki esanda, iraultza behar da, debekatu hiru gailu

horiek, isiltasunak eta herri giroak goza dezan. Erantzun, adi nago.

Azkenean, anbulantzian sartuko gara anbulatoriora

Josefa Fernandez
Oñati

Bai ba! Izan ere, aldapan behera joanda, lurrean pintatutako biribilgune bat dago, baina ikusmena oztopatzen duten bi edukiontzi ere ezkerraldean. Ez dakit inori gertatu ote zaion, baina, halako baten, stopetik irten eta ezkerraldetik datorren ibilgailua ikusi ez eta anbulatoriora iritsiko gara, baina ez guk nahi bezala, anbulantzia baten barruan baizik. Besterik ez, dagokionari –Udalari, uste dut– eskatu nahi diot edukiontzi horiek beste leku baten jar ditzan, gure osasunak eskertu egingo du-eta.

Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Ibarra 6, 20570 Bergara | papera@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13



SAN LORENTZO AUZOA

B E R G A R A

Logela **bateko** etxebizitza

139.000 €-tik aurrera
23.127.654 pta

Bi logelako etxebizitza

168.000 €-tik aurrera
27.952.848 pta

Hiru logelako etxebizitza

216.000 €-tik aurrera
35.939.376 pta

- 1, 2, 3 eta 4 logela, sukaldea barne.
- Garaje eta trastelekuak

Lehen
~~BEZa %8~~

Orain
Etxebizitza berrian
BEZ-a %4

Etxebizitze
bukaera
2012

Eraikitzailea

INGESLAN
CONSTRUCCIONES



Sustatzailea



Argibidea
eta Salmenta

943 424 430
www.ormak.es

Xabier Zabaltza | Eusko Jaurlaritzako Berrikuntza eta Jakintzaren Gizarteko zuzendaria

"Ezagutza merkaturatzea eta ezagutza horretatik etekinak ateratzea da berrikuntza"

Datorren urteko aurrekontuetan, Eusko Jaurlaritzak 270 milioi euro bideratuko ditu ikerketa eta garapenerako eta enpresei nazioartera zabaltzen laguntzeko

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Berrikuntzak gaur egungo gizartean, egunerokoan, hezkuntzan eta enpresetan duen garrantziaz dihardu Xabier Zabaltzak (Bergara, 1967). Eusko Jaurlaritzako Berrikuntza eta Jakintzaren Gizarteko zuzendaria da.

Zenbateraino da inportantea, gaur eta hemen, berrikuntzan inbertitzea?

Oso garrantzitsua da, ze lehiakortasunaren paradigma aldatu egin baita azkeneko urteotan. Lehen, enpresak, lehiakorrak ziren efizientzia operatiiboaren arabera. Gauzak azkar, ondo eta kalitate handikoak egitea zen enpresen helburua. Orain, gauzak ondo egiteaz gain, gauza berriak egin behar dira. Merkaturatzea lehenak izan behar dute. Jakinduria, merkaturatzea, besteek baino azkarrago eta hobeto jarri behar dute enpresek.

Lehen eta orain?

Gure ekonomia industrian dago oinarrituta. Eta, duela 30 urte, gure industria ez zen lehiakorra. Orduan, teknologiaren aldeko apustua egin zen eta, horri esker, gure industria lehiakorra izatea lortu zen. Bereziki, prozesuak oso ondo kontrolatzen ditugulako. Gauzak ondo egiten ditugu orain, esfortzu handia egin delako azkeneko urteotan prozesuei begirako kalitate parametroak ezartzeko enpresetan. Orain, ostera, gauzak ondo eta merke beste toki batzuetan ere egiten dute.

Ez da nahikoa ondo egitea, geroago eta hobeto eta beste batzuk baino hobeto egin behar da?

Bai, gelditu bako lasterketa da. Kalitatea neurtzeko faktoreak aldatuz doaz egunetik egunera.

Euskadi erreferentzia da berrikuntzari dagokionez?

Bai, bereziki, industria sektore garrantzitsu, indartsu eta lehiakorra dugulako eta, hori hala izan dadin, berrikuntzari lotutako ahalegin etengabeak egiten ditugulako.

Jaurlaritzak ze inportantzia ematen dio berrikuntzari?

Handia. Industria, Berrikuntza, Turismoa eta Merkataritza Saila da gurea. Berrikuntza da horren %60. Ikerkuntza, garapena eta nazioartera zabaltzea dira gure gakoak berrikuntzari dagokionez. Bestalde, proiektu teknologikotarako dirulaguntzak ematen ditugu, Zientzia, Berrikuntza eta Teknologia sarea ere hor dugu, zentro eta elkarte teknologikoak ere bai...

Euskal enpresek barneratuta dute berrikuntzak duen garrantzia?

Batzuk oso aurreratuta daude eta erreferenteak dira berrikuntza eta jakintza merkaturatzen. Enpresa handi eta ertainak, batik bat. Enpresa txikietan bestelakoa da egoera. Euskal Autonomia Erki-degoan 192.000 enpresa daude eta, horietatik, 5.000 enpresak ematen diote garrantzia berrikuntzari. Kudeaketa da garrantzitsuen berrikuntzari buruz dihardugun. Eredutik aplikatzen baditugu enpresetan, konturatu gara non dauden gure indarguneak eta non ahulguneak. Erakunde publikoetatik laguntza programak ditugu ahulgune horiek zuzentzen laguntzeko.

Ze aurrekontu eskaintzen dio, urteror, Jaurlaritzak berrikuntzari?

Datorren urteko aurrekontuetan, 270 milioi euro aurreikusitakoak, ikerketa, garapena eta nazioartera zabaltzen laguntzeko. Krisiak izan du eraginik, baina saiatu gara gehiago egiten gutxiagorekin. Eta esan behar dut gastu arruntak murriztuko ditugula, baina inbertsioetarako partidak igoko ditugula. Enpresei laguntzeko diru gehiago izango da datorren urtean.

Berrikuntza ezinbestekoa da krisitik hobeto prestatuta ateratzeko?

Krisia oportunitatea ere bada. Hala ulertzen dugu guk. Une honetan, garrantzitsuenak da enpresei eustea. Baina, ahal dugun neurrian, saiatu behar dugu berrikuntza parametroak ezartzen.

Zer da berrikuntza?

Ezagutza merkaturatzea eta ezagutza horretatik etekinak ateratzea. Produktua, prozesua, negozio eredua, marketina... ondo landu baldin baditugu eta berrikuntza parametroak ezarri baditugu alor horietan, krisitik hobeto prestatuta aterako gara.

Ze inportantzia dute Garaia Berrikuntza Gunea bezalakoek eta parke teknologikoek?

Handia. Zamudiokoa zabaltzen zenean, Espainian ez zen hala korrik. Jarduera modu bateko enpresak, balio erantsi handikoak, bata bestearen ondoan jarri eta sinergiak aprobetxatzea da helburua. Bestetik, erakusle modukoak ere badira: teknologia eta balio handiko enpresak dira bertan daudenak eta beste batzuk erakartzeko amu egokiak.

Euskal eskolak, unibertsitateak... jakitun dira berrikuntzaren garrantziaz?

Hezkuntzan, berrikuntza neurtzeko orduan, Europa mailan badago eredu bat. Horren arabera, Euskadi 10. postuan dago. Europako



Xabier Zabaltza, Goienako erredakzioan, martitzenean. | ENEKO AZKARATE

"Gauzak ondo eta merke beste toki batzuetan ere egiten dituzte gaur"

"Euskal hezkuntza Europako 10. da berrikuntzari dagokionez"

"Tecnologia berriak herritar eta enpresa guztiek erabiltzea da asmoa"

"Erakunde publikoen eta pribatuen arteko elkarlana bultzatzea da gure zeregina"

herri aurreratuenen atzetik, baina ondo kokatuta. Zientzia eta teknologia alorreko karrerek ematen diote balio hori euskal hezkuntzari. Beste kontu bat dira patenteak. Hor atzeratuago gaude. Hala ere, jakintza guztia balioan ipini behar da eta hori ez dute hezkuntza zentroek egiten; hori enpresek egiten dute.

Eusko Jaurlaritzak 2015era begirako plana egin du berrikuntzari eta informazio gizarteari dagokionez. Zein da helburua?

Berrikuntzarekin lotuta dauden hiru plan daude: bata, Lehiakortasun Plana, iaz martxan jarritakoa; bestetik, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Plana, laster abian jarriko dena; azkena da Agenda Digitala edo, lehen, Euskadi Informazioaren Gizartean deitzen zena. Informazio eta komunikazio teknologia berriek gaur egungo jendartearen garrantzi handia daukate. Eta alor horretan eragiteko plana da azken hau. Teknologia berriak herritar eta enpresa guztiek erabiltzea da asmoa. Horretarako, azpiegiturak garrantzitsuak dira: benetako banda zabala edota lainoa deitzen dena.

Zeintzuk dira datozen urteotarako zehaztu dituzuen ardatz nagusiak?

Helburua da enpresei eustea. Beste batzuekin alderatuta ez gaude horren txarto, baina egoera zaila da benetan. Enpresen artean praktika onak bultzatzeko laguntzak ematen ditugu eta horretan sakonduko dugu oportunitate berriak sor daitezen enpresetan eta ekintzaileen artean. Erakunde publiko eta pribatuen arteko elkarlana bultzatzea ere bada gure zeregina.

Zer da Euskadi Innova?

Webgune bat, zeinean berrikuntza bultzatzeko egiten diren jarduerak guztien berri ematen den: sentsibilizazio tailerrak, ikastaroak, jardunaldiak, enpresen eta erakundearen artean elkarlana bultzatzeko ekimenak...

Eta barnetegi teknologikoak?

Gailu berriekin eroso sentitzeko eta menderatzeko planteatzen dugun ekimen berria da. Formazio arrunta egin beharrean, egun osoko jarduna antolatzen dugu, baserri turismo batean, leku lasaian. Talde txikiak antolatze dira eta monitoreekin, teknologia berrietan sakontzen da, hauek ezagutu, mende hartu eta erabilpen egokia egiteko.





Iban Lopez de Munain eta Osane Herrarte autoa garbitzen. | ARANTZAZU EZKIBEL



Herrarte eta Lopez de Munain, Erguin kalean duten lokalean. | A.E.

Autoa garbi eta berri, Ponpa garbiketarekin

Erguin kalean zabaldu dute garbiketa zerbitzua | ARANTZAZU EZKIBEL

Arrasateko Erguin kalean zabaldu berri dute Iban Lopez de Munain eta Osane Herrarte arrasatearrak Ponpa autoen garbiketa zerbitzua.

Eskuz garbitzen dituzte autoak, hori da zerbitzuaren berezitasu-

na. Gainera, Arrasaten zerbitzu hori ematen duten bakarrak direla diote. "Ez dugu makinarik erabiltzen, uste dugu eskuz garbitzea dela erarik egokiena autoa txukun uzteko", azaldu du Iban Lopez de Munainek. Autoak hobeto zaintzen dira eskuz garbituta; izan ere, ez dute jasaten makinek

sor dezaketen kalterik: "Adibidez, autoak makinetan garbituz gero asko kaltetzen dira eta eskuz ez da horrelakorik gertatzen", dio Lopez de Munainek.

Bada, Arrasaten eta inguruan ez dago bereziki zerbitzu hori bakarrik eskaintzen duen beste zerbitzurik.

Eskuz garbituta autoak ez du kalterik jasaten

Autoa garbi eta berri-berria uzten dute, saltzeko gertu

PRODUKTU ONENAK

Autoak garbitzeko produktu egokiak dituzte. "Trebakuntza jaso dugu autoak nola garbitu ikas-teko", dio, eta gaineratu du material bakoitzarendako produktu jakin bat daukatela: plastikoa, kristala, motorra... Gainera, autoak garbitu eta prestatu egiten dituzte. "Adibidez, badugu produktu bat kristalei ematen dieguna. Kristala garbitzeaz gain, ura aldaratu egiten du eta, hala, euria ari duenean haizetako beharrik ez da egoten", azaldu du. Garbitasuna eta segurtasuna bermatzen dute, hortaz.

Autoa kanpoaldetik eta barrualdetik garbitzen dute, eta, esan bezala, baita atondu ere; modu horretan, autoa berri-berri uzten dute: "Autoa saldu gura duenarendako, egokia da zerbitzua. Ez da gauza bera autoa dagoenetan saltzea edo berri itxurarekin saltzea", dio.

Autoen garbiketa integrala, larruaren tratamendua, pinturaren deskontaminazioa eta karrozeriaren leunketa egiten dituzte, besteak beste. Zerbitzu horiek guztiak egiteko trebakuntza berezia jaso dute eta merkatuan dauden produktu egokiak erabiltzen dituzte Ponpa autoen garbiketa zerbitzuan.

ESKAINTZA BEREZIAK

Zerbitzuen eskaintza zabala dute Ponpa autoen garbiketa zerbitzuan: gurpilak, karrozeria... "Hainbat eskaintza izango ditugu urtean zehar; orain, adibidez, urte bukaerara arte kristalen tratamendua opari egingo dugu", azaldu du Lopez de Munainek.

ERGUIN KALEAN DAGO

Erguinen dute lokala -hain justu, Jauregibarria 10ean-. 200 metro koadroko lokala da eta sarrera Erguin kalean bertan dauka. Ateak zabalik dituzte gura duenak autoa eramateko.

Eta autoak eskuz garbitzeko ideia nondik hartu zuten galdetuta, Lopez de Munainek gogora ekarri du Madrilen ezagutu zutela zerbitzua: "Osane Madrilen ezagutu zuen zerbitzua eta konturatu zen autoak garbitzeko modu egokia zela. Hemen horrelakorik ez dagoela kontuan hartuta, aurrera egitea erabaki dugu", azaldu dute.

Atzo, eguena, zabaldu zuten zerbitzua Lopez de Munainek eta Herrartek. Autoa garbi, txukun, ondo zainduta eta berri-berria izan gura duenak erabil dezake Ponpa autoen garbiketa zerbitzua. Erguin kalean dituzue, autoak garbitzeko prest.



Zure autoa beti garbi!

- ◆ Garbiketa integrala.
- ◆ Larruaren tratamenduak.
- ◆ Pinturaren deskontaminazioa.
- ◆ Karrozerien leunketa.

Jauregibarria 10 (Sarrera Erguin kaletik) ARRASATE
943 84 99 88 / 673 30 43 74
www.ponpa.info

Astelehenetik ostiralera
08:30 - 13:00 / 15:00 - 19:30

Zapatuetan
08:30 - 13:30

ZABALDU BERRIA!



SAMSUNG LCD TELEBISTA
LE32D403E2WXXC mod.

289€

Ordezkatze-garantia **49€**

APROBETXATU ESKAINTZEN DIZKIZUGUN ORDAINKETA ERRAZTASUNAK AZOKAN, ELEKTRONIKAN, ETXERAKO GAUZETAN, EHUNKIETAN ETA AISIALDIAN.

3
HILABETE
INTERESIK
GABE
KOMISIOA: %1
TIN: %0 TAE: %5,46
90€ gorako
erosketetan

10
HILABETE
INTERESIK
GABE
KOMISIOA: %1
TIN: %0 TAE: %2,12
199€ gorako
erosketetan

18
HILABETE
INTERESIK
GABE
KOMISIOA: %1
TIN: %0 TAE: %1,24
599€ gorako
erosketetan

Santander Consumer Finance S.A.k eskaintzen du finantzaketa, eta EROSKI red Visa txartelaren bidez onartu behar da. Urteko interes-tasa nominala %0. Ordainketa atzeratzeagatik komisioa %1 lehenengo kuotan ordaintzen da. Ordainketak hilaren 5ean likidatzen dira. UTB kontratazio egunaren arabera alda daiteke. Hona hemen zenbait adibide 11/10/28an kontratatuta eta lehen ordainketa 11/12/5ean eginda: 200 3 hilabetetan %5,46 UTBarekin, guztira 202 , 800 10 hilabetetan %2,12 UTBarekin, guztira 808 eta 1000 18 hilabetetan %1,24 UTBarekin, guztira 1010 . EROSKIk diruz laguntzen ditu interesak. Sustapena, 2011ko urriaren 26tik 2012ko urtarrilaren 6ra arte.

Eskaintza baliagarria Arrasateko Eroski hipermerkaturako

Gure liburuxkak kontsulta itzazu www.eroski.es webgunean

Zure esanetara gaude: **902 54 03 40**

HERRIAK

BERGARA

Mokolook, segi festara!

- Herritar talde batek antolatuta, bigarren urtez Mokolo Eguna egingo dute bihar
- Aurtengo berrikuntza da Munibe plazan jarritako karpan izango direla ekitaldiak

TXOMIN MADINA | BERGARA

Begararrak mokoloak dira askorentzat. Hitzaren esanahiari erreparatuz gero, ez dirudi pertsona bati esan ahal zaion gauzarik politena denik, *mokolo*-k ergela esan gura du-eta. Baina norbaiten kontra esaten direnak edo jarritako goitzenak umorez hartzea izaten omen da onena, eta, gomen-dio horri jarraituz, Mokolo Eguna egingo dute bigarren urtez Bergaran.

Herritar talde baten ekimenez egin zuten iaz lehenengo aldiz Mokolo Eguna, eta, izandako arrakasta ikusita, aurtén berriro egitea erabaki dute. Aldaketak, baina, ugariak izango dira.

Egun osoko egitaraua

Aldaketa nabarmenena egitarauan dago; izan ere, iaz iluntzean eta gauean pilatu ziren ekintzak; aurtén, aldiz, goizean goiz ekin-gio diote egunari.

Egitaraua adin guztietako jende-ari dago zuzenduta, eta, hala, umeen jokoekin hasiko dute eguna. Mokoloen ekitaldia izango da eguerdian, eta bertan zer egingo duten galdetuta, sorpresa izango dela iragarri dute. 14:30ean, eta Euskal Herrian otordurik gabeko jairik egiten ez dakigun seinale, mokolo bazkaria egingo dute.

Iluntze eta gaur partean, musika doinuak izango dira nagusi; arratsaldean Bad Sound System taldearekin eta gauean Azpeitiko Garraxika taldearen rockarekin eta Dantzadiren berbenarekin. Jaiak etenaldia egingo du 19:00etan; ordu horretan, Korrikan presoen argazkiak eroateagatik inputatuta dauden sei debagoiendarrei babesa emateko Elkartasun Antxintxika egingo dute.



Iaz gaztetxean egin zute Mokolo Eguneko ospakizuna. | GOIENA

DATUA

200

TXARTEL

Bazkarirako 200 txartel egon dira eskuragarri herriko hainbat tabernatan. Dena den, txartelik erosi ez duenak bihar izan dezake horretarako aukera: soberan geratu diren txartelak salgai jarriko dituzte.

EGITARAUA

11:30 Umeendako jokoak.

12:00 Mokolo ekitaldia eta jarraian triki-poteoa.

14:30 Mokolo bazkaria.

18:00 Bad Sound System eta ondoren poteo-txaranga.

23:00 Kontzertuak Garraxika eta Dantzadi taldeen eskutik.

Ekintzak, Munibe plazan

Baina aurtengo Mokolo Egunak izango du aurrekoarekiko beste berrikuntzarik: iaz ekintza guztiak gaztetxean egin ziren, baina aurtén kokaleku berria izango dute: Munibe plaza.

Plazan, gainera, karpa bat jarriko dute, eta hantxe egingo dira ekintza guztiak. Era berean, egun osoan irekita egongo den taberna ere jarriko dute karpan bertan. Bada, euria egin edo ez, aurtén bustitzekotan, barrutik bakarrik bustiko dira mokoloak.



GOIENA

ARITZ ALUSTITZA
ANTOLAKUNTZAKO KIDEA

"Mokolo izena badugu, mokolo izena dugu; ez da gutxi izen bat izatea!"

Aurtén ere antolatze lanetan ibili da Aritz Alustitza.

Nondik nora Mokolo Eguna ospatzea?

Mokolo izateari buruz berbertan genbiltzan, eta esan genuen: "Mokoloak gara? Bada, geure eguna ospatuko dugu". Askok iseka moduan hartzen dute, eta erabaki genuen geure buruaz barre egitea. Herriko giroari bizitasuna ematea da helburua.

Umorez hartzen duzue, beraz, mokolo deitzearen kontua.

Bada jendea galdetzen diguna ea nola jarri dugun izen hori... Izan hori badugu, izen hori dugu; ez da gutxi izen bat izatea!

Begarakoendako bertan-koendako bakarrik da?

Ez, edozein etor daiteke Mokolo Egunera, bere burua mokolotzat duen edonor.

UGARTE
AROEZTEGIA - ALTZARIAK

AROEZTEGIA

San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA

Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

Proiektuak · Koltxoiak
Horma-Armairuak
Altzariak neurrira
Ateak · Eskailerak
Leihoak · Tarimak
Egur lanak



Gazteluondo oinezkoendako egitea, zenbait bizilagunen kexa iturri

Mitarte irekitzean, goizez eta martitzen arratsaldeetan egongo da zabalik

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Mugikortasun Planaren barruan eta oinezkoei lehentasuna emateko helburuari jarraiki, Gazteluondo kale osoari alde zaharreko izaera eman gura dio Udalak. Hau da, alde zaharreko kale guztien moduan, autoek ordutegi bat izango dute pasatzeko: goizez (08:30-13:00) eta martitzen arratsaldeetan (18:00-21:00). Urte amaierarako, Mitarte kale berria irekitzen denerako, Gazteluondo kaleko zirkulazioa etengo duten piboteak gertu izango ditu Udalak. Asteon harrapatu ditugu langileak

Gazteluondo kalearen hasieran –Arrasate pasealekuaren altueran– piboteak jartzeko lanetan.

150 bat sinadura aurka

Udalak dagokien herritarrei aldaketaren berri eman ostean, kexak heldu ziren bizilagunen partetik. 150 bat sinadura jaso eta udaletxera eraman zituzten. Bizilagunen ordezkariak Inazio Azkarra-urizar alkatearekin, Omer Arregi Hirigintza zinegotziarekin eta Kepa Urteaga kexak kudeatzearen ardura duen zinegotziarekin bildu ziren. Honela azaldu



Mitarte kaleko lanak, asteen. | J.B.



Pibotea jartzen, Gazteluondon. | J.B.

digu bilera Urteagak: "Uneoro autoz sartzeko aukera izatea eskatzen ziguten, erosketetarako, larrialdi baterako... Guk alde zaharra oinezkoendako izateko Mugikortasun Planarekin bat egiten genuela eta, akaso, piboteen ordutegia berriro ere azter daitekeela esan genien".

Ordutegia alda daiteke, bizilagunek aukera gehiago izan dezaten. Hori bai, alde zaharreko kale guztiak hartu behar dira kontuan aldaketarako. Bizilagunek izan ditzaketen kalteak ulertzen dituela dio Urteagak, eta, horregatik, gertu daude bizilagunekin berriz ere batu eta ordutegi bateratua zehazteko: "Finean, erosketak dira, batik bat. Larrialdietarako, udaltzainek ireki ditzakete piboteak". Udalak argi dauka alde zaharrean joera izan behar dela oinezkoei lehentasuna ematea.

Ikastolako arduradunen artean askotariko iritzia dira nagusi eta diote eurak ez direla traba izango aldaketa egin dezaten.

Elurrari aurre egiteko beste ibilgailu bat erosiko du Udalak

J.B. | ARRASATE

Elurteei aurre egiteko beste ibilgailu bat erosiko du Udalak. Elurretako plan berriari begira iaz ikusitako beharra asetzeraz dator ibilgailu berria eta azterketa tekniko txiki bat pasa ostean negu honetarako erabilgarri izango dute. Bigarren eskukoa da eta 12.000 euro inguru ordainduko

du Udalak. Erosketa egingo dute Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako batzordearen eskaera aintzat hartuz.

Hala, hiru ibilgailu izango dituzte elurrari aurre egiteko. Eguraldi txarrak sor ditzakeen arazoak konpontzeko izateaz gain, eguneroko lanean erabiltzeko aukera ere ematen du.

Beste lan batzuk

Horrez gain, beste mantentze-lan batzuk ere esleitu ditu Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako batzordeak. Lan horien artean nabarmentzekoa da Zaldibarko haur parkea seguruago egingo dutela: kautxuzko zorua aldatuko dute eta zabalera handiagoa eman. Txirrista eta suhiltzaileen barra ere egokituko dute; parke osoaren itxura aldatuko dute: "Oso zaharkitua geratu da", adierazi du Obra eta Mantentze Sailak. Izan ere, ezin da ahaztu

Zaldibarko haur parkea aitzindaria izan zela duela 15-16 urte ireki zenean. Arrasateko zirkuitu integralez osatutako egurrezko lehen parkea izan zen, eta, hori eredu hartuta, beste hainbat parke eraiki ziren herriko hainbat txokotan. Munar auzoko parkean ere mantentze-lan txiki batzuk egin behar dituzte.

Bestalde, herriko hainbat lekutan tratamendu kimiko berezia emango diote lurzoruari. Helburua da neguari begira gunehoriek labainkorak ez izatea.

Al-Andaluskoen udazkeneko jaia aste bukaeran

Arrasaten bizi diren andaluziarrek 22. udazkeneko jaia ospatuko dute asteburuan. Ekitaldi aipagarrienak hauek dira: bihar gala-afaria egingo dute (21:30) eta gero Kordobako Sonora orkestraren emanaldia egongo da. Antolatzaileek dotore joatea aholkatzen dute. Domekan, elkarreko taldearen emanaldiaren (13:00) eta Sueños de Andalucía dantza taldearen saioaren (13:30) ostean, urdaiazpikoa eta mariskoa dastatzeko aukera egongo da (15:00).

Xabier Amuritza eta Sustrai Colina gaur San Isidro elkartean

Musakolako jai batzordeak goi mailako bertsolariak gonbidatu ditu gaur San Isidro elkartean egingo den bertso afarirako: Xabier Amuritza –Iker Zubeldiaren ordezkator– eta Sustrai Colina.

Afaria 21:00etan da eta afalostean hasiko da bertso saioa. Sarrerak 20 eurotan daude salgai Musakola auzoko Meneta, Ziorla eta Txinatto tabernetan.



ARIZMENDI IKASTOLA

107 lagun Arizmendiren lehen mendi irteeran

Azaroaren 20an ikasturteko lehen mendi irteera egin zuten Arizmendiko Lehen Hezkuntzako ikasle eta gurasoek. Arantzazutik Urbiara joan ziren, eta,

mendi buelta ederraren ostean, eguerdirako itzuli ziren etxera. Guztira, 107 lagun elkartu ziren. Beste bost irteera egingo dituzte.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

KINTADAK

1973AN JAIOTAKOAK

Abenduaren 3an Sara merenderuen bazkaria egingo dute. 14:30ean geratu dira Garibai autobus geltokian.

1955EAN JAIOTAKOAK

Bihar Errioxako upeltegi batera joango dira eta San Millar de la Cogollako jatetxe baten bazkalduko dute. 09:00etan geratu dira Garibain.

'Euskaraz bizi nahi dut': herritarrei parte hartzeko deia

Hilaren 3an grabazio jendetsua egin gura du Euskalgintzak Herriko Plazan

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Ekimen soziala ezinbestekoa da euskaraz bizi izateko. Horregatik, herri bakoitzak ekimen bat abiatuko du eta Arrasaten dagoeneko dei egin diete herritarrei lehen ekintzan parte hartzeko. "Arrasaten betidanik egon da tradizioa Euskalgintzak batera lan egiteko, eta, orain, berriro batu gara dinamika hau bultzatzeko", azaldu digu Itxaro Artolak, Euskalgintzako kideak. Hala, abenduaren 3an grabazio bat egingo dute Herriko Plazan, 12:00etan. "Euskararen Eguna aitzakia hartuta eta martxan jarri dugun ekimen honi indarra emateko asmoz, grabazio bat antolatu dugu. Grabazioan herriko sektore ezberdinak batzea eta herritarrek parte hartzea gura dugu". Hala, egingo duten bideoan, azoka, enpresa arloa, SUDC, ikastetxeak, kirola, gazteak, Emakume Txokoa, alkatea eta herria izango dira protagonistak, besteak beste. Goizean kalejira egingo dute, eta jendea animatu gura dute kalejira jendetsua eta koloretsua izan dadin. Horren ondoren, guztiak plazan



Itxaro Artola eta Oskar Elizburu, Euskalgintzako kideak. | MAIDER ARREGI

batuko dira herritarrekin egingako hitzordurako. Bada, bideo horren aurkezpena urtarrean egingo dute eta datozen urratsak aurkezteko aprobetxatuko dutela azaldu dute. Egun horretan, egun osoko jaia ospatuko da. Herri bazkaria izango da Uarkapen eta txartelak salgai dau-de 20 eurotan Monte eta Irati tabernetan; 100 txartel jarri dituzte salgai.

Izarak jartzeko deia

Kanpaina horretan, *Euskaraz bizi nahi dut* leloa daraman izara da protagonistetako bat. Hala, Portaloian jarriko dira salgai bariku arratsaldean eta zapatu goizean. Horren harira, grabaziora izararekin joateko dei egin dute. Eta, gero, etxeko balkoietan, elkarteetan eta tabernetan jartzeko eskatu dute.

Kontseiluak abian jarri duen *Euskaraz bizi nahi dut* kanpainaren helburu nagusia Euskalgintza guztia norabide berean jartzea eta aktibatzea da. Dena euskararen normalizaziori begira egitea da asmoa. Gakoa gizar-tean eragitea da; ekintzen bidez. "Erakundeekin eta norbanakoe-kin lan egitea da asmoa. Hizkuntza politikak aldatzea. Herri-tarren aktibazioan eragin nahi dugu; baita udalekin ere, *euskaraz bizi nahi dugu* leloa defendatzeko, indartzeko", azaldu digu Oskar Elizburuk. Euskaraz bizi izateko baldintzak sortzea da oinarria.

NIRE USTEZ

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL



Ni ere suminduta

Haserre nago. Arrazoia? Gauza gutxi aldatu direla hilaren 20tik hona. Izan ere, egun-bakar batean, ertzainek gene-ro indarkeriarekin lotuta, 6 gizonetako atxilotu zituzten.

Askotxo eta gutxiegi; hau da, biolentzia kasu bakarra soilik emanda ere, larregi irudituko litzaidake.

Eta bestalde, atxilo gutxi direla pentsatzen dut, jakinik ezagutzen ez ditugun edo salatzzen ez diren kasuak tamalez askoz gehiago direla. Urtero lez, emakumeen aurkako indarkeria ozen salatze eta egoerarekin nazkatuta gaudela adierazteko eguna iritsi da.

Ahaztu gabe, emakumeen-gan ez ezik, jendarteko sek-tore ezberdinetan gertatzen dela egoera; zenbat biktima, hainbat borrotero.

Egia da geroz eta kontzien-tziatuago gaudela genero indarkeriak inora eramaten ez gaituen ideiarekin; bada-kigu errespetuz jokatzek etorkizun hobea eskainiko digula, bai guri, eta baita ondorengoei ere.

Baina helmugara iristeko bidearen zati bat ibiltzeko dugu oraindik ere eta ezin-bestein tinko jarraitu behar dugu sentibilizatuz eta hez-kuntza arloan sakonduz.

Sarri esaten da ilusioz ere bizi daitekeela, eta, hilabete geratu arren, gutuna idazten hasi naiz jada.

"Olentzero, nagusi egitean, horrelako albisterik idatzi beharko ez duen kazetaria izan nahi dut". Beteko al da nire desira?

"Helmugara iristeko bidean gogor lan egin behar dugu"

Toledotik, mila euro Loterian jokatzera

M.A. | ARRASATE

Zapatu goizean, gizonetako bat Toledotik Arrasateko Erdiko kaleko loteria administrazio-ra etorri zen, motorrean, 1.100 euro aldean zituela, Gabone-tako dezimoak erosteko. 29.108 zenbaki kapritxosoa erosi zuen, eta Arrasateko Erdiko kaleko administrazioan baka-rrik dute, hantxe dago salgai zenbaki osoa. Bada, zenbaki hori Granadatik, Sevillatik, Bilbotik, Donostiatik eta Extre-maduratik ere eskatu diotela kontatu digu Elisa Lezetak.

Truke merkaturako jostailuak batzen hasi dira



Ludotekan jostailuez gozatzen gaztetxoak. | TXATXILUPURDI

M.A. | ARRASATE

Abenduaren 18an, domekan, truka-tu ahal izango dira jostailuak. Eta, horretarako, jostailuak batzen hasi dira. Abenduaren 14ra bitar-tean utzi ahal izango dira jostai-luak, 17:30etik, 19:00etara, herriko hainbat tokitan.


Elkartrukatu, berrerabili eta partekatzea, horixe da helburua. Bada, jostailuen truke merkatua hasi aurretik, ariketatxo bat proposatu die Txatxilipurdik umeei eta gurasoei edo umeen ardura-dunei. Ariketa honako hau da: etxean dauzkaten jostailu guztiak atera eta sailkatu: puzzleak, mahai jolasak, eraikuntza jolasak... Ondoren, jostailuak zenbat erabili dituzten eta zeintzuk diren gus-tukoenak aukeratu. Informazio gehiago www.txatxilipurdi.com webgunean dago.



URONDO
Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76



943 71 17 62



Mondrako eta Euskal Seleksioko neska lagunartekoa hasi aurretik. | MIREIA BIKUÑA

Mondrako neska Euskal Seleksiokoak baino hobeto

Lagunarteko partidua jokatu zuten martitzenean eta 2-1 menderatu zuten gazte mailako selekzioa

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Mondrako nesken futbol taldearen 25. urteurreneko ekitaldien barruan, lagunarteko partidua jokatu zuten martitzenean, Mojategin, Mondrak eta gazte mailako Euskal Seleksioak. Arrasatearrak nagusitu ziren, 2-1, batez ere, bigarren zatian egindako

lanari esker. Maitane Roak eta Olatz Legardak sartu zituzten etxeko golak.

Golak bigarren zatian

Mondraren hasierako hamaikakoan jokalaria gazteak ipini zituzten Jon Zuloagak eta Andoni Ezkurak. Euskal Seleksioko

jokalariai gazte mailakoak ziren. Dena den, azkar jokatu zuten bi taldeek. Biek ala biek izan zituzten golak sartzeko aukerak, baina bi atezainek geldiketa onak egin zituzten; batez ere, Mondrako atezain Oihanak.

Bigarren zatian hainbat aldaketa egin zituzten arrasatearrek

eta jokalariai beterranoak ipini zituzten jokoan. Segidan hartu zuten etxekoek partiduen kontrola eta minutu askoan jaun eta jabe izan ziren. Bi goleko errenta hartu zuten, eta, lehia erabakita zegoela zirudienean, Euskal Seleksioak gola egin, eta berdinketa lortzeko estutu egin zuen. Bukaeran, baina, Mondrak irabazi zuen.

Orain, ligan buru-belarri

Bada, lagunartekoa irabazita, indar guztiak ipiniko dituzte Mondrako neskek ligako hurrengo partiduan: domekan jokatu dute, Mojategin, Gasteizko Aurrearen kontra (12:00). Aurreko aste bukaeran Berri-Otxoari irabazi ostean (0-2), bolada onarekin jarraitu gura dute sailkapenean gora egiteko.

ZALDIBAR

EMAITZAK

Portaboleiros 2.0-Abokajarro	0-4
Iluna-Dribling	2-14
Dublin-Aston Birra	5-3
At. Betray-Aston Birra	6-4
Lasagabaster-Sonografos	1-4
At. Betray-Iritzu	3-4
Mcawen-Ekaltz	4-2
Aldatzluntz	2-0

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Driblin	9	3
2 Dublin	9	3
3 Aldatz	7	3
4 Fidel&Discipulos	6	2
5 Sonografos	6	3
6 Mcawen	6	3
7 Abokajarro	6	3
8 Iritzu	4	3
9 At. Betray	3	3
10 Iluntz	3	3
11 Ekaltz	1	3
12 Lasagabaster	0	3
13 Aston Birra	0	3
14 Portaboleiros 2.0	0	2
15 Iluna	0	2

PARTIDUAK

Azaroak 26, zapatua
10:30 Dribling-Fidel&Discipulos/Mcawen
11:30 Aldatz-Mcawen / Fidel & Disci.
12:30 Sonografos-Iluna / Aldatz
16:00 Iritzu-Dublin / Aston Birra
17:00 Aston Birra-Portaboleiros / Iritzu
Azaroak 27, domeka
11:30 Iluntz-At. Betray / Lasagabaster
12:30 Lasagabaster-Ekaltz / Iluntz

Markel Blancok Irungo Bidasoarekin fitxatu du

Arrasate Atletismo taldean 11 denboraldi egin ondoren Irunera doa, Kirolgi hitzarmena tarteko

M.B. | ARRASATE

Markel Blanco atletak Irungo Bidasoa taldearekin fitxatu du. 22 urte ditu eta azken 11 denboraldiak Arrasate Atletismo taldean egin ditu. Iraupen ertaineko lasterkaria da, eta 800, 1.000 eta 1.500 metroko probetan emaitza onak lortu ditu: pista estaliko Gipuzkoako eta Euskadiko txapelkun izan zen eta 1.000 metroko distantzian, kadete mailako Espainiako txapelkun. Gainera, Lasar-



Markel Blanco. | FERNANDO ZUFIRIA

teko krosa irabazi zuen. Azken lau urteotan Fernando Zufiriaren aginduetara entrenatu da eta aurrerantzean Santi Perez izango da haren entrenatzailea.

800 eta 1.500 metroko probetan denbora onak lortu ditu. Bi horietan, Gipuzkoako denboraldiko bigarren marka onenak ditu: 800 metrokoan 1.55,62 eta 1.500 metrokoan, 4.00,21.

Arrasatetik kanpo

Arrasate Atletismo Taldekoak pozik daude Markel Blancok hartutako bidearekin, baina "triste" ere badaude. "Arrasaten punta-puntako atletak ditugu, baina euren kostua handiegia da: txapelketak, masajistikak, entrenamenduak... Gurekin hazi egiten dira eta ondoren, klub handietara salto egiten dute", diote.

Etiket kanpoko lehen partidua irabaztera MU

M.B. | ARRASATE


Mondragon Unibertsitateak etiket kanpo jokatu du aste bukaeran. Seky.es taldearen kontra jokatu du bihar, zapatua, 17:30ean. Aurreko aste bukaeran Ocinedari aise irabazi ostean (97-61), etiket kanpoko lehen partidua irabazi gura dute. Josu Larreategiren taldeak 11 puntu ditu eta orain arte irabazitako hiru partidua Iturripen erdietsi ditu. Bada, liga lasaiago joan dadin, etiket kanpo irabazi beharra daukate.

Bigarrenaren kantxan jokatu du Ford Mugarrik

M.B. | ARRASATE

Ford Mugarrik Gasteizen jokatu du bihar, 18:30ean, Marianistas eskolan, El Pilar taldearen kontra. Ane Herroren taldeak lehia zaila izango du. Gasteiztarrek, arrasatearren atzetik, bigarren tokian daude 14 puntuarekin. Ford Mugarrik irabaziko balu, lehen lekua indartuko luke –egun, 19 puntu dituzte, bederatzi partidua irabazita eta bat berdinduta—. Dena den, galdu egiten badute ere, bi puntuko aldea izango dute oraindik.

PUB HAIZEA



arbolapeta



Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82



Oraingoz abesbatza osatzen duten kideak, martitzeneko entseguan, Anton Herrarteren zuzendaritzapean. | J.I.

Abesbatza sortu dute Abaroan, herriko erretiratu guztiei irekita

Interesatuak entseguetara agertu besterik ez dute, martitzen eta eguenetan

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Hango eta hemengo erretiratu elkarteetan ez da arraroa bertako kideekin osatutako abesbatzak izatea; Arrasaten, baina, ez zegoen orain arte. Hasi berri du ibilbidea: bi entsegu egin dituzte eta hamabost lagun inguru batu dira aurre-

neko saio horietan, Anton Herrarteren zuzendaritzapean.

"Galdetu zidaten ea ikusten nuen Abaroan abesbatza bat sortzeko aukerarik, eta erantzun nien baietz, noski. Jendeak nahi badu, zergatik ez?", dio Herrarterek taldea sortzeko ideiaren gainean

galdetuta. Eta horrela jarri ziren martxan, deialdia egin eta entseguak egiten hasi ziren.

Emakumeak dira, oraingoz, animatu diren gehienak. Logika badu, taldeko zuzendariaren arabera: "Emakumeek zailtasun gehiago izan dituzte halakoetan

ibiltzeko, etxeko lanen zama haiei utzi diegulako; gizezkoak erraztasun gehiago izan ditugu eta hemen batu garenok, behintzat, gaztetatik ibili izan gara abesbatzetan. Horregatik, orain, behin erretiroa hartuta, halakoek ilusioa egiten diete emakumei".

Ordu bat beharrean, bi

Eta bai, hala baieztatzen du, adibidez, proba egitea erabaki duen Maria Jesus Loitik: "Oso gustura nago ikusita nola joan diren lehenengo egunak; beti izan dugu zaletasuna kanturako, afarietan -eta kantatzeko, baina inoiz ez naiz abesbatzan ibili. Entretentua da, eta segitzeko asmoa dut".

Pentsa ze gogo duten: Anton Herrarteren asmoa zen astean behin egitea entsegua, ordubeteko; baina taldekideek eurek eskatu zioten birritan egitea. Martitzen eta eguenetan bilduko dira, Abaroan, 17:00etan.

Abesbatzako kideek animatu egin gura dituzte Arrasateko erretiratu elkarte guztietako kideak euren taldera batu daitezzen. Herrarte prest dago, beharrezkoa bada, hasiera baten bera joateko beste elkarteetara, behin beste abesbatza batzuk ere martxan jarrita gero elkarrekin jarduteko. Abaroakoek, oraingoz, elkarteko ospakizun eta egun berezietan egingo dituzte saioak. Jendea animatzeko argi dio zuzendariak: "Ez du inporta horren ondo ez kantatzeak; ondo pasatzea da kontua".

Ez dago sarrerarik 'La revoltosa' zarzuelaren azken saioetarako

Bihar, zapatua, eta domekan, 19:30ean izango dira *La revoltosa* zarzuelaren azken saioak Amaia antzokian. Bada, sarre- rarik ez dutenek ezin izango dute hura ikustera joan, dena salduta dago-eta eguaztena ezkerro. Izaskun Murgia elkar- teak prestatzen duen ikuski- zunak arrakasta handia izan du aurten ere, jendetza batu da-eta Amaian.

Santa Zezilia ospatuko dute Goikobaluk eta Arrasate Musikalek

Gaur, egubakoitza, ospatuko du Goikobaluk Santa Zezilia, kantu-poteoan, 19:30ean, Monte tabernan hasita. Arrasate Musikaleko ikasleek ere kontzertua egingo dute Kulturaten, 18:30ean. Bandak, berri- z, kalejira egingo du domekan, 12:00etan hasita, eta kontzertua 13:00etan plazan edo San Frantzisko elizan, eguraldiaren arabera.

Punk-oi! kontzertua egongo da gaztetxean abenduaren 3an

Punk-oi! doinuak entzuteko aukera egongo da hurrengo asteburuan gaztetxean. Hain zuzen, Kataluniako Codigo Neurotico, Galiziako Keltoi! eta Arrasateko Never Surrender eta Aggressive Combat taldeek egingo dute emanaldia egun horretan. Sarrera bost euro da. 22:30ean hasiko da jotzen aurreneko taldea eta goizaldera arte iraungo du jaiak.

'Herrixa dantzan' gaur, egubakoitza, Garaia guneko jatetxean

Portalo elkar- teak antolatuta eta Patxi Monterok gidatuta, 20:00etan hasiko da *Herrixa dantzan* saioa Garaia Berrikuntza Guneko jatetxean. Gidatutako dantzaldian edo- nork har dezake parte, ezer ordaindu barik. Herriko auto- busak geldialdia egiten du Garaia parean.

Martitzenean aurkeztuko dute Pedro de Viteriren biografia

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Ana Isabel Ugalde, Arantza Otadui, Juan Ramon Garai eta Jabier Balantzategi historialariek egin dute *XIX. mendeko euskal burgesia. Pedro de Viteri Arana, filantropoa eta eskola sortzailea* izeneko lana. Martitzenean, hilak 29, aurkeztuko dute, 19:00etan, Kulturaten.

1833an Arrasaten jaioa, Pedro de Viteri elite burgeseko kide izan zen garaiko giro alda- kor eta iraultzailean. 60 urte- rekin jarrera pertsonala errotik aldatu eta sorterrria eta Gipuz- koa osoa modernizatzerara bide- ratu zuen bere ondasunaren



Pedro de Viteri. | GOIENA

zati handi bat, hainbat eskola eraikita.

Pedro de Viteriren gaineko liburua Intxorta 1937 kultura elkarteak argitaratu du.



ANDER MONEDERO

Uriarte, Arizmendiari buruz

Juan Maria Uriarte Gipuzkoako gotzain emerituak eman zion amaiera astelehenean On Jose Maria Arizmendiari buruzaren 35. urteurrenaren harira egin den berbaldi zikloari. Abadearen kide izandako Jose Maria Ormaetxea ere izan zen mahaian. Hitzaldiek interesa piztu dutela adierazi dute antolatzaileek. Martitzenean Arizmendiari buruzaren omenezko urteurren meza egingo dute San Juan parrokian.



Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Restaurante
UGARAN
Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua

Gubi

ILE APAINDEGIA
Otalora Lizentziaduna 5
ARRASATE
Tel.: 943 79 12 74



Boluko kalteak salatu ditu Tokiko Gobernu Batzarrek

Azken aldiz, hainbat kalte eragin zituzten joan den urriaren 16an

EDU MENDIBIL | BERGARA

Bergarako Udalak joan den urriaren 16an Bolu auzoan gertatutako kalteak salatu nahi izan ditu ohar baten bidez. Hain zuzen ere, Tokiko Gobernu Batzarrek egindako proposamenak onartu ondoren, kalteen inguruan Udalaren salaketa eta iritzia zein den ezagutarazteko asmoz dekretua eman du Jesus Elortza alkateak. Aurretik, Udaltzaingoak prestatutako txostena izan zuen aztergai Tokiko Gobernu Batzordeak. "Bergarako Udalak argi utzi nahi du gertatutakoa eta horretarako komunikabide eta medioak erabiliko ditu, herri-tarrek gertatutako ekintza higuigarrien berri izan dezaten", dio dekretuak.



Behin baino gehiagotan eragin dituzte kalteak Boluko igogailuetan. | UDALA

Txikitutako loreontzi handi bat

Esan bezala, gertakariak urriaren 16an izan ziren. 10:30 aldera telefono dei bat jaso zuten Udaltzaingoaren bulegoan, Boluko frontoiaren atzealdetik gora igotzeko dagoen igogailuan kalte batzuk izan zirela abisua emanez. Bi udaltzain bertaratu eta gauza zabor edukiontzi bat errepidean iraulita ikusi zuten lehenbizi. Ondoren, Santa Ana parketik Bolura igotzen duen igogailuan dute txikitutako loreontzi baten zatiak aurkitu zituzten. Antza denez, ezezagun batzuek Bolu kaleko goialdean dauden loreontzietariko bat goitik jaurti zuten igogailuaren ate gainean dagoen estalpearen kontra. Era berean, Santa Ana parkera jaisten den igogailuko baranda puskatuta eta bere tokitik aterata zegoen.

2010a ezker abian

Boluko auzotarren irisgarritasuna bermatzeko igogailuak 2010. urtearen hasieran jarri zituzten martxan. Zoritzarrez, Udaltzaingotik adierazi digutenez, inguru horretan kalteak askotan eragin dituzte ordutik hona, eta, gehienetan, asteburuetan gertatu dira astakeriok.

NIRE USTEZ

JOSE ANGEL MIKEO



Non daude emakumeak?

Pasa dira hauteskundeak, eta gehiengo zahar-berriak osatu dira, han batzuk eta hemen beste batzuk. Hasi dira, gainera, lehen adierazpenak ere, hango gehiengoak hemengo gehiengoari buruzko egonezina azalduz. Baina hori guztia biharamunerako espero genuena da, bakoitzak berea azalduz argiago edo ilunago.

Dena dela, asteleheneko egunkarietan Hego Euskal Herriko diputatu eta senatarien argazkiak ikustean, eta domeka gaueko zenbait imajina ikustean ere bai, zerak utzi nau arduratuta: hogeita hiru diputatutatik hiru bakarrik dira emakumeak, eta senatarien artean hamaseitik zazpi.

Pentsakor jarri nintzen, eta lehenengo bururatu zitzaidana zera izan zen, zerrendok gizonezkoen soziedaderen batean eginda ote dauden, bestela ez da normala gizartearen erdia baino gehixeago emakumeak izanda, herri honetatik halako ordezkaritza desorekatua izatea.

Orain bizi dugun bakera-kio bidea urratzen emakumeak izan ziren aitzindarietakoak, "Ahotsak" eta halako zubiak eraikiz. Bariku honetan emakumeen aurkako indarkeria gogoratzeko eguna izango da... Beharbada ikustezin izatetik aginte eremuetara bideak zabaltzen ere badugu zeregina oraindik.

"Hogeita hiru diputatutatik hiru dira emakumeak, eta senatarien artean hamaseitik zazpi"

OHARRAK

BAZKARIA EUSKARAREN EGUNEAN, ABENDUAREN 3AN

Abenduaren 3an Euskararen Eguna ospatuko da Bergaran eta Udaleko Kultura Zerbitzuak eta herriko hainbat elkarte egitarau zabala prestatu dute egun horretarako. Eguerdirako herri bazkaria deitu dute Muniben jarriko den karpan. Txartelak 15 eurotan eskuratu ahal izango dira kultura etxean eta Deportivo eta Arrano tabernetan. Menua hauxe da: babarrun gorriak sakramentu guztiekin; oilaskoa entsaladarekin eta hojaldre tarta izozkiarekin (ogia, edaria eta kafea barne). Berogailua jarriko dute Munibeko karpan.

ERRETIRATUEN EGUNA ETA MUS TXAPELKETA OSINTXUN

Osintxuko *Gaztañatan* azaroa egitarauaren barruan, mus txapelketa jokatu da bihar, zapatua, Osintxuko pilotalekuan, 16:00etan hasita. Domekan, Erretiratuen Eguna ospatuko dute herri bazkaria eginda, 14:00etan, Txuringon.

ALKOHOLISMOAREN GAINEKO HITZALDIA ABENDUAREN 2AN

Bergarako Intxorta alkoholiko anonimoen elkartearekin batera, San Joxepe erretiratuen elkarteak alkoholismoari buruzko hitzaldia iragarri du abenduaren 2rako. Erretiratuen egoitzan izango da hitzaldia, 17:00etan.

LANERAKO IKASTAROK MIGUEL ALTUNAN

Lanerako formazioa egitarauaren barruan, langile eta langabeendako ikastaroak eskaintzen ditu Miguel Altunak. Katalogo modular berrira lotutako eta %100ean diruz lagundutako ikastaroak dira. Argibideak: 943 76 70 49.

KEINU HIZKUNTZA IKASTAROK

Aransgik, Gipuzkoako pertsona gorren familien elkarteak, keinu hizkuntza ikasteko ikastaroak antolatu ditu. Gorrekin komunikazioa hobetu nahi duten debagoiendar guztiei daude zuzenduta. Hastapen eta sakontze mailak izango dira, urtariletik maiatze-

ra. Ikastaroak 30 ordukoak izango dira Argibide gehiago Aransgiko egoitzan, Boni Laskurain pasealekuan, edo 943 76 27 03 telefonon.

POL-POLEKO FEDERATU TXARTELAK

2012ko federatu txartelak egiten hasiko dira Pol-Poleko kideak gaur, astelehena. Oxirondo azokako goiko solairuan dago Pol-Poleko bulegoa aspaldian. Bulego ordutegia hauxe duzue: astelehen, martitzen eta eguaztenetan 18:45etik 19:45era. Internet bidez ere egin daiteke federatu txartela, Pol-Poleko webgunean: www.pol-pol.net.

PALEOGRAFIA IKASTAROA, BIHAR HASITA

Antzinako elkarteak Bergarako Udal Artxiboko laguntzarekin antolatuta, paleografia ikastaroa egingo da Bergaran. *Caligrafía de textos modernos: Introducción a la lectura de documentos de Archivo de los siglos XVI al XVIII* izenburupean, eskolak azaroaren

26an eta abenduaren 3an eta 17an izango dira, 09:30etik 13:30era, Miguel Altuna institutuan. Matrikulak 25 euro balio du. Izen-ematea eta argibideak: info@antzinako.org.

XABALOTE: ASTEBURU-PASA ELOSUKO ATERPETXERA

Xabalote gaztelekuak irteera antolatu du Elosuko aterpetxera *asteburu-pasa joateko*. Abenduaren 10ean eta 11n egingo dute irteera. Izen-ematea egiteko epea azaroaren 24tik abenduaren 4ra izango da zabalik, gaztelekuan bertan.

1967AN JAIOTAKOEN AFARIA ABENDUAREN 3AN

1967an jaiotako bergarrek afaria egingo dute datorren zapatuan, abenduaren 3an, Azpeitxi jatetxean. Izen-ematea Euskadiko Kutxan egin daiteke eguaztenara arte, azaroaren 30era arte. Afarirajoa nahi dutenek 20 euro aurreratu behar dituzte 0091140232 kontu korrante zenbakian (Maria Eugenia Basterra).

JOXAN
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

UREDERRA
ITURGINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

GOIERRI
Autogidarien Eskola



Gidabaimena euskaraz zein gazteleraz atera dezakezu
Informa zaitez

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA



Iban Nikolaik giroa berotuko du didjeridua joaz. | GOIENA

'Germinal!' fantzinearen bigarren zenbakiaren aurkezpena gaztetxean

Fantzinea bistaratu aurretik eta ondoren musika emanaldiak prestatu dituzte antolatzaileek

ASIER ALKORTA | BERGARA
Gaztetxeko *Germinal!* fantzinearen bigarren zenbakiak argia ikusiko du gaur 20:00etan hasiko den ekitaldian. Musika, jana eta edana ez dira faltako, beste behin ere, fantzinearen kaleratze egunean. Argitalpean parte hartu dutenek herri-tar guztiei egin diete jaira joateko gonbita. Sarrera doan bada ere, borondatea onartuko dela aurreratu dute antolatzaileek.

2010eko herriko jaietan argitaratu zen lehen aldiz *Germinal!* fantzinea. "Orduan, *zero zenbakia* bezala izendatu genuen".

Iaz abenduan lehenengo zenbakia kaleratu ostean, orain, urte bat geroago, fantzinearen beste zenbaki bat aurkeztuko dute gaztetxeko kideek. "Orain arte egin bezala, jai xumearekin egingo dugu aurkezpena", adierazi du Aser Polvorosa gaztetxeko kideak.

Nikolai, giroa berotzeko
Zenbaki berriaren aurkezpena "hotza" ez izateko, argitara atera aurretik Iban Nikolai dijeridu jotzaileak emanaldi txikia egingo duela esan dute antolatzaileek. "Aurkezpena motza izango da eta berehala egingo dugu; beraz, hori egin aurretik,

giroa berotzeko emanalditxoa ondo egongo zela pentsatu genuen".

Fantzinean gaztetxeko kideek parte hartu dutela esan du Polvorosak. "Pertsonek pertsonendako egindako lana da. Nork bere ekarpena egin du eta horren guztiaren batura da fantzinea".

Fantzinea aurkeztu eta gero, afari arina egongo dela gaineratu dute. "Afaria doan da eta ez dago aurretik izena eman beharrik. Ondoren, Fuego Inna Hernani Dancehall Reggae Sound System taldeak emanalditxoa egingo du eta hortik Munibeko kontzertuetara pas-tuko da jaia".

Ekitaldia doan bada ere, argitalpenarekin jarraitzeko eta maiztasuna zehazteko borondatea eskertuko dutela gaineratu dute gaztetxekoek.

ESANAK

"Pertsonek pertsonendako egindako lana da fantzinea"

ASER POLVOROSA | FANTZINEA

Torunsako langileek greba mugagabea hasi dute gaur

Langileen etorkizuna "argitzeko" eta soldaten kobranta bermatzeko plana eskatu diote enpresari

ASIER ALKORTA | BERGARA
Torunsa enpresako langileek greba mugagabea hasi dute gaur. Helburua enpresako zuzendaritza langileen ordezkariekin esertzea eta etorkizunerako plan bat egitea dela diote langileen ordezkariak. "Plan horren barruan jaso beharko litzateke zor dieten soldaten kobran-tza".

Urriko soldata kobratzeke daude oraindik Torunsako lan-gileak. Eta enpresak langileei esandakoaren arabera, urtea bi hilabeteko zorrarekin itxiko du enpresak. Egoera horren aurrean, langileek mobilizazioak egiteko jarrera hartu dute.

Behin jarrera hori hartuta, eta enpresarekin akordiora iritsi bitartean, martitzenetan eta egubakoitzetan Bergarako plazan elkartuko dira langileak, 12:00etan, elkarretaratzea egiteko.

Langileen esanetan, krisialdia ez da egoeraren erruduna. "Lana badago, batzuetan pilatu egiten da eta. Eskariak ere ezin izan dituzte garaiz bete. Argi dago, krisia ez da arazoa. Horregatik eskatzen diogu enpresari langileen etorkizuna argituko duen plan industrial bat garatzeko eta aurkezteko", adierazi dute langileen ELAko eta LABeko ordezkariak.



Langileek enpresaren sarreran jarri duten pankarta. | ASIER ALKORTA

Elkarretaratzeak martitzen eta egubakoitzetan egingo badi-tuzte ere, egunero enpresaren kanpoko aldean elkartzen dira langileak, eta euren aldarriak jasotzen dituzten pankartak jarri dituzte enpresa inguratzen duten hormetan.

Enpresako zuzendari dago-kionez, ez du gaiari buruzko adierazpenik egin nahi izan.

Enpresaren isiltasuna
Ez da lehenengo aldia aurten Torunsako langileek grebara

jotzen dutena. Izan ere, irailaren 2an muga gabeko greba iragarri bazuten ere, lau egunera bertan behera utzi zuten, langileen ordezkariak enpresarekin akor-diora iritsi zirelako.

Orduan ere soldaten kobran-tza izan zen arazoa. Hala eta guztiz ere, berehala konpondu zen, enpresak urriaren 31 baino lehenago langileekin zituen zorrak kitatzeko konpromisoa hartu zuelako.

Orain, aldiz, ostera ere egoe-ra berean daude.

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

Kayak Taberna

Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

San Pedro, 9 - Teléfono 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA

Ikuskizuna Bergarako kadeteen eta selekzioko nesken partiduan

Etxeko mutilek 16 urtetik beherako neska onenen kontra jokatu zuten

JULEN IRIONDO | BERGARA

Ez da ohikoegia, baina martitzenean hala gertatu zen Ipintza futbol zelaian: mutilak eta neskak elkarren kontra aritu ziren lehian. Bergarako kadeteak 16 urtetik beherako Euskal Selektzioaren kontra. Lagunarteko partidua zen, baina selekziokoek serio hartu zuten saioa, Espainiako Txapelketa prestatzeko.

Batzuek eta besteek sartutako gol kopuruari dagokionez alde handia izan zen markagailuan etxekoen alde –mutilak urtebete zaharragoak ere baziren–; alde hori, ordea, ez zen jokoan ikusi. Are gehiago, jokatu neskek jokatu zuten hobeto; hala zioten etxeko kadeteetako jokalariek eurek, Martin Azpiazuk, Ander Azulak, Ibai Leizeagak eta Martxel Garaik: "Guk baino hobeto jokatzen zuten eurek, errazago mugitzen zuten baloia. Kalitatea zuten. Guk gehia-



Bi taldeetako jokalaria, batera, partidua amaitu ostean. | J.I.

go jokatu dugu kontraerasoan".

Partidua amaituta mutilek zioten bi taldeek disfrutatu zutela zelaian, nork bere erara jokatuta; nesken selekzioaren kontra jokatzea esperientzia polita izan

da: "Euskal Selektzioaren kontra inoiz jokatu gabeak ginen, baita nesken kontra ere". Atzera antzerako partidua bat jokatzea gustatuko litzaieken galdetuta, ez zuten zalantzarik egin: "Ea posible den,

ondo egongo litzateke". Beste hitzorduren bat sortu artean, baina, nesken partiduren bat ikustearekin konformatu behar dute, inguruan tokatzen bada: "Joango ginateke, gonbidatzen bagaituzte, lagunak egiteko aukera izan daiteke", zioten muti-koek.

Arrasateko neska bat ere bai

Hurrengo konpromisoak, baina, etxetik urrun izango dituzte selekzioko neskek. Espainiako Txapelketarako sailkapen fasea jokatuko dute abenduan Extremaduran; harako prestaketaren barruan antolatutakoa izan zen martitzeneko partidua: "Ondo zetorkigun gu baino indar eta abiadura handiagoa duen talde baten kontra jokatzea. Sufritzen ikasteko ere ona da; aurrekoan jokatu genuen 22 urte inguruko neska batzuen kontra, eta sufritu barik irabazi genien", zioen Jose Manuel Ocio selekzioko hautatzaileak. Partiduak eman zuenarekin gustura geratu zen Ocio.

Hautatzaileak Bergaran jokatutakoa den Melani Concepcion arrasatearra izan zuen, besteak beste, bere aginduetara. "Jokalaria ona da, zioen teknikariak".

Bederatzi domina Labegaraietan Beti-Bustikoentzat

J.I. | BERGARA

Lau urrezko domina, lau zilarrezko eta brontzezko bat lortu zituzten, aurreko zapatuan, Labegaraietan jokatu zen ur bizietako eslalomean parte hartu zuten herriko zortzi piraguiten artean.

Guztira, 60 izan ziren parte-hartzaileak, eta bergararren emaitzak hauek: Infantil A mailan, K-lean, Javier del Rey bigarren; Alebin A-n, K-lean, Unai Otadui lehenengo, Mikel Zubizarreta bigarren, Iker Egaña bosgarren eta Iker Manso seigarren; Alebin A mailan, C-2an, Mikel Zubizarreta eta Iker Manso garaile; Infantil Bn, k-lean, Leire Ugalde bigarren eta Aitziber Iturriaga hirugarren; Alebin A kategorian, K-lean, Miren Murgizu irabazle, C-lean bezala; azkenik, Infantil B mailan, k-lean, Aitziber Iturriaga bigarren. Taldeka, hirugarren izan zen Beti-Busti.

2012ko martxak antolatzeko jende beharra dago

J.I. | BERGARA

Lokatzako arduradunek jende beharra dute 2012ko errepideko eta mendiko bizikleta martxak antolatzeko. Laguntzeko prest daudenak egunetan, 20:00etan, anbulatorio atzeko lokalean egiten dituzten batzarretara ager daitezke, edo lokatza_ze@hotmail.com helbidera mezua bidali. Abenduko batzar orokorrerako lantalderik sortzen ez bada, martxak egitea kolokan egongo dela adierazi dute.

Aurtengo martxekin pozik geratu dira, eta eskertu dute, bereziki, Aspanogi eta herriko merkatarien laguntza.

Liburu ugari gaurko eta biharko truke azokarako

Jardunen euskarazko lanak utzi dituztenek izango dute aukera utzi adina ale hartzeko, plazan

J.I. | BERGARA

Bigarren urtez antolatu du aurten Jardunek euskarazko liburuen truke azoka. Azaroaren 7tik atzo, eguna, bitartean egon da aukera liburua euskara elkartaren egoitzara eramateko, eta hala egin dutenek modua izango dute, gaur biharretan, eman beste ale hartzeko.

Ekimenaren bigarren aldi honetan liburu asko jaso dituztela adierazi dute Jardunetik: "Iaz baino gehiago, esango nuke", zioen oraindik eramateko epea amaitu barik zela Nerea Mendi-

zabal euskara elkarteko kideak: "Haurrendako eta gazteendako liburua asko jaso ditugu, helduendako lanak gutxiago".

Gainera, jendeak ez omen du liburu bat edo bi eraman; asko izan ei dira kopuru politean utzi dituztenak, "baita hogeikoak ere, bat baino gehiago". Batzuek, hortaz, etxeko liburategia berritzeko aprobetxatuko dute azoka.

Gaur arratsalde, bihar goizez Jasotako liburu kopurua ikusita azoka polita aterako delakoan daude Jardunen. "Mugimendua

egongo da", ziurtatu digute. Iazko esperientzia ikusita, komeni lehenengo orduan agertzea plazako arkupeetako postuetan, jendearen gogokoen izan ohi diren lanak agudo agortu baitziren.

Jasotako liburua adinka hiru multzotan sailkatu dituzte Jardunekoek, eta parte-hartzaileek utzitako lanari dagokion multzo bereko liburua hartu ahal izango dute trukean. Bildumak liburu bakartzat joko dira, eta mahaietan ez da sexu bereizketarik edo indarkeriaren aldeko jarrierarik erakusten duen lanik egongo.

Azokako ordutegia ondorengo izango da: gaur, egubakoitza, 18:00etatik 20:00etara eta bihar 11:00etatik 13:00etara. Jardun euskara elkartaren ekimenaren helburua da euskarazko liburuen irakurketa bultzatzea, lanen berberabilpenaren bitartez.

Bertan behera geratu da La Banda del Abueloren kontzertua

Arrasateko taldeak kontzertua egin behar zuen gaur, egubakoitza, Bergarako gaztetxean, baina azken momentuan emanaldia bertan behera utzi behar izan dute. Baxu joleak istripua izan du, eta tendoi bat hautsi; horren ondorioz, La Banda del Abuelok ezingo du kontzerturik egin gaur Bergarako gaztetxean, iragarrita zegoen moduan.

Domekara arte ikus daitezke Luis Laskurainen lanak

Luis Laskurainek erakusketa dauka jarrita Aroztegi aretoan. Hilaren 27ra arte, domekara arte, egongo da zabalik. Laskurainen lanak ikusi ahal izateko ordutegia hau da: gaur, egubakoitza, 18:00etatik 20:30era; bihar, zapatua, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; azkenik, etzi, domeka, 12:00etatik 14:00etara.

Shut Up eta Dark Code taldeak gaur gauean Munibe plazan

Goiko estazioko taldeek kontzertua egingo dute gaur, egubakoitza. Munibe plazan izango da, 22:30ean hasita. Hain zuzen, bi talderen emanaldiarekin gozatzeko aukera izango dute plazan biltzen direnek: Shut Up eta Dark Code izango dira. Bada, antolatzaileek iragarri dute txosna jarriko dutela.

Mendiko federatu txartelak, astelehenetik aurrera

Azoka gainera bulegoan egingo dituzte txartelak, astelehenetik eguaztenera, 18:45etik 19:45era. Internetez ere egin daiteke, www.pol-pol.net helbidean. Bestalde, urteko azken irteera domekan egin zuten Pol-Poleko beteranoek, Balmasedatik Escritako gainera.



JUAN MARIA SASIGAIN

MOKOLO

**DAGOZKIEN
ESKUBIDE
JABE**

AZAROAK 26. EGUNA

BERGARA

11:30 Umientzako jokuak

12:00 Mokolo ekitaldixa
Jarraixan, triki poteua

14:30 Mokolo bazkarixa (9^{euratan})
Sarrerak salgai; Herriko tabernetan!

18:00 Bad Sound System
Jarraixan, txaranga-poteua!

23:00 Kontzertuak;

GARRAXIKA
(ROCK-AZPEITIA)

+

DANTZADI
(BERBENA TALDEA)

LAGUNTZAILIAK:

TABERNAK:

INFERNUKUA POPIS ARRANO

ARIZNOA KORTAZAR IRRINTZI

EUXEBIO USOA BULE

ZIRIPOT ETXAGI

UDALA



Bergarako
Udala



Agurtzane Basterra menu osasungarrien aurkezpen ekitaldian. | MIREIA BIKUÑA

Menu osasuntsuak Ulmako bazkide eta langileendako

Hilaren 28tik aurrera emango dituzte Oñatiko Etxe Aundin eta Soraluzen eta Legazpiko Mauleonen

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Ulma Taldeko bazkide eta langileek menu osasuntsuak hartzeko aukera izango dute hilaren 28tik aurrera. Ulmarekin hitzarmena duten jatetxeei eman diete kanpainan parte hartzeko aukera, eta, oraingoz, hiruk onartu dute: Oñatiko Etxe Aundi eta Soraluze eta Legazpiko Mauleon jatetxeek.

Bazkide eta langileendako

"Gure langile eta bazkide askok egunero bazkaltzen dute etxetik kanpo, %18k. Hori horrela, elikadura orekatuaren aukera eskaini gura diegu kanpaina honekin", esan dute Ulmako arduradunek kanpainaren aurkezpenean.

Ze ezberdintasun topatuko dituzte Ulmako langileek eta bezeroek jatetxe horietan? "Sukaldariak eguneko menuan plater osasungarrienak zeintzuk diren adieraziko dio bezeroari. Lehenengo eta bigarren plateretan, aukeran ematen dituen artean osasuntsuena zein den adieraziko du arbelean", diote.

Kanpaina Ulmako langile eta bezeroendako da, baina jatetxe horietan bazkaltzen duen edonor balia daiteke plater osasuntsuen gaineko informazioaz.

Hainbat euskarri

Etxe Aundi, Soraluze eta Mauleon jatetxeek kanpainaren gaineko informazioa zabaltzeko askota-



riko euskarriak izango dituzte. Aipagarriena eguneko menua idatziko duten arbela izango da: eguneko platerak zehazteaz gain, osasuntsuena zein den adieraziko dute. "Sukaldari bakoitzak egunero plater bat azpimarratu

beharko du, gutxienez", esan digute Ulmako arduradunek.

Bestalde, Ulmako bazkideek eta langileek informazio gehiago izan dezaten, kanpainako lehen hilabetean informazio orriak izango dituzte mahai gainean. Azkenik, kanpainan parte hartzen duten jatetxeek zigilu berezi bat izango dute menu osasungarrien aldeko apustua egin dutela adierazteko.

Sukaldariendako gidak

Ulma Taldeak, jatetxera doazen bezeroendako euskarriak egiteaz bat, sukaldariendako gida ere egin du. Gida horretan, plater osasuntsuak egiteko jakiak nola prestatu behar dituzten eta ze produktu erabili behar duten zehazten dute. "Dieta mediterraneoan oinarritutako sukaldaritza aholkatzen dugu. Oliba-olioaren eta elikagai begetalen erabilera bultzatu gura dugu. Arraina sarritan jan behar da, eta okela gorria gutxiagotan. Esneak eta esnekiak eta azukre sinpleak kontsumitu behar ditugu", diote Ulmakoek.

Bestalde, saltsak egiteko eta okelak eta arrainak papillote eran prestatzeko errezetak ematen dituzte sukaldariendako gidan. Azkenik, elikagaien semaforoa ere jaso dute.

Hirutan bakarrik

Hiru jatetxeek egin dute bat kanpainarekin, baina Ulma Taldeak 12rekin du hitzarmena. Hala, jatetxe horietan bazkaltzen duten bazkide eta langileek menuaren erdia oraintzen dute eta beste erdia, enpresak. "Hiru jatetxerekin hasi gara, baina etorkizunean gehiago animatuko direla espero dugu. Gutuna bidali genien kanpainaren berri emateko, aurrez aurreko bilerak izan genituen eta kanpainako euskarrien diseinua erakutsi genien", esan digute arduradunek.

Ulmarekin akordioa duten 12 jatetxeak hauek dira: Bikoitz, Debatarra, Etxe Aundi, Etxeberria, Soraluze, Urtiagain, Zotz eta Zurrust Oñatin; Aitxuri, Mauleon, Mirandaola eta Goierri Legazpin.

NIRE USTEZ

ARATZ
LOSADA



AMKE, herri baten batasuna

Hauteskunde garaia pasa berri dugunean, egun aproposa iruditzen zait herri baten batasuna kirol elkarte baten ikuspegitik nola isla daitekeen azaltzeko. Garbi ikusi dugu azken aste hauetan, zenbat lan egin behar den botoa eskuratu eta herriaren gehiengoa zure alde edukitzeko. Oñatiarrok, alde horretatik, zorioneko gaude. Aspaldidanik gure arduradunak lan bikaina egiten ari dira, eta elkarte hau herriarentzat kirol elkarte soil bat baino gehiago, sentimendu bat dela esango nuke.

Eta ez da oñatiarrok soilik eta harro esaten dugun gauza bat. Probintzia mailan, baina batez ere kanpotik gurera jokatzera etorri diren pertsonen baieztatutako zerbait da. Momentuko adibide garbiena saskibaloian aurki dezakegu. Bazkide kanpaina zabaldu zenetik hilabete eskas bat pasa da, eta ia 500 herritarrek eman diote konfiantzazko botoa saskibaloari. Txapela kentzeko modukoa! Eta zer esan zapatuero kiroldegian biltzen den jendetzaz, maiztaren 7an lortutako igoeraren ospakizunaz...

Ez nuke saskibaloia kasuan soilik zentratu nahi, akats handia litzatekeelako. Azken finean, 14 sail ezberdinek osatzen dute elkarte erdugarri hau eta batasun horretan dago arrakastaren sekretua.

Herri honek kirol elkarte honekiko erakutsi duen maitasunak txundituta nauka. Ni Aloña Mendikoa naiz, eta zu?

"Elkarte honekiko erakutsitako maitasunak txundituta nauka"

Berdintasuna aldarrikatzeko elkarretaratzea

Berdintasun batzordeak eta berdintasunaren aldeko taldeak antolatuta elkarretaratzea izango da gaur, 18:30ean, herriko plazan. Genero Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna da gaur, eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna aldarrikatzeko bilduko dira. Herritar guztiak gonbidatu dituzte.

Txantxiku Ikastolako neska-mutikoak Goienan

Txantxiku Ikastolako laugarren mailako 40 ikasle eta bi irakasle Goiena bisitatzen egon ziren astelehenean. GOIENA papera nola egiten dugun ikusi zuten (maketak, argazkiak...), eta Goiena telebistako platoa ezagutu zuten: kamerak nola erabiltzen diren eta nola grabatzen den. Arrasate Irratiaren estudioan ere egon ziren.



MIREIA BIKUÑA

Haizea Etxeberria | Bitaka taldeko kidea

"Askoren ustez, bizikleta jostailua da, baina kalean arriskutsu bihurtzen da"

- Udalak Bide Hezkuntza Programa lantzen dihardu ikastetxeetan
- Durangoko Bitaka taldea kontratatu du neska-mutikoekin ibiltzeko

MIREIA BIKUÑA | OÑATI
Orain dela urte batzuk Bizikleta Plana ipini zuen abian Udalak eta bidegorri sarea egiten hasi zen. Orain, Bide Hezkuntza Programarekin dihardute lanean herriko ikastetxeetan. Bitaka taldea kontratatu du Udalak lan hori egiteko eta Haizea Etxeberria oñatiarrak dihardu ikasleekin lanean.

Zergatik Bide Hezkuntza Programa?
Oñatin azken urteetan mugikortasun iraunkorraren aldeko apustua egin da. Herrian mugitzeko azpiegitura egokiak jartzen dihardute, bizikletendako bideen bitartez, eta bizikletaren erabilera sustatu nahi dute auto pribatuaren alternatiba moduan.

Herrian diagnostiko bat egin zen jokabide arriskutsuenak zeintzuk ziren ikusteko. Ikusi genuen bizikletaren erabilera nagusia aisialdikoa zela, baina, azpiegitura egokiak izanda, poliki-poliki eguneroko joan-etorriak egiteko erabiltzen zela. Hori horrela, Udalak erabaki zuen Bide Hezkuntza Programa abian ipintzea. Bidegorri sarea egin, baina erabiltzen ez bada...

Zer lantzen zabilzate ikasleekin?
Bide Hezkuntza Programan bide-segurtasun neurriak lantzen ari gara. Hainbat ekintza egiten ditugu neska-mutikoekin. Ekintza praktikoak. Erakusten diegu arriskuak non dauden, segurtasuna nola zaindu behar den eta, bereziki, bizikletarekin eta patinetearekin nola ibili behar den.



Haizea Etxeberria, Errekalde Herri Eskolakoekin bizikletan. | MIREIA BIKUÑA

"Oinezkoak garenean ere betebeharrak batzuk ditugu"

Ikusi dugu patinetearekin azkar samar ibiltzen direla.

Era berean, oinezko moduan izan behar ditugun jarrerak ere lantzen ditugu. Bizikletan edo patineten goazenean betebeharrak

"Adinaren arabera oso bestelako ekintzak egiten ditugu"

batzuk ditugu eta oinezkoak garenean, beste batzuk. Oinezkoek, ez dituzte egokitutako pasabideak erabiltzen, ezta semaforoak errespetatzen ere, eta ez dute galtzada arretaz zeharkatzen.

Nolako ekintzak egiten dituzue?
Adinaren arabera egokitutako ekintza praktikoak egiten ditugu. Lehen Hezkuntzako lehenengo mailatik DBHra arteko neska-mutikoekin dihardugu. 6 urteko umeekin marrazki bizidunak erabiltzen ditugu eta semaforoak eta zebra-bideak zer diren eta nola dabilzan erakusten diegu. Aldiz, 9 urtekoek autonomia handiagoa dute eta kalean ibiltzen badakite. Haiei segurtasuna bermatzen erakusten diegu: seinaleak identifikatzen eta interpretatzen, bizikletan non eta nola ibili behar duten... Azkenik, DBHko nerabeekin bizikleta egoki erabiltzearen esparrua landu dugu.

Zeintzuk dira egiten diren akats nagusiak?

Ikasle batzuek esan didate oso azkar ibiltzen direla bizikletan, beste batzuek esku barik ibiltzen direla... Oso arriskutsua da.

Ikusi dut, baita ere, txikienek -7, 8 eta 9 urtekoak- oso barneratuta dutela semaforoak gorri daudenean ezin dutela gurutzatu eta zebra-bidetik igaro behar dutela errepidea. Kaskoa txikienek erabiltzen dute gehiago.

Kontziente gara zenbat arrisku ditugun bizikletan ibiltzerakoan?
Gehienok lehen bizikleta jostailu moduan eduki dugu, baina, kalean erabiltzen dugunean, ibilgailua da, eta horrek arriskua dakar. Bestalde, Oñatiko bidegorriak ezberdinak dira: zati batzuetan bidegorria espaloian dago eta beste batzuetan, errepide erdian. Ezin gara berdindu ibili.

Jostailu erakusketa baino "askoz gehiago" egingo dute ludotekan

M.B. | OÑATI
Oñatiko Udalak antolatuta eta AHK enpresak zuzenduta jostailuen gaineko erakusketa egingo dute bihar eta etzi (hilak 26 eta 27) Txaloka ludotekan (11:00-13:00 eta 17:00-20:00). Erakusketa baino "askoz gehiago" izango da: gurasoek informazioa eskatu ahal izango dute, kezkek argitu, jostailuak probatu, gomendioak eskatu eta jaso...



lazko jostailu erakusketa. | TXALOKA

Erakustaldiak egingo dituzte
"Azken urteetan iraultza handia egon da jostailuen munduan. Lehen, jostailuen helburua umea dibertitzea zen; eta orain, erabiltzen eta helburu asko ditu". Premisa hori aintzat hartuta erakus-

keta zabala egingo dute aste bukaeran. Nobedade aipagarrienak erakutsi eta erakustaldiak egingo dituzte: jolas kooperatiboak, bitxienak eta gurasoen eta umeen intereseko jostailuenak.

Oñati Abesbatza Madrilén, hango Euskal Etxeak gonbidatuta

M.B. | OÑATI
Oñati Abesbatzak kontzertua egingo du Madrilén bihar, zapatua, San Ignacio de los Vascos elizan. Hango Euskal Etxearen gonbidapena onartu eta aste bukaera pasa doaz Madrilera. "Orain dela bi hilabete jaso genuen gonbidapena. Urtero abesbatza bat gonbidatzen dute Euskal Etxera, eta oraingoan gu aukeratu gaituzte. Oso gustura goaz", esan digu taldeko zuzendari Loli Ordokik.

XVI. mendetik aurrera
12 kantu abestuko dituzte. Gehienak Oñati Abesbatzaren errepertorioko ohiko kantuak dira.

Bost berriak. Besteak beste, Lluís Llach-en *La estaca* kantaren bertsio *Agure zahar bat* (Xabier Letek euskaratu zuen); Sorozabalen *Maite*; *Ghost* pelikulako *Unchained Melody*; Maria Benedettiren *Te quiero*, bi bakarlarirekin; eta Aita Madinaren *Beti eskamak kentzen*. "Askotariko estiloetako kantuak abestuko ditugu. XVI. mendetik hasi eta modernoagoak diren kantuetaraino", esan digu Ordozik.

Era berean, domekan, eliza berean izango den meza nagusian kantatuko dute. Besteak beste, Aita Madinaren *Aita gurea* abestuko dute.

BETERANUAK

EMAITZAK "A" TALDEA		
Etzaixat-Albok	3-2	
Nandrolona-Kalañatasaray	1-3	
Txarrixak-Txuskos	3-1	
Doolygans-Paketinaikos	9-1	

SAILKAPENA "A" TALDEA		
TALDEA	P	J
1 Doolygans	10	3
2 Etzaixat	7	3
3 Albok	6	3
4 Txarrixak	6	3
5 Kalañatasaray	6	3
6 Lozorrom	3	2
7 Txuskos	0	2
8 Nandrolona	0	3
9 Paketinaikos	0	2

SAILKAPENA "B" TALDEA		
TALDEA	P	J
1 Bundeswehr	4	2
2 Indar 85	4	2
3 Xaguxar	3	1
4 Joxely	3	2
5 Sasquatch	2	2
6 The Gibel Boys	1	1
7 Zorrobero	1	2
8 Ankarako	0	2

ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK	
B taldea, 3. jardunaldia	
Zapatua 13:30	Indar 85-Bundeswehr
Zapatua 15:00	Sasquatch-Ankarako
Zapatua 16:30	The Gibel Boys-Joxely
Zapatua 18:00	Xaguxar-Zorrobero

B taldekoen laugarren jardunaldia

Abenduaren 3-4ko aste bukaeran jokatu dute B taldekoek 4. jardunaldia. Gainera, bere garaian atzeratutako The Gibel Boys-Etzaixat ere aste bukaera horretan jokatu dute. Partidu guztiak zapatuan jokatu dituzte. Bestalde, Sasquatch taldekoak hilaren 30ean egingo duten batzarreara deitu dituzte.

Lehen Hezkuntzako ikasleen gurasoendako hitzaldia ikastolan

Txantxiku Ikastolak hitzaldia antolatu du hilaren 29rako (18:30) Lehen Hezkuntzako ikasleen gurasoendako. Gai-xoaldi edo larrialdi egoeran jarraitu beharreko urratsak azalduko ditu Gema Bikuña erizainak. Interesatuak izena eman behar dute ikastolako idazkaritzan. Hitzaldia dagoen bitartean haurtzaindegi zerbitzua egongo da.

Mendi bizikleta martxak Iban Altuberen omenez

Markelen Lagunarteak antolatuta bi bizikleta martxa egingo dituzte domekan. 09:30ean helduendako 40 kilometroko ibilaldia hasiko dute. Hamarretakoa Araotzen, Iban Altuberen baserrian egingo dute. Bestalde, umeendako ibilaldia bost kilometrokoa izango da, eta 10:30ean hasiko dute plazatik.



Iñaki San Miguel, Leire Gorostiza eta Miren Berezibar lanean. | KURTZEBARRI ESKOLA

'Bihotzez ikasi' kamiseta egin dute Kurtzebarrin

Eguenean, abenduak 1, egingo duten Udazkeneko Jaian aurkeztuko dute, eta 'flashmob'-a grabatu

M.A. | ARETXABALETA

Udazkeneko Jaia egingo du Kurtzebarri eskolak egunean, abenduak 1. Egin berri duten kamiseta aurkeztuko dute jaialdi horretan eta *flashmob*-a grabatuko dute, gainera.

Opariarekin etorri da udazkeneko haizea Kurtzebarri eskolara, eta halaxe jakinarazi dute bertako kideek: "Oparia denon neurrikoa da; denok erabili, disfrutatu, jolastu eta maitatzeko modukoa". Berde-berdea dela aurreratu dute, baina baduela beste kolore guztiak sartzeko moduko bihotz handia: "Guztion sentimendu, amets eta gogoein taupatzen duen bihotz zabal-zabala". *Maitasunez bihotzez ikasi* leloa duen kamiseta da opari berde hori. "Euskalduna da Kurtzebarriko bihotza eta euskara du bere hizkuntza", eta gainera-

tu dute: "Liburu artean hazi eta ikasten ari den bihotza da".

Abenduaren leian estreinatu-ko dute kamiseta, urtero egiten duten Udazkeneko Jaian, hain zuzen. Ikasle, guraso eta irakasleak, gainera, *flashmob*-a egiteko elkartuko dira.

Lantalde handia atzean

Kamisetaren diseinuan Kurtzebarriko lagun asko elkartu dira: Miren Berezibar eta Leire Gorostiza, ideia garatzen; Iñaki San Miguel, kamisetaren diseinua egiten; Maixa Lizarribar, musika jartzen; Ekain Martinez de Lizardui, abestiari letra idazten; Onintze Azpeitia, koreografia asmatzen; eta Ohiane Agirre, grabazioa zuzentzen. "Eta, zelan ez, honen guztiaren hauspoa izan diren eskolako ikasle, guraso eta irakasleak", gaineratu dute.

Laugarren ibilbide historikoa egingo du Loramendik domekan

Loramendi elkarteko toponimia taldeak antolatuta azken ibilbide historikoa egingo dute. Bi zatitan banatu dute oraingoan: lehenengo, domekan, hilak 27: Otxola Zelai-Aozaratza-Larrino; eta bigarrena, abenduaren 4an: Otxola Zelai-Bedoña-Oro. Bi ibilaldiatarako hitzordua Herriko Plazan da (82. kilometro harria, 09:00).

OHARRAK

TXOTXONGILO EMANALDIA

Gus txotxongilo taldeak *Liburuzaina estu eta larri* lana eskainiko die neska-mutikoei bihar (11:30) liburutegian. Sarrera debalde da.

MUS TXAPELKETA

II. mus txapelketa jokatu-ko dute Txakoli tabernan bihar (16:00). Sari bikainak iragarri dituzte.

Sute txikia izan zen Basotxon, baina "oso larria" izan zitekeen

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Joan den egunean, hilak 17, 21:00 inguruan izan zen sutea Basotxo erretiratuen egoitza. Ezezagun batzuek kanpoaldean egin zuten sua, baina barruraino sartu zen gero, eta, ezer larri-rik ez gertatu arren, "oso larria" izan zitekeela esan du astean Ana Bolinaga alkateak. Horregatik, alkateak jakinarazi du "neurriak" hartuko dituela Udalak.

"Bihurrikeria arriskutsua"

Basotxoko taberna ixtear zegoela, 21:00 inguruan, ke usaina

hartu zuen bertako langileak, eta sukaldeko bazterrak kez betetzen zebiltzala ikusi gero. Larrialdi zerbitzuetara deitu eta segituan joan ziren suhiltzaileak. Horri eskerrak ez zen ezer larririk gertatu: "Baina sua egin zuten lekuan gas hodi bat dagoenez oso larria izan zitekeen", argitu du Bolinaga alkateak. Gainera, gasa hoditik ateratzen hasita zegoen eta suhiltzaileek berehala itxi zuten pasoa: "Zortea izan dugu, taberna itxi-ta egon izan balitz auskalo zer gerta zitekeen-eta, inor ez da-eta bertan geratzen".

Basotxo egoitzaren atzeko parteko leiho baten sortu zen sua: "Atzeko parte horretan gazteak egon izan dira, eta sua ere egin izan dute aurretik, baina beti lurrean. Oraingoan, leiho-ko apalean egin dute, gas hodi baten alboan, gainera. Gaztetxo- baturrikeria bat izan da, baina benetan larria, 15 eta 17 urte arteko gaztetxo horiek badakite -eta non dagoen arriskua".

Suteak ez du zauriturik eragin, baina Basotxon hainbat kalte sortu ditu: leihoa, sabai zatia eta hainbat lanpara erre-ta; sabaia, hormak eta kanpoal-dea belztuta; gasaren giltza aldatu beharra... Oraindik ez dute kostua zehaztu.

Bestalde, alkateak jakinara-zi du Basotxoren atzeko parte guztia garbitu egingo dutela eta bertako zuhaixkak kendu, "horien atzean ez daitezten gorde bihurrikeriak egiteko". Eta ikerketa abiaraziko dute neurriak har-tzeko gero.

1.000 euroko erosketak goiz baten

Joan den zapatu goizean egin zituen 1.000 euroko erosketak Miren Murgiondok Aretxarte merkatarien elkarteari esker. Oinetakoak, arropak, jatekoa... pozik eta esku bete poltsa zuela itzuli zen Gatzagara.



ALFREDO MEABE




MIRARI ALTUBE

100 urte bete ditu Joxepa Errastik

Burgales jatetxeko sukaldari izandako Joxepa Errastik martitzenean, hilak 22, bete zituen 100 urte. Oparia jaso zuen alkatearen eskutik, udaletxean, eta horren ondoren mokadutxoa jatera eta topa egitera joan zen alabekin eta lagunekin. Sekulako umorea eta indarra dituela erakutsi zuen Joxepak, baita osasuna ere.


MAPFRE



Auto aseguruetan
%20ko
deskontuak!

Errekararren 3 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 11 76 / Faxe: 943 71 17 34 Posta-e: angelzubi@euskalnet.net

BENGOA
URDAITEGIA

Bertako okelak
eta odolosteak

Durana 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada giro!

Anduaga Jatetxea

Eguneko menua
Bokatak
Plater konbinatuak
Errazioak
Karta

Araba Ibilbidea 31, behea ARETXABA-
LETA | 943 79 96 54



BASABE

Menuak
eta afariak

Basabe poligonoa
ARETXABALETA 943 77 31 19



DORLETA TABERNA

Loteria eta
kinielak

Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15
ARETXABALETA



Gurea TABERNA

Lotoak eta ki-
nielak

Durana 32 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 20 64



HIRUSTA JA- TETXEA

Eguneko menua
Karta
Bokatak
Plater konbinatuak

Ilargi plaza 4. ARETXABA-
LETA
Tel.: 943 79 06 57



IOSU taberna harategia

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 03 08



Matikua jatetxea

MENUA
KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK

Azatza auzoa
ARETXABALETA
943 79 16 68



OTZETA JATETXEA

- Menua
- Gazte menua
- Karta
- Eramateko janari
prestatuak.
- Ogitartekoak.

Aranburuzabala 9
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 31 67



Herrira begirako proposamenak egiteko azken eguna gaur da

Udalak parte-hartze bileran egon ez zirenei beste aukera bat eman die

ASIER ALKORTA | ESKORIATZA

Udalak beste aukera bat eman nahi izan die parte-hartze prozesuan egon ezin izan ziren herritarrei proposamenak egiteko. Iradokizun berriak egiteko epea gaur amaitzen da.

Duela bi aste egin zen parte-hartze bilera handia, eta, herritarrengandik proposamen asko jaso bazituzten ere, Udalak beste aukera bat eman nahi izan die herritarrei. "Herritar batzuek, agian, ez zuten bilerara joateko aukerarik izan, ezin zutelako. Eta joan zirenei ere, agian, zer edo zer berria bururatu zaie tarte honetan, edo bileran komentatzea ahaztu zitzaizen. Horregatik jarri dugu bigarren epe hau".

Proposamenak jasotzeko bi bide jarri ditu Udalak: webgunetik (eskaera orria bertan dago eta hori beteta egin daiteke) edo udaletxean, bibliotekan eta kiroldegian ipinitako postontzietatik.

Proposamenak ikusgai

Proposamen berriak jaso bitartean, hilaren 12an egindako bilera handian jasotakoak jendarean jarri ditu Udalak, herrian hutsik zegoen lokal baten erakuslelhoa aprobetxatuta. "Lokala hutsik zegoen, eta, Herriko Plazaren aurrean dagoenez, egindako proposamenak edonork ikusteko bertan jarri ditugu ikusgai".

Orokorrean, hilaren 12an jasotako proposamenen artean, auzolana bultzatzeko, Aretxabaleta eta Eskoriatza arteko harremana estutzeko eta belaunaldien arteko harremana bultzatzeko proposamenak nagusitu ziren. Dena den, Udalak webgunean jaso ditu, atalez atal, proposamen guztiak (mantentzekoak, hobetzekoak eta sortzekoak). Bada, txosten horien guztien laburpena da eskuinaldean dagoen alorreko zatidura.



Orain arteko proposamenak erakuslelho baten daude ikusgai. | A. ALKORTA

Herritarren iritzia, alorrez alor

HIRIGINTZA

Aparkalekuak sortu, hilerria egokitu, errepide nagusiak egoki jarri eta auzoetako bideak berritu, parkeak egokitu (umeentzako eta nagusientzako)... Orokorrean, herria txukun edukitzea eskatu dute herritarrek.

KULTURA

Gazte eta nagusientzako ekintzak antolatu, lokal gehiago jarri, auzoetako jaiak berreskuratu, jai erakargarriagoak egin eta kirol instalazioak hobetzea proposatu dute herritarrek.

GARAPEN IRAUNKORRA

Erreka garbitu eta inguruak egoki jarri, oinezkoentzako bideak hobetu, merkatua beste leku baten kokatu, turismoa bultzatu, herriko merkataritza sustatu eta zabor bilteta orduak (gauekoak) ezartzeko eskaerak egin dituzte.

GIZARTEA

Osasun etxearen ordutegia luzatzea, etorkinen integrazioa bultzatzea eta zaharren egoitzako zerbitzua zabaltzea proposatu dute.

PERTSONALA

Udaletxeko ordutegia luzatzea eta kiroldegiko eta udaletxeko arreta zerbitzuak hobetzea.

UDALTZAINGOA

Herri barruko zirkulazioa arintzeko pausoak ematea proposatu dute herritarrek. Pibote txikiak handiengatik aldatzea ere eskatu dute.

PARTE-HARTZEA ETA KOMUNIKAZIOA

Gazteak prozesu parte-hartzailerak erakartzea eta bilerak akustika hobea duen lekuren baten egiteko proposamenez gain, Teleskoren zerbitzua berraztertze eskatu dute.

Gazteek ekimenak antolatzeke dirulaguntzak atera ditu Udalak

A. ALKORTA | ESKORIATZA

Udalak herriko gazteentzako ekimenak antolatzeke dirulaguntza deialdia zabaldu du. Funtsean, laguntzaren helburua gazteen parte-hartzea sustatzea da. Gazte elkarteek edota norbanakoek eskatu ahal izango dituzte laguntzak.

Gazte elkarteek laguntzeaz gain, elkartu gabeko gazteekin ere sustapen lana egiteko asmoa erakutsi du Udalak. "Udalek rriarentzat interesgarriak eta onuragarriak diren ekimenak gauzatzeko balio dute laguntzak".

Funtsean, Udalaren esanetan, "sormen ekintza positiboak burutzeko laguntzak dira; dirua ez dadila traba izan".

Deialdi horretarako aurrekontua 600 euro da eta dirulaguntzen onuradunak beste administrazio batetik ere jasotzen badu dirulaguntza, horrela adierazi beharko dio Udalari. "Beste dirulaguntza bat jasotzea ez da Udalak ematen duena ukatzeko arrazoi izango. Baina aitortu egin behar da".

Baldintzak

Laguntzak jasotzeko herritarrek udal eskaera-orrialde arrunta erabiliko dute eta bertan Gazteria Zerbitzura zuzen-

duko dela adierazi beharko dute.

Horretaz gain, dirulaguntza eskatzean, gastuaren aurrekontua ere aurkeztu beharko da. "Horrekin batera nortasun agiriaren fotokopia eta, eskatzailea adinez nagusi bada, Gizarte Segurantzaren obligazioekin eta Foru Aldundiarekin eguneratuta dagoen ziurtagiria aurkeztu beharko dira".

Baldintza horietaz gain, eskatzaileak 2008. urtetik hona Eskoriatzan erroldatuta egon beharko du eta, taldea baldin bada, Elkarte Erroldan.

Behin hori guztia onartuta, laguntzaren %75 berehala ordainduko da eta gainerako %25a zuriketa egin ostean emango da.

Gastu zuriketa aurkezten ez bada, aldiz, laguntza galdu egingo dela esan du Udalak. Hori laguntza baino txikiagoa baldin bada, diru kopurua proportzioan txikituko da.

Helburua
gazteen
parte-hartzea
sustatzea da

Gabonetako parkerako begiraleak behar dira

A. A. | ESKORIATZA

Abenduan egingo den Gabonetako parkerako begiraleak behar ditu Udalak. Interesatuak udaletxera jo beharko dute, azaroaren 30a baino lehen, begirale moduan lan egin nahi badute.

Abenduaren 28an eta 29an egongo da parkea zabalik, kiroldegian, urtero bezala. Izena emateko, interesatuak curriculum kultura etxeko Gazteria Zerbitzura bidali (gazteria@eskoriatza.net) edo eraman beharko dute.

Besteak beste, hurrekin izandako esperientzia eta esku-

lanak eta tailerrak egiten jakitea baloratuko dira. Baldintza horietaz gain, begiraleek ezinbestean euskaraz jakin beharko dutela jakin eragin du Udalak: "Azken baldintza hori ezinbestean bete behar dute".

Informazio gehiago

Gai horren gainean informazio gehiago jasotzeko, herritarrek Gazteria Sailera jo beharko dutela aurreratu du Udalak. "E-postaz edo telefonoz (943 71 46 88) eska daiteke informazio gehiago".

Eskaerak jasotzeko epea datorren astean amaitzen da.



Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
Bigarren eskuko autoen salerosketa,
injektoreen konponketa eta IAT aurreko azterketa



Klak!son taldeko bost kideak, DYAn duten entsegu lokalaren aurrean. | KLAKISON

Disko berria aurkeztuko du gaur Klak!sonek

'Zai At Devo City' da diskoaren izenburua eta kontzertuan bertan egongo da salgai 4 eurotan

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Luze jo du Klak!sonen disko berriak, baina, azkenean, gaur, egubakoitza, ikusiko du argia. Torresoroan aurkeztuko du taldeak *Zai At Devo City* izeneko diskoa. 22:00etan hasiko da kontzertua, 3 euro ordaindu beharko da sarrera eta aretoan bertan 4 euroren truke eskuratu ahal izango da diskoa (5 eurotan egongo da salgai tabernetan).



Diskoaren azala. | KLAKISON

Kontzertu berezia izango dela kontatu digute Klak!soneko kideek, aspaldian jo barik baitaude. Baina, gainontzean, kontzertu dinamikoa egin nahi dute, 12-13 abestirekin.

2009an hasitako lana

Zai At Devo City diskoak zazpi abesti biltzen ditu, eta, Jon Gurutz Biteri teklatuaren arabera, "disko abstraktua eta poetikoa da eta letrek joko polita sortzen dute fonetikaz baliatuz". 2009an hasi ziren grabazioak egiten DYaren egoitzan duten entsegu lokalean eta "artisau-grabazioa" izan dela esan digu Biterik. Nahasketak eta masterizazio lanak Bartzelonan egin dituzte, Joseba Iturbe *Pit*-ekin.

Abestietako musika taldekide guztien artean konposatu dute eta letra gehienak (*Atrako* izan ezik) taldeko baxu-jotzaile izan zen Jon Pinillosek egin ditu. Abesti bat bukatzeko prozesua luzea izaten da askotan: "Abestiak modu guztietara egin ditugu. Batzuetan etorri da gitarra-jolea ideia batekin eta denok hasi gara hari laguntzen. Beste batzuetan egin izan dugu duela sei urteko grabazio bat hartu, eta horrekin zerbait egin... Denok hartzen dugu parte abesti baten eta asko kostatzen zaigu abesti bat bukatzea", kontatu digu Mikel Arriaran bateria-jotzaileak.

Tabernetan salgai

Diskoa taldeak berak ekoiztu du eta banaketa ere eurek egingo dute. Antzuolan Mox eta Surpe tabernetan egongo da salgai; Urretxun gaztetxean; eta beste herri batzuetako tabernetara zabaltzeko asmoa ere badute. Durangoko Azokan kontzertua eskainiko dute abenduaren 8an, Ahotsenea gunean; han ere izango da salgai diskoa.

Emakumeen aurkako indarkeria salatzeako elkarretaratzea egingo dute gaur, 18:30ean

Gaur, azaroak 25, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna da. Horren harira, emakumeen aurkako indarkeria salatzeako elkarretaratzea egingo dute Herriko Plazan, 18:30ean. Joan den martitzenean, *Nagore* izeneko dokumentala eman zuten Oларanen. Helena Tabernak zuzendu du lana eta Nagore Laffage gaztearen hilketa kontatzen du; Jose Diego Yllanek hil zuen Laffage 2008ko sanferminetan.

Ipuinen gaineko tailerra egingo dute Antzuolan, Oihulari Klow'n antzerki taldearen eskutik

Azaroaren 27an egingo du ikastaroa Oihulari Klow'n antzerki taldeak Antzuolako Laskurain Aundi baserrian. Hilaren 20rako aurreikusitako ikastaroa hasieran, baina atzeratu egin behar izan zuten. Domeka honetako ikastaroan parte hartzeko e-posta mezua bidal dezakezu oihulariklow'n@oihulariklow'n.org helbidera edo bi telefono hauetakoren batera deitu: 943 76 97 90 edo 607 20 45 03. Eguneko mantenu osoa barne egongo da.



USOA AGIRRE

Santa Zezilia ospatzeko kalejira

Joan den martitzenean, azaroaren 22an, izan zen Santa Zezilia eta herriko txistulariek, urtero moduan, kalejira egin zuten iluntzean; hamar bat txistulari bildu ziren. Eguna ondo bukatzeko afaria egin zuten. Santa Zezilia egunez, duela 17 urte zabaldu zuten Gorosti taberna. Bezeroei merienda eskaini zien Mateo eta Josefinak.

OHARRAK

FEDERATZEKO EPEA

Federatu txartela edo aldaketaren bat egin nahi izanez gero, azaroaren 30era arte dago epea zabalik, Arrolaren lokalera joanda 19:00etatik 20:00etara edo juntakoekin harremanetan jarrita.

FUTBOLA

Erregional preferente mailakoek Getariako Ketaren kontra joka-

tuko dute zapatuan, 18:00etan, Orion. Kadeteek IIintxaren kontra jokatu dute zapatuan, 12:00etan, Legazpin. Zortzikoko futboleko infantilek etxean jokatu dute Sorluzeren kontra zapatuan, 11:00etan.

PILOTA

Gaur, 20:00etan, Olaldeko pilotarietako Urnietakoen kontra jokatu dute paleta larraz.

Errasti eta Aizkorbe irabazle argazki lehiaketan


U.A. | ANTZUOLA

Aukeratu dituzte XVII. argazki lehiaketako irabazleak. Mari Pazek Ugalde eta Juanje Amasorrainek egin dute epaimahai lana. Lehen mailan, 6 eta 12 urte artean, 12 lan aurkeztu dira eta Lierni Errastik jaso du lehen saria (25 euro) *Elkartasuna* argazkiarekin; bigarren saria (15 euro) Eukén Rodríguezendako izan da *Ardiak gosaltzen* lanarengatik. 2. mailan ez da inor aurkeztu. 3. mailan, 19 urtetik gorakoetan, 33 lan aurkeztu dira: Iker Aizkorbek irabazi du lehen saria (250 euro), *Bitsezko marrazkiak* lanarekin; bigarrena (150 euro) Iñigo Alonsok, *Krokus* lanarekin.

Zapatu eta domekan argazki guztiak ikusgai egongo dira Oларanen, 18:00etatik 20:00etara. Herritarrek ere onena aukeratu ahal izango dute.



Bitsezko marrazkiak, 3. mailako argazki irabazlea. | IKER AIZKORBE



Krokus, 3. mailako bigarren saria. | LIERNI ERRASTI

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17 ANTZUOLA

MUJIKAHARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34



Bizenite Goikoetxea abesbatzako kideak martitzeneko entseguan, Antton Errarte zuzendaria erdian dagoela. | JOKIN BEREZIARTUA

Ahots berriak behar ditu Bizente Goikoetxeak ere

Abesbatzarako atea zabalik daudela diote; etzi saioa egingo dute, elizan

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Bizenite Goikoetxea abesbatzak ere belaunaldi aldaketa behar du. Beste hainbat herritan gertatzen den moduan, Aramaio abesbatza ere zahartzen ari da eta ahots berrien beharra daukate. Bittor Kortabarria presidenteak adierazi digu jende berria erakartzeko ahaleginak egin izan dituztela: "Antza, gazteei ez die erakartzen koroan abestek".

Hala ere, Santa Zezilia egunaren bueltan antolatzen duten urteroko kontzertuari ez diote hutsik egingo. Emanaldi txiki bat eskainiko dute domekan, meza nagusiaren ostean. Hala azaldu du Antton Errarte Bizente Goikoetxeako zuzendaria: "Santa Zeziliaren omenez, koroetan ohitura denez, kontzertu



BITTOR KORTABARRIA
ABESBATZAKO PRESIDENTEA

"Aurten hasi naiz presidente lanetan, Angel Astondoaren ordeiz. Astondoa aurreko lau urteetan izan zen presidente. Federaziotik datozen eginbeharrez arduratzen naiz eta baita asteroko entseguetan taldeari albisteren bat eman behar da, horren berri emateaz".



ANTTON ERRARTE
ABESBATZAKO ZUZENDARIA

"Domekakoa kontzertu txiki bat izango da, lau edo bost kantukoa. Euskaraz zein gazteleraz abestuko dugu eta kontzertu erdi baten iraupena izango du. Izan ere, abenduaren 11rako kontzertu serioago bat prestatzen gabilta, txistulari eta guzti. Gabonetako kontzertua izango da".

txiki bat egingo dugu domekan. Lau edo bost kantu abestuko ditugu, besterik ez. Kontzertu erdi bat izango da".

Gauza handirik ez dela izango dio zuzendariak baina hori ez da entseguetan atzematen, izan ere, mimo eta gustu handiz prestatzen dituzte abestiak. Elizan bertan batzen dira martitzeneko eta betidanik izan duten zaletasunarekin gozatzeko aukera izaten dute. Gaztetatik abesteko ohitura dutela igartzen zaie.

Ohitura beti, 1983an federatu
Kortabarria halaxe gogoratzen ditu abesbatzaren hasierako urteak: "Aramaion duela 100 urte-tik hona beti egon da abesteko zaletasuna. Urte batzuetan indartsuago edo ahulago, baina beti egon da koroa. Hori bai, Bizente Goikoetxea abesbatza 1983an federatu zen". Euskal Herrian eman dituzte kontzertu gehienak baina kanpora ere irten dira.

Hurrengo saioa domekan egingo dute eta gero bazkaltzera joango dira Dukiena jatetxera. Eta abendurako badituzte beste bi hitzordu: hilaren 11n Aramaion eta hilaren 18an Arrasateko San Andres auzoan.

Ordutegi berria estreinatu dute asteon udaletxean

J.B. | ARAMAIO

Asteon jarri dute indarrean ordutegi berria. Eguaztenean izan ezik, Udaleko bulegoak goizez bakarrik egongo dira zabalik, 09:00etatik 14:30era. Eguaztenean egun osoan zabalduko dute, 09:00etatik 14:30era eta 16:30etik 18:30era. Bake epaitegia eta erregistro zibila, berriz, astelehenetan bakarrik egongo dira zabalik, 09:00etatik 14:30era. Udaleko iturrien arabera, ordutegi aldaketa ez da behin betikoa eta herritarren eskaeren arabera ezarri dute. Aldatu beharko balitz, arazo barik aldatuko luketela jakinarazi dute.

Bideojokoen erabilera hizpide izango duen hitzaldia hilaren 29an

Kontsumobidek, kontsumorako euskal institutuak, hitzaldi berezia antolatu du Aramaio Udalaren laguntzarekin datorren martitzeneko, azaroak 29. Gazteen artean bideojokoen erabilera seguruaren gainean egingo dute berba, hainbat adibide jarrita. Kultura etxean izango da, 18:00etan hasita.

Elkarretaratzea eta puntu morea jartzea, berdintasunaren alde

Gaur da Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna, eta Udalak eta Itur Zuri emakume elkarteak elkarretaratzea deitu dute Sastiña parean (19:00). Gainera, eguneko ikur ofiziala den puntu morea jartzeko gonbita egingo diete herriko merkatari eta dendariei.

Andoni Epeldek irabazi du Udalaren argazki lehiaketa



Lehiaketako argazki irabazlea, Kurtzeta inguruan hartutakoa. | ANDONI EPELDE

J.B. | ARAMAIO

Datorren urterako Udalaren egutegi ofiziala osatzeko argazki lehiaketako irabazleak ezagutu ditugu asteon. Bada, argazki onena Andoni Epeldek ateratakoa izan dela erabaki du epaimahaiak. Argazkilari arrasatearrak 200 euro jasoko ditu.

Urtaro bakoitzeko irabazleei dagokienez, Aizpea Ajuriagerrak neguko argazki onena atera du, Konsuelo Errastik udaberriko onena, Ibabe Ibañezek udakoa eta Antonio Gartzia, azkenik, udazkenekoa. 100 euro jasoko ditu azken horietako bakoitzak.

2012ko egutegirako irudiak

Aipatutako argazki sarituez gain, Udaleko Kultura Sailak lehiaketara aurkeztu diren beste argazki batzuk ere sartuko ditu 2012-rako egiten dabilen egutegian.

ANDONI EPELDE | ARGAZKILARIA

"Negurako proposa iruditu zitzaidan, ez sari nagusia irabaziko zuenik"

Argazkilaritza munduan eskarmentu handikoa da Andoni Epelde (Arrasate, 1970). Gustu handiz eta pozik jaso du Udalaren saria.

Arrasatearra izanda, nola izan zen lehiaketaren berri?

Sarritan ibili izan naiz Aramaio eta inguruko parajeetan argazkiak ateratzen. Internet bidez izan nuen lehiaketaren berri eta argazki batzuk bidaltzea bururatu zitzaidan.



Andoni Epelde. | A.E.

Eta zergatik aurkeztu zenuen argazki hori?

Kurtzetan dago atez, duela hiru urte-edo. Ikusi nuen sari ezberdinak zeudela: udaberrikoak, udakoa, negukoak...

Eta negurako nahiko proposa zela pentsatuz bidali nuen.

Negurako funtziona zezakeela iruditu zitzaidan, baina ez nuen uste sari nagusia irabaziko zuenik. Harrituta eta pozik nago, beraz.

ELGETA



Janire Lazkano, Marga Castro, Idoia Legarreta eta Nagore Morales. | L.Z.

Elgetan ere bada zer egina genero indarkeriaren kontra

Gaur 19:30ean Herriko Plazan egingo den elkarretaratzean parte-hartzera deitu du Udalak

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA
Genero Indarkeriaren Kontrako Eguna dugu gaur eta Udalak elkarretaratzea deitu du. Ez da gai horrekin lotuta aurten Elgetan egingo den sentsibilizazio eta kontzientziazio ekitaldi bakarra. Eguaztenean, *Nagore* dokumentala eman zuten Espaloian. Hogei bat lagun elkartu ziren Nagore

Laffageren kasua jasotzen duen dokumentala ikusteko. Berdintasun teknikari Idoia Legarretak gidatu zuen ostean egindako eztabaidatxoa. "Horrelakoak gertatu egiten dira eta zer gertatzen den aztertu behar dugu, bestela berriz gertatutako dira", adierazi zuen. Arazoari aurre egiteko gizarte osoaren konpromisoa ezinbeste-

koa dela adierazi zuen. "Zenbait jarrera naturalizatu egin ditugu eta ez gara konturatu ere egiten hor dagoen desorekaz. Arazoa estrukturala da, kulturala", ohartarazi zuen. "Hau eguneroko lana da".

Berdintasun plana

Bideberri mankomunitatearen bitartez Elgetako Udalak badihardu Berdintasun plana lantzen eta eguazteneko ekitaldian ziren bai Gizarte Ongizate zinegotzi Marga Castro, bai Kultura zinegotzi Janire Lazkano. Daiteke kontsultorako teknikaria da Legarreta, eta martxora bitartean barikuro etorriko da Elgetako udaletxera. "Berdintasun plan baten helburua da genero harremanetan egon daitezkeen desoreketan eragitea", azaldu zuen. "Elgetako planak 2010etik 2013rako indarraldia du eta une honetan barne lana egiten ari gara; plana martxan jartzeko beharrezkoak diren oinarriak ezartzen". Legarretaren zeregina da udal jarduna aztertzea eta genero ikuspegitik egon daitezkeen gabeziak detektatzea. "Gabezia bat litzateke, esaterako, kultura arloan antolatzen diren ekintzetan estereotipoak erreproduzitzea, edo genero araberako lan banaketa egitea...".

Formazioa eta sentsibilizazioa

Legarretaren ustez, Udalaren jardueran genero ikuspegia barneratzeko bidea formazioa eta sentsibilizazioa da, eta horretan ari dira. "Garrantzitsua da genero indarkeriaren aurkako eguna den honetan Udalak bere genero ikuspegia publiko egitea", esan zuen. "Garrantzitsua da ere hori salatzeko elkarretaratzean herritarrek parte-hartzea. Ekintza sinbolikoa da; gizartean horren aurkako konpromiso sozial bat badagola erakusten ari gara".

Etzi, domeka, banatuko dituzte argazki rally lehiaketako sariak

L.Z. | ELGETA

Azaroko azken pintxo-domeka izango dugu aste bukaeran. Eguerdi partean egingo dira ekitaldi nagusiak; eguerditik aurrera trikitilariak ibiliko dira tabernaz taberna eta 12:30ean, azaroaren 13an egindako argazki rally lehiaketaren sari banaketa egingo dute.

Hamar lagunek hartu zuten parte argazki lehiaketa horretan, eta bi sari banatuko dituzte domekan: album onenari emandako saria eta argazki onenari emandakoa. Argazki irabazleak *Elgeta.org* eta *Goiena.net* atarietan egongo dira ikusgai. Sari banaketa udaletxe atarian egingo dute.

Bisita gidatua lubakietara

Bestalde, Intxortako ibilbide tematikora bisita gidatua egingo da beste aukera bat egongo da domekan. Iratitz Lazkanok gidatuko du eta interesatuek 10:00etan dute hitzordua Espaloiko Interpretazio Gunean. Gune horretan jasota daudenak ikusi ondoren bost bat kilometroko ibilbide tematikoa egingo dute bisitariak, oinez. Hiru bat orduko bisita da.

Prezioa bost euro da; 6 urtetik beherakoendako, doan; eta 6-16 urte bitartekoendako, bi euro. Ezinbestekoa da aurrez izena ematea. Telefono zenbakiak hauek dira: 943 79 64 63 eta 943 71 89 11.

VIII. PILOTA TXAPELKETA

AZKEN EMAITZAK

Iñaki Ugarteburu - J.M. Zubiaurre / Asier Morales - Koldo Goenaga	22-10
Pello Larrea - Mikel Elkoro / Angel Ibarluzea - Alberto Telleria	09-22
Odei Zenitagoia - Andoni Elortza / Oskar Sarasua - Iñaki Olaortua	22-10
Ibai Etxaniz - Jon Irazabal / Iker Irazabal - Diego Cantabrana	22-13
Antxoka Etxabe - Igor Irazabal / Sergio Bouzas - Koldo Erostarbe	10-22
Iban Retolaza - Jabier Larrañaga / Mikel Ormaetxea - Garikoitz Arrazola	17-22
Ibai Etxaniz - Jon Irazabal / Oskar Sarasua - Iñaki Olaortua	22-01
Iban Retolaza - Jabier Larrañaga / Oskar Sarasua - Iñaki Olaortua	19-22

BARIKUKO PARTIDUAK, 20:00 ETAN

Ibai Etxaniz - Jon Irazabal / Iban Retolaza - Jabier Larrañaga
Odei Zenitagoia - Andoni Elortza / Sergio Bouzas - Koldo Erostarbe
Iñaki Ugarteburu - J.M. Zubiaurre / Angel Ibarluzea - Alberto Telleria
Antxoka Etxabe - Igor Irazabal / Oskar Sarasua - Iñaki Olaortua

DOMEKAKO PARTIDUAK, 11:00 ETAN

Iker Irazabal - Diego Cantabrana / Mikel Ormaetxea - Garikoitz Arrazola
Oskar Askasibar - Haritz Gallastegi / Ibon Untzetabarrenetxea - Mikel Beretxinaga

'Errautsak' antzezlanaren ikusteko azken aukera bihar Espaloian

Ander Lipusek eta haren taldekoek bihar, zapatua, amaituko dute *Errautsak* antzezlanaren bira. Kritika onak eta sari ugari jaso dituen lana da. 22:30ean hasita eskainiko dute azken aldiz Espaloian. Lagun baten hiletan elkar-tzen den gazte koadrila baten istorioa da. Sarrera 13 euro da eta bazkideendako, 10 euro.

Jainaga eta Narbaitza domekan 'Herrixa dantzari' ekitaldian

Dantzazaleek hitzordua dute etzi, domeka, Elgetako kafe antzokian. Patxi Monterok gidatutako dantza saio irekia egingo dute. Oraingoan, gainera, Jainaga eta Narbaitza trikitilarien zuzeneko musika-rekin. Hitzordua 19:00etan da. Sarrera doan da eta parte-hartzea, librea.

Gaztetxoendako bigarren saskibaloi saio irekia gaur

Gaur, azaroak 25, egingo dute gaztetxoendako bigarren saskibaloi saio irekia. Jon Ugarteburu eta Aitor Gorostizak gidatuko dute kiroldegiko kantxan ordubeteko saioa. Elgetako neska-mutilak saskibaloira hurbiltzeko ekimena da; 18:30etik 19:30era egingo dute saioa.

93 bolari elkartu ziren aurreko zapatuan Elgetako bolatokian

Euskadiko hiru txirlo txapelketaren hirugarren saioa jokatu zen eta zazpi txirlo jota Beñat Gomez eibartarra izan zen irabazlea. Elgetarren artean Geaxi Ezpeleta izan zen onena bost txirlo jota. Bihar, zapatua, jokatu da azken saioa Markinako Barinaga bolatokian.

38 lagunek eman dute odola martitzeneko odol-ateratzeetan

Pozik agertu da Maria Asun Agirre; 41 lagun joan ziren martitzenean odola-ematera eta sendagile taldea 38 lagunek emandako odolarekin itzuli zen Elgetatik. Hainbat arrazoiengatik hiruk ezin izan zuten odolik eman. Hurrengo hitzordua apirilean izango da.

LEINTZ GATZAGA

Auzo-egurra zozketatuko dute eskatzaileen artean domekan

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Orain dela hilabete inguru auzo-egurra eskatu zuten herritarren artean zozketa egingo dute domekan, hilak 27, udaletxeko bilkuren aretoan (11:30). Imanol Saez de Viterik, Mendi zinegotziak, zuzenduko du zozketa hori, eta irekia izango da; hau da, ateak zabalik izango dituzte.

Eroatea, norberaren kontu

Bederatzi lagunek egin dute egur-eskaera aurten, azken urteotan baino gehiagok, eta guztiek jasoko dute. Basozainek dagoeneko eginda dauzkate onura publikoko mendietako egurrarekin loteak, eta bakoitzak zein lote hartuko duen erabakitzeko egingo dute domekako zozketa.

Urtero egiten du egur-loteen zozketa Udalak, eta, bide batez, mendi bazterrak garbitu. Azken urteotan eskaerak nabarmen egin du behera, baina oraindik badaude interesatuak. Eskatzaileen artean daude baserritarrak eta kalean bizi direnak; izan ere, batzuek oraindik txapa daukate sukaldean eta beste batzuek beheko suarendako gura dute.

Behin lotea izendatuta, norberaren ardurak izango dira egurra zatitzea eta menditik etxera eroatea.

Elkarretaratzea egingo dute gaur, plazan, emakumeen aurkako indarkeria salatzeko

M.A. | ARETXABALETA

Gaur, azaroak 25, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna da, eta elkarretaratzea deitu du Udalak Bideberri mankomunitatearen bitartez. Herriko Plazan izango da (19:00). Egun horretako leloarekin bat egiten duten herritar guztiei agertzeko dei egin gura diete.

'Nagore' filma

Ez da izango ekitaldi bakarra: abenduaren 2an, egubakoitzean, *Nagore* filma emango dute Garro jauregian (18:00). 2008ko sanferminetan eraildako Nagore Laffage gaztearen gaineko filma da, eta horren ondoren eztabaida saioa egingo dute emakumeen aurkako indarkeriaren gainean hausnartzeko.



Igor Orobengoa, eskuman, Nafarroako zirkuituko podiumetako baten.



Azken orduko aldaketak.



Saria jasota.



Arrasateko TRT Racing taldeko lagunak. | ARGAZKIAK: TRT RACING

AUTOMOBILISMOA

Nafarroako Opena irabazita, iraupen-lasterketak buruan

TRT Racing taldeak ez du asteburuan korrituko; Opena irabazi dute

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Oraingo asteburuan korrituko dute Alcañizko zirkuituan Nafarroako Openeko azken proba, baina matematikoki sari horrek dagoeneko badu jabea: Arrasateko TRT Racing taldea (turismoetako 3 klasean): "Ez dut uste azken lasterketa honetara joango garenik, autoan moldaketa batzuk

egin nahi ditugulako", adierazi du mekanikari lanetan ibiltzen den Iker Orobengoak. Autoa erresistentzia probetarako egin zuen Seat Sport-ek, eta aurten egin ditugun probak esprintekoak izan dira. Kurba pasoa hobetu nahi dugu, baina etxe ofizialak dakarren guztia sartu diogu autoari; hemendik aurrera guk diseinu-

tako hobekuntzak egin beharko dizkiogu".

Arrasatekoek ez dute egutegiko azken lasterketara joateko beharrik: "Opena istripu handi barik amaitzeko asmoz hasi genuen, eta kolpeengatik, motorra hautsi dutelako... gure kontrario zuzenek arazo handiagoak izan dituzte".

Openeko azken lasterketan (azaroaren 12an eta 13an) hama sei auto batu ziren Los Arcosko zirkuituko irteera puntuan, hainbat kategoriatakoak: "Sailkapen txandan hirugarren denbora onena egin genuen, eta dezima baten gatik ez ginen bigarren irten. Lasterketan, baina, ez arriskatzea erabaki genuen, eskura geneukalako saria. Gure aurretik zihoazen Clio Sport eta Megane Sport autoak bero-bero eginda zebiltzan, elkarri kolpe txikiak emanaz, baina guk erabaki genuen borroka horretan ez sartzea, gero autoa konpondu egin behar delako".

Hala, gainontzeko kategoriak kontuan izanda, Igor Orobengoak gidatzen duen Seat Ibiza Sport autoa laugarrena izan zen; lortu-

ta zegoen helburua, Opena irabaztea: "Gure klasean ez ditugu horrenbeste kontrario izan, hiruzpalau auto ibili gara, eta Ieregi nafarraren gasolinazko Seat Cupra izan da gure kontrario handiena. Zorionez, baina, lehen proban lider jarri ginen eta eutsi egin diogu postuari –bost lasterketa izan dira–".

CER-eko probak buruan

Orobengoatarrek Espainiako Erresistentzia Txapelketa (CER) dute orain buruan: "Baina aurrekontu handiagoa behar da, lasterketa bakoitzeko izen-ematea 700 euro dira-eta. Montmelon, Jaraman... egiten dituzte lasterketa horiek eta bost ordu irauten dute".

TRANSATARTIKA 2011

Transantartika espedizioa aurrera, sustoak gaindituta

X.U. | ARRASATE

Transantartika 2011 espedizioa kideak badoaz kilometroak egiten, baina tartean arazo bat baino gehiago gainditu behar izan dute. Joan den asteburua kanpin denda barruan igaro behar izan zuten, izotzeko lubaki baten ondoren

kanpalekua muntatu eta gero, denboraleari aurre egiten (100 kilometroko haize boladekin). Astelehenean, baina, bideari ekin zioten. Eta, kilometro bateko distantzia bete aurretik, Vallejok zeraman lera ezkutuan zegoen zulo batera erori zen; pitzadura sakona,



Vallejoren lera jauzi zen zuloa. | BAT BASQUE TEAM

30 metrokoa, eta ikusteko oso zaila sastrugiz beteta dagoen izotz geruzan. Mendizalearen gerrira arnesarekin lotuta, eskegita gertatu zen lera 170 kiloko pisuarekin. Vallejok pisuari eutsi zion zuloa arrastaka jauzi gabe, Inurategik eta Zabaltzak soka moztu eta lera erortzen utzi zuten arte. "Susto galanta", protagonisten esanetan. Kontu handiagorekin ibiltzera behartu ditu horrek, elur biguna dagoen tokietan zuloak estalita egon daitezke-eta.



TXIRRINDULARITZA

XABIER URTZELAI

Ziklistak eta zaleak elkarrekin

Begarako Txirrindu-zaleak joan den asteburuan batu ziren mahaiaren bueltan Elorregin. Lagunartean egindako afaria izan zen, gonbidatuta zeuden ziklistendako oporrak amaitu berritan lasai afaltzeko azken aukeratako bat. Juanma Garate (Rabobank), Markel Irizar (RadioShack) eta Iñigo Chaurreau izan ziren gonbidatu batzuk, baita afizionatu mailara salto egingo duten Lokatzako gazteak ere. Omenaldietarako tartea ere izan zen: Javier Casanellas taldeko masajista omendu zuten.



XABIER URTZELAI



Oñatiko martxan irteera puntua, iaz; aurten plazatik irtengo dira. | GOIENA

TXIRRINDULARITZA

Iban Altuberen omenez bizikleta martxa Oñatin

XABIER URTZELAI | ARRASATE
Iban Altuberen lagunek antolatuta ziklismoko bi hitzordu izango dira domekan Oñatin. Batetik mendi bizikleta irteera egingo dute, 09:30ean hasita, plazan. Nahiz eta egutegian bestetan baino beranduago izango den, mendi bizikleta egutegian aurten ez da Oñatiko martxarik faltako . Hala, aste barruan euria egin duen arren badirudi domekan eguraldia aldeko izango dutela, aurtengo gainontzeko martxa guztietan moduan.

Domekako martxa, gainera, hunkigarria izango da, martxaren ostean Iban Altube omenduko dutelako, plazan bertan.

Irteera 09:30ean izango da –federatuek 15 euro, ez federatuek 10 euro– eta 40 kilometroko ibilbidea prestatu dute –jatekoak eta edatekoak Araotzen banatuko dituzte, Altuberen baserri ondoan.

Gaztetxoak, 10:30ean
Nagusiendako martxarekin batera gaztetxoendako ere bizikleta irteera izango da: "Oñatiko auzoetatik ibiltzeko aldapak gainditu behar dira derrigor, eta martxa hori 7-12 urte bitarteko neska-mutikoendako izango da", adierazi du Irizarrek. Amaieran omenaldia izango da plazan.

FUTBOLA

Mondrak liderraren bisita izango du zapatuan Mojategin

Mondrak, Bergarak eta Aretxabaletak jokatuko dute oraingo asteburuan etxean. Bergarak atzealdeko postuetan dagoen Aurrera hartuko du Agorrosinen, eta Aretxabaletak Real Unionen kontra jokatu du domekan Ibarrran. Bi horiek baino zailago du Mondrak asteburuan punturen bat lortzea, oraindik partidurik galdu ez duen Anaitasunaren kontra jokatu dute-eta Mojategin. Arnasa hartzen dabilen Aloña Mendik Trintxerpera egingo du bidaia.

ATLETISMOA

Domekan egingo dute Donostiako maratokia, Espainiakotik kanpo

Behobia-Donostia probaren bide bera jarraituko du oraingo domekan (09:00) egingo duten Donostiako maratoiak, hau da, Espainiako federazioaren egutegitik kanpo geratuko da, antolatzaileek ez dutelako onartu atleta bakoitzak bost euro gehiago ordaindu behar izatea. Horrek esan nahi du federazioaren beka duten puntako atletak ez direla proban izango. Hala, popularrek, tartean ibarreko atletek, protagonismo handiagoa izango dute.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

LEHENENGO MAILA

Real Betis-Reala
Domeka, 12:00. Sevilla.

EMAKUM. BIG. MAILA

Mondra-Aurrera Vitoria
Domeka, 12:00. Mojategi.

GAZTEEN EUSKAL LIGA

Hernani-Aretxabaleta
Zapatua, 15:30. Astigaraga.

OHOREZKO ERREGIONALA

Bergara-Aurrera
Zapatua, 15:30. Agorrosin.
Trintxerpe-Aloña Mendi
Zapatua, 16:00. Don Bosco
Mondra-Anaitasuna
Zapatua, 16:30. Mojategi.
Aretxabaleta-Real Union
Domeka, 16:30. Ibarra.

ERREGIONAL PREFERENTEA

Getariako Keta-Antzuola
Zapatua, 18:00. Mendibeltz.
Soraluze-Aretxabaleta B
Zapatua, 18:15. Ezozia.

LEHEN ERREGIONALA

Eibartarrak B-Mondra B
Domeka,17:30. Unbe.
Gazteak-Aretxabaleta C
Zapatua, 16:00. Unbe.

GAZTEEN OHOREZKO MAILA

Ordizia-Mondra
Zapatua, 17:30. Altamira.
Bergara-Tolosa B
Zapatua, 17:30. Ipintza
Aloña Mendi-Ikasberri
Domeka, 16:30. Azkoagain.

EMAKUMEZKOEN LIGA

Arizmendi-Elgoibar
Domeka, 10:00. Ibarra.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Mamarigako-Eskoriatza
Zapatua, 16:45. Santurtzi.

BIGARREN MAILA

Garnon-Aretxabaleta
Gaur, 20:30. Errenteria.

KADETE MUTILAK

Arizmendi-Antigua Luberri
Zapatua, 11:15. Almen.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Deusto-Soraluce BKE
Zapatua, 18:00. Bilbao.
El Pilar-Ford Mugarri Arrasate
Zapatua, 18:30. Gasteiz.

EMAKUMEZKOAK PREF.

Zarautz-Aloña Mendi
Zapatua, 17:30. Antoniano.

LEHEN SENIOR GIZONEZK.

Izarraitz Tab. Aloña-Leizaran
Zapatua, 17:45. Zubikoa.

BIG. SENIOR GIZONEZK.

Arrasate-Eibar
Domeka, 11:30. Iturripe.

GAZTE MAILA, GIZONEZKOAK

Usurbil-Aloña Mendi
Zapatua, 13:00. Oiardo.
La Bacaladera-Bergara
Zapatua, 18:00. Hondartza.
Ordizia-Talleres Chapime
Zapatua, 12:30. Ordizia.

GAZTE MAILA, EMAKUMEAK

Winbel Eharialdea-Aloña M.
Domeka, 10:15. Gasteiz.

SASKIBALOIA

EBA

Deportes Ferrer-Natra Oñati
Domeka, 11:30. Torrelavega.

LEHEN NAZIONAL MAILA

Seky.es-MU
Zapatua, 17:30. Gasteiz.

MAILA AUTONOMIKOA

MU-Loiola Indautxu
Domeka, 18:00. Iturripe.

LEHEN SENIOR GIZONEZK.

Hernani-Soraluce Bergara
Zapatua, 16:15. Hernani.

MU-Erroibide

Gaur, 20:00. Musakola.

BIG. SENIORRAK

Aloña Mendi-Krafft Atletico
Zapatua, 16:00. Zubikoa.

EMAKUMEZKOAK

Eskoriatza-Krafft Atletico
Domeka, 11:00. Manuel Muñoz.

MENDI BIZIKLETA

OÑATIKO MARTXA, IBAN ALTUBEREN MEMORIALA

Domeka, 09:30. Oñatiko plazan
(Izenemateak lehenago).



Aukerazko

IBILGAILUAK

salgai



14.500€-tik aurrera

> FORD FOCUS

2011 | Diesela | 0 Km



Araba etorbidea, z/g ARRASATE
943790744 • www.mugarri.es

- Ford Mondeo 1.8 TDCI 19.800 €
2011 | Diesela | Zilarra | 0 Km
- Ford Focus TDCI 115 ZP 8 abiadura 17.500 €
2011 | Diesela | Beltza | 0 Km.
- VW Passat Avant 4x4 Highline 2000 TDI 140 ZP 14.800 €
2007 | Diesela | Beltza | 110.000 Km.
- Ford Focus TDCI 140 ZP 19.800 €
2011 | Diesela | Urdina | 0 Km.
- Ford Focus TDCI 110 ZP 10.500 €
2008 | Diesela | Beltza | 49.000 Km
- Ford Kuga TDCI- 4W 140 ZP 24.400 €
2010 | Diesela | Urdina | 16.000 Km
- Seat Leon FR TDI 170 ZP 13.800 €
2007 | Diesela | Gorria | 39.000 Km
- Ford Focus ST 225 ZP 13.500 €
2007 | Diesela | Laranja | 70.000 Km
- Mitsubishi Montero TDI 115 ZP 14.800 €
2006 | Diesela | Zilarra | 102.000 Km
- Mitsubishi Montero TDI 115 ZP 15.800 €
2007 | Diesela | Beltza | 128.000 Km



28.700 €

> Audi A4 2.0 TDI 143 DPF AVANT

2010 | Diesela | 29.649 Km



- Audi A3 1.9 TDI E DPf ATTRACTION 18.400 €
2010 | Diesela | Grisa | 24.634 Km
- Volkswagen Bora 1.9 TDI CONCEPTLINE 100BHP 7.900 €
2005 | Diesela | Grisa | 131.000 Km
- Renault Clio CAMPUS AUTHENTIQUE 1.5 DCI 65 6.600 €
2007 | Diesela | Txuria | 103.932 Km
- Fiat Punto 1.9 JTD DYNAMIC 3.900 €
2002 | Diesela | Urdina | 176.372 Km
- Audi A4 2.0 TDI E 136BHP DPf 26.900 €
2010 | Diesela | Beltza | 22.552 Km
- Volkswagen Polo 1.2 ADVANCE 10.500 €
2010 | Gasolina | Txuria | 13.805 Km
- Seat Exeo 2.0 TDI 120 PS DPf REFERENCE ST 20.500 €
2010 | Diesela | Beltza | 50 Km
- Seat Altea XI 1.8 TDI 105 PS STYLE ECOMOTIVE 19.500 €
2010 | Diesela | Beltza | 50 Km
- Skoda Scout 2.0 TDI Quattro 25.500 €
2010 | Diesela | Beltza | 5.300 Km
- Seat Leon 1.8 TDI 105 16.500 €
2010 | Diesela | Grisa | 50 Km

Gipuzkoa etorbidea, 36
ARRASATE • 943 71 18 70



15.000 €

> Citroen DS3 1.6HDI Special Edition II

2011 | Diesela | Gorri argia | 2.500 Km

CHAPIME

SAN ANDRES AUZOA 5

ARRASATE

TEL.: 943 79 45 22



Debagoieneko

Kontzesionario ofiziala

- Citroen Berlingo1.6HDI 110 XTR 14.900 €
2010 | Diesela | Gris argia | 45.725 km
- Citroen C4 1.6 VTI Cool 9.500 €
2009 | Gasolina | Txuria | 33.150 km
- Citroen C4 1.6HDI Cool 110 FAP 11.850 €
2010 | Diesela | Beltza | 47.634 km
- Citroen C4 G. Picasso 1.6HDI Millenium CMP 21.500 €
2011 | Diesela | Gris argia | 1.500 km
- Citroen C8 2.0 HDI Premier 138 21.900 €
2010 | Diesela | Urdin argia | 44.000 km
- Citroen DS4 1.6 e-HDI Style CMP STT 23.500 €
2011 | Diesela | | 3.500 km
- Citroen DS4 1.6 e-HDI Design STT 21.750 €
2011 | Diesela | Ilun urdina | 1.000 km
- Hyundai i30 1.6 CRDi Comfort GLS 11.500 €
2010 | Diesela | Txuria | 10.110 km
- Citroen C8 2.0 HDI PREMIER 120 21.000 €
2010 | Diesela | Gris argia | 27.800 km
- Citroen C8 2.0 HDI PREMIER 138 22.000 €
2010 | Diesela | Gris iluna | 35.050 km

KULTURA

Jantziak eurak baino gehiago, janzteko erak dira garrantzitsuak

- 'Emakumearen jantzi eta janzkera tradizionalak azken 100 urteetan' gaia landu zuten
- Ekin Emakumeak elkarteak antolatuta egin zuen hitzaldia Ane Albisuk Kulturaten

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Jantzia eta janzkera. Horiek izan zituen berbagai Ane Albisuk Kulturaten. Arrasateko Ekin Emakumeak elkarteak gonbidatuta etorri zen Albisu. Jantzi tradizionalaren inguruko ikerketan aditua da donostiarra. Argia taldean lehendabizi eta orain Ikerfolk taldean –Juan Antonio Urbeltzekin– dihardu lanean.

Egoera ezberdinetan jantzi berak erabiltzea ez zela egokia ikusita hasi ziren gaiaren inguruan ikertzen. Hala, hainbat lan egin ondoren, *Atondu, XXI. menderako proposamena* liburua argitaratu zuen 2006an. Liburua-ren lehenengo helburua jantzi eta janzkera tradizionalaren jatorria zein den ikustea da: "Aztertu behar dugu zer dagoen eta zergatik", azaldu zuen.

Hitzaldi guztian nabarmendu gura izan zuena da "jantziak janzten jakitea" dela gakoa.

Festetan erabiltzen dira

Gaiak dioen moduan, emakumearen jantzi eta janzkera tradizionalak azken 100 urteetan azaldu zituen Albisuk hitzaldian. Orain dela 100 urte lanbidearekin zerikusia zuten arropak janzten zituztela azaldu zuen. Denborarekin, baina, hori aldatuz joan da. Janzkera horiek jantzi bilakatu dira, batez ere festetan erabiltzen diren jantziak. Francoren garaian, adibidez, jantziak berba egiten hasi zirela azaldu zuen: "Horregatik eramaten dugu barruko gonan kolore gorri, berde eta zuria; edo horregatik dituzte kaikuek hainbat ikur aurrealdean".

Arrasatearren pasarteak

Europa ekialdean jantziak ia berdina zirela dio, baina aldea janzkeran zegoela. "Zapia, adibidez, guk galdu egin dugu eta gainerakoek ez. Hor ikusten da nola goazen, gure iritziz, desbideratuta", dio Albisuk.

Adibide praktikokoak ere jarri zituen. Zapia nola ipintzen den azaldu zuen, eta horretarako Bixente Pagoagaren –Arrasateko Aranguren baserrikoa– bideo bat ipini zuen. Pagoagak azaldu zuen haren amandreak zapia nola jantzen zuen eta mototsa nola egiten zuen; baita abarkak nola jantzi behar diren ere.



Ane Albisu, laguntzaile bat janzten. | A.E.

ANE ALBISU | JANTZI TRADIZIONALETAN ADITUA

"Festetan ez dut sufritzen; ikusi eta ikasi egiten dut"

Hitzaldi teoriko-praktikoa egin zuten Kulturaten eguaztenean. Batez ere, emakumeak joan ziren hitzaldira, baina emakumeen eta gizonezkoen jantziak ere aztertu zituzten.

Teoria eta praktika nahastu dituzu.

Gure jantziek 100 urte hauetan izan duten bilakaera ikusi dugu, bai gizonezkoen eta baita emakumezkoen jantziek ere. Gero, tailer moduan gure arropak atontzeko modua ikusi dugu. Jantzi batzuk ekarri ditut, baina protagonistak, jantziak baino gehiago, janzteko erak izan dira.

Jantzi tradizionaletan zer izan da aldaketa nabarmenena?

Bereiziko ditut zer den jantzia eta zer den janzkera. Zergatik? Tradiziozko janzkera galdu egin delako.



Ane Albisu. | A.E.

Baina gorde dira gesto batzuk. Adibidez, dantzarako eta jaietarako jantziak gorde dira, baina horiek ez dira janzkerak, jantziak dira. Diferentzia hori egin dut eta nik uste dut

alde hori eginda askoz hobeto ulertuko dela ehun urte hauetan gure jantzi eta janzkerarekin gertatu dena, zer zen janzkera eta nola joan zen galduz modak irabazita. Baina, hala ere, janzkera horietatik jantzi batzuk sortu dira, festetan eta janzten ditugunak.

Jantziak eramateko planta ere beharrezkoa izango da.

Hori da hitzaldiaren gairik garrantzitsuenak. Batzuetan, jantzi bat polita delako janzten dugu, baina galduta dago planta. Jantze horrek duen garrantzia, adibidez, nik esaten dut dela hizkuntza baten azentua den moduan. Edo musikan, entzuten duzunean norbait musikajotzen berehala konturatzen zara nork duen sena. Badakigu nongoak garen, hiz-

kerarengatik. Jantzerakoan ere gauza bera gertatzen da. Hori galdu egin zen, hiritarrek galdu genuen. Tradizioa jarraitu zutenek mantendu egin zuten, baina gainerakoek galdu egin genuen. Imitazioak egiten hasi zirenean, berehala galdu zuten, jantziak bazituzten, baina janzkera ez. Hori da gure lana, janzkera berreskuratzea.

Jaietan, asko sufritzen duzue kalean ikusten duzunarekin?

Ba, hasiera baten bai, baina orain ikasi egiten dut. Ikusi eta ikasi. Hau da dagoena, eta hortik ikertu. Egoerak ikusi eta ikertu zergatik gertatzen diren. Gure hondar alea nola jar daitekeen ikusi, baina dogmatikoa izatea iruditzen zait dela okerrera.

GUADALUPE GARTZIA – Lilura edertze institutuko arduraduna

“Azalaren beharren arabera egiten ditugu tratamenduak”

Azala urte osoan zaindu behar dela gauza jakina da. Bada, azalak dituen beharrak zeintzuk diren jakiteko Guadalupe Gartziarekin berba egin dugu, Lilura edertze institutuko arduradunarekin.

Guadalupe, azala zaintzea ez da udako hilabeteetako gauza bakarrik.

Azala urte osoan zaindu beharko genuke, urtaro bakoitzean. Norberak dituen behar zehatzak kontuan hartuta, bai aurpegiko, eta baita gorputzeko azala ere. Azal guztiek ez dute esfoliatu, hidratatu edo elikatze behar bera.

Zeintzuk dira udazken-neguko berritasunak?

Physiolift da berritasunetako bat. Azalaren beharrak aztertu ostean lifting natural bat egitea ahalbidetzen du, min barik eta medikuaren esku-hartze barik.

Horretarako, merkatuan dauden teknologia berrienak erabiliko dituzue.

Bai, halaxe da. Physiolift azken nobedadea da, bezero zorrotzendako, eta emaitzak lehenengo saiotik bertatik ikusten dira. Physiolift korronte alternoaren bidez dabil, korronte horiek uhin bitartez estimulatu dute azala eta aurpegiko muskuluak tiratzen dituzte, lifting efektua lortuta.

Guadalupe, zeintzuk dira garai hauetarako zerbitzu egokiak?

Asko eskatzen den beste zerbitzu bat begi, bekain eta ezpainenatko mikropigmentazioa da. Bezeroaren aurpegiari egokien dagokion diseinua egiten dugu, beharrak eta gustuak kontuan hartuta, eta aurpegian bertan ikusi ahal da mikropigmentazio tratamenduak izango duen emaitza.

Zenbatean behin egiten dituzu trebakuntza ikastaroak?

Trebakuntza beharrezkoa da irte-



Guadalupe Gartzia, mikropigmentazio tratamendua egiten, Lilura edertze institutuan.

IMANOL ELORTZA

ten diren nobedadeak ezagutze-ko; horregatik, ikastaroak aldizka egiten ditugu; batez ere, urritik martxora egiten ditugu, hilean lau edo sei egunean.

Zein da zure bezeroaren profila?

Hona etortzen direnak emakumeak eta gizonezkoak dira, baina oraindik ere emakumeak gehiago dira gizonezkoak baino. 35 urte baino

gutxiagoko emakumeek noizbehinkako zerbitzuak eskatzen dituzte: manikura, pedikura, gorputzeko edo aurpegiko *peeling*-a...35 urtetik gorakoek, ostera, tratamendu konketuagoak: ximurren aurkako

tratamendua; aurpegiko tonifikazioa; fotogaztetzea; gorputzeko tratamenduak: besteak beste, zelulitisaren aurkako tratamendua, formen birmoldaketa eta pigmentazio orbanak kentzea aurpegian eta eskuetan.

Visagismo probarekin emaitza ikusiko duzu

- **Visagismo proba** Pigmentazio tratamendua egin aurretik inongo konpromiso barik visagismo proba bat eskatzea gomendatzen dugu, doan eta konpromiso barik.
- **Emaitzak** Ezpainenetan, bekainenetan eta betazaletan egiten den makillaje proba honen bitartez, aurpegian bertan ikusiko duzu mikropigmentazio tratamendu baten emaitza.
- **Deskontua** Visagismo proba egin ondoren, gustuko baduzu %20ko deskontua oparituko dizugu tratamenduan. Uneoro *look* zaindua, aberatsa eta dotorea izango duzu.

Zeintzuk dira tratamendu gustukoak? Eta emaitza onenak dituztenak?

Badaude tratamendu batzuk beste batzuk baino gustukoagoak direnak, baina, batez ere, norberak duen arazoarendako emaitza onena duen tratamendua da gustukoena. Aurrez esan dugunez, ez daude bi tratamendu berdinean, bi pertsona berdinean ez dauden neurrian.

LILURA
Guadalupe Garcia
Mikropigmentazioan espezialista.
Nº 1793

*etor zaitez eta informa-
zaitez konpromiso barik!*

Bidekurutzeta 7, 1a. 20570 Bergara. Tel. 943 76 31 71
lilura@lilura.com • www.lilura.com

Visagismo proba doan!

Ezpainenetan, bekainenetan eta betazaletan egiten den makillaje proba honen bitartez, zure aurpegian bertan ikusiko dituzu mikropigmentazio tratamendu baten emaitzak.



Eta gustuko baduzu... tratamenduan %20ko deskontua eskainiko dizugu!

Arrasaten jokatuko dute, bihar, lehen finalaurrekoa

Uarkape pilotalekuan izango da Gipuzkoako txapelketako saioa, 17:30ean

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Gipuzkoako bertsolari txapelketa azken txanpan sartu da. Kanporaketak jokatu ostean, final-zortzirenak eta final-laurdenak jokatu dituzte. Oraingo aste bukaeran finalaurrekoak egingo dituzte: bihar Arrasaten egingo dute lehenengoa eta etzi, Tolosan.

Arrasaten sei bertsolari

Beñat Gaztelumendi, Felix Zubia, Alaia Martin, Agin Rezola, Iker Zubeldia eta Iban Urdangarin izango dira finalerako txartela lortzeko lehian jardungo duten sei bertsolariak.

Biharko saioan puntuazio handiena lortzen duen bertsolaria zuzenean pasatuko da Ilunbeko finalera. Gainerakoek, berriz, Tolosan eta Hernanin egingo denaren zain egon beharko dute. Puntuazio handiena dutenak pasatuko dira finalera. Finalaurrekoak 18 bertsolarik jokatu dituzte; finala, zortzik.

Uarkape pilotalekuan izango da, 17:30ean. Gai-jartzaile lanetan Egoitz Aizpuru arituko da. Saioa antolatzeke lanetan Arrasateko Udalaren eta Arrasateko Bertso Eskolaren laguntza izan du Gipuzkoako Bertsozale Elkartek. Gaur izango da sarrerak Internetez erosteko azken aukera: www.gpuntua.com atarian eros daitezke 12:00ak arte. Bestalde, bihar, saioaren aurretik kiroldegiko leihatilan ere eskuratu ahal izango dira.



Parte hartuko duten bertsolariak. | BERTSOZALE ELKARTEA

Bertxoko sariketako finala gaur

Aramaioko Iturrieta sagardotegian egingo dute Bertxoko sariketako finala gaur, egubakoitza. Ekaitz Samaniego, Ane Labaka, Peio Ormazabal, Ander Solozabal, Izar Mendiguren eta Manex Mantxola izango dira bertsolariak. Afaria 20:30ean hasiko dute eta saioa, oster, 22:30 inguruan. Arabako Bertsolari Elkartek eta Hala Bedi irratia antolatu dute txapelketa.

Tolosan eta Hernanin

Domekan Tolosan jokatu da bigarren finalaurrekoa, 17:30ean, Usabal kiroldegian. Hernanin abenduaren 4an jokatu dute.

Agirreazaldegi elgetarra

Ainhua Agirreazaldegi elgetarrak Hernaniko kanporaketa jokatu du datorren abenduaren 4an. Ibarreko ordezkaria izango da.

Debagoieneko bederatzi lagun kantu txapelketako finalean

A.E. | ARRASATE

Gipuzkoako kantu txapelketa jokatu dute domekan Donostiako Antzoki Zaharrean, 18:00etan hasita. XV. edizioa izango da, eta, Debagoienari dagokionez bederatzi ordezkari izango dira han.

Kantu baten bila da lehia-ketaren izena, eta helburua da kantuzaletasuna bultzatzea. Txapelketa Euskal Kantuzaleen Elkartek antolatu du, "harrobi berria egiteko" asmoarekin.

Bakarlar, bikote eta talde

Debagoieneko ordezkariak urriaren 23an Bergaran jokatu zen kanporaketan egon ziren eta finalerako txartela lortu zuten guztiek. Bergarako Nau taldea (Maitane, Garazi, Olatz, Miren eta Markel); Arrasateko Maialen Arratibelek eta Eneritz

Urrutiak osatutako bikotea; eta Josu Zubia oñatiarra eta Sara Manzano bergarra (bakarlariak biak) izango dira domekako finalean. Bi talde, sei bikote eta bederatzi bakarlari lehiatuko dira finalean.

Sorkuntza lan onena

Sara Manzano bakarlariak *Loretxoa* abestuko du; Josu Zubiak *Bi deabru sorbalda gaine* eta *Atian* abesti berriak abestuko ditu; Maialen Arratibel eta Eneritz Urrutiak ere bi abesti izango dituzte; Maixa eta Ixiarren *Hotzak uste baino lehen* eta Ken Zazpiren *Hemen gaude*; eta, Bergarako Nau taldeak Deabruak Teilatuetan taldearen *Zuentzat* abestia aurkeztuko du. Finalean, sari nagusia eta sorkuntza lan onenaren saria emango dituzte.



Bergaran egin zuten bigarren kanporaketa. | GOIENA

'Azken garaipena' komikian parte hartu du Julen Ribas marrazkilari arrasatearrak

Gidoia Iban Zaldia idazleak egin du; Getxon izango dira aste bukaeran

A.E. | ARRASATE

Komiki baten atzean bi pertsonaia egoten dira: gidoilari eta marrazkilaria. *Azken garaipena* komikian, marrazkiak egiten Julen Ribas arrasatear gaztea ibili da. "Marraztu eta kolorea ipini diot", azaldu du Ribasek.

Ikastolen Elkartearen *Xabiroi* komiki aldizkarian agertutako komiki zatien bilduma da *Azken garaipena*.

Etorkizunari begira jarria

Komikiak zientzia fikzioa eta genero beltza nahasten ditu eta naziek II. Mundu Gerra irabazi osteko 2052. urtera garamatza. Naziek menderatutako mundu horretan gertatzen diren krimenak ikertzea da polizia kriminalaren lana, Sigrid Frisch protagonista.



Julen Ribas Arrasate Irratian egon da asteon. | A.E.

Zalduak eta Ribasek Internet bidez izan dute harremana: "Komentatu zidan ze istorio mota geneukan, eta ni saiatu nintzen marrazki eta koloreen bitartez

seriotasuna ematen", dio Ribasek.

Getxoko komiki azokan izango dira aste bukaeran, eta abenduaren 6an Durangon.

'Gerrako ipuinak' liburua eta CDa aurkeztuko dute gaur Kulturaten

Sunti Amilibiak idatzitako lau ipuin eta bost taldek sortutako bost abesti argitaratu dituzte

A.E. | ARRASATE

Martitzenean Donostian aurkeztu zuten eta gaur Arrasaten, Kulturaten, aurkeztuko dute. *Gerrako ipuinak* da liburu-CDaren izena, eta, hain zuzen, gerra garaiko kontuetan oinarrituta dago.

Sunti Amilibia donostiarrak idatzi ditu ipuinak eta ipuin horiei musika jarri diete bost taldek: Gose; Anger; Andoni, Petti eta Eñaut Zubizarreta; Xarma; eta Bide Ertzeanek.

Benetako istorioak

Lau ipuinak benetako istoriotan oinarrituta daude, nahiz eta izenak edo kontu batzuk asmatutakoak izan. Lau ipuin horie-

tako bat bi mondagoetarren istorioa da. Beste hirurak hauek dira: gizona fusilatu dioten emakume haurdun baten istorioa; erbestera ihes egin duen agustindar txistulari baten istorioa; eta hil egiten duten maisu baten istorioa.

Gaurtik aurrera salgai egongo da liburua eta CDa Txukun fotokopia dendan eta Eroskin dagoen estankotan.

Intxorta kultura elkarteak

Intxorta kultura elkarteak koordinazio lanak egin ditu eta Melisa Lopez, Ibai Garai eta Ixiar Murgisu marrazkilari debagoiendarrek ere parte hartu dute proiektuan.

Lac La Belle bikoteak eta Pettik girotuko dute Amaia

'Gaztemaniak!' ekimenaren barruan antolatutako kontzertua izango da gaur, 20:00etan

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Jennie Knaggsek eta Nick Schillacek osatzen dute Detroiteko (Michigan) Lac La Belle bikotea. Akordeoia, ukelelea, mandolina, banjoa, dobroa eta ahotsak nahastu ditu bikote estatubatuarrek. Egiten duten musika nahasketari landa-futurista deitu izan diote adituek.

Lan berria ekarriko dute

Erabiltzen dituzten musika tresnak beste garai batekoak diren arren, egiten duten musika gaur egungoa da. Izan ere, landa eremuko musika egiten dute, krisian murgildurik dagoen industria ingurunekeo estetika dekadentearekin nahastuta.

Bring on te Light da bikotearen lan berriena. Jatorrizko sei abesti ditu, era askotariko musika-tresnen bidez interpretatuak; besteak beste, akordeoia edo banjitarra. Abesti bakoitzak istorio melodiko bat aurkezten du. Hala, AEBetako historiaren espiritua, noraeza, jaso dute.



Lac La Belle AEBetako bikotea eta biolontxelo jolea kontzertuan. | GAZTEMANIAK!

Petti beratarra

AEBetako bikotearen aurretik Petti beratarra igoko da Amaia-ko hall-eko oholtzara. Kantatzeko modu ilun eta trinkoa, eta gitarra zarrastatzeko modua dira Pettiren ikurrak. Euskal Herrian dagoen bakarlarri original horietako bat da beratarra. Pettiren kantu existentzialek zirrara sorrazten dute.

Gaztemaniak! ekimena

Foru Aldundiko Haur, Nerabe eta Gazteen Zerbitzuak antolatzen duen ekimena da Gaztemaniak! Programazioa 20 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago; proposamen ausartak izaten dira. Azken hiruhilekoan 13 kontzertu antolatu dituzte; horietatik bi gurean: Oñatin (azaroaren 5ean) eta Arrasaten (gaur).



Porrotx, Marimotots eta Pirritx ikuskizun berrian. | BURUNTZALDEA

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen berriena Eskoriatzan bihar

A.E. | ESKORIATZA

Azkenaldian egin izan duten moduan, Eskoriatzan eskainiko dute ikuskizun berria Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo ezagunek: *Zazpikoloroa*. Bihar izango da, frontoian, 17:30ean.


Dagoeneko ez da geratzen sarrerarik, denak saldu dituzte. 1.400 sarrera ikastetxeen bitartez banatu zituzten eta beste 300 sarrera kiroldegian jarri zituzten salgai joan den egubakoitzean eta denak saldu zituzten.

Ikuskizunaren gaia

Ikuskizun berriak mundua koloreztatuko duen hegaztiak dihardu. Biharamun goizean

jaioko da Zazpikoloroa. Gauaren erdian, ordea, Belekoi Andere zuri-beltz eta gaiztoa azalduko da, eta Zazpikoloroaren arrautza bahituko du. Patakon gidari dutela, eguna argitu aurretik aurkitu beharko dute arrautza pailazoek. Lortuko dute Zazpikoloroa askatu eta munduaren koloreak babestea? Bada, hori bihar Eskoriatzan ikusiko da.

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek azaroaren 17an egin zuten ikuskizun berriaren aurre-estreinaldia Urnietan, Saroben, herriko ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako lehen, bigarren eta hirugarren mailetako ikasleendako.



Oparitu Goiena Klubeko txartela.

goienakluba

- ✓ Asteleheneko Goiena Papera etxean jaso.
- ✓ Beherapenez gozatu (eskela eta sailkatuetan deskontuak).
- ✓ Zozketa eta promozioetan parte hartu.
- ✓ Asteleheneko Goienaren edizio digitala Goiena.net-en.

Abantailaz betetako kluba!

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | www.goienakluba.com

Ipuinen gaineko tailerra Oihulari Clown-en eskutik

A.E. | ANTZUOLA

Etzi, domeka, egingo du ikastaroa Oihulari Klown antzerki taldeak Antzuolako Laskurain Aundi baserrian. Hilaren 20rako aurreikusitako ikastaroa hasieran, baina atzeratu egin behar izan zuten. Ikastaroan parte hartzeko interesa dutenek mezua idatz dezakete oihulariklown@oihulariklown.org helbidera edo bi telefono hauetakoren batera deitu: 943 76 97 90 edo 607 20 45 03. Egunekeo mantenu osoa barne egongo da.

'Errautsak' lana ikusteko azken aukera, Elgetan

A.E. | ELGETA

Errautsak antzezlan saritua-ren azken emanaldia egingo dute bihar, zapatua, Elgetako Espaloian, 22:30ean. Sarrerak 13 eurotan daude salgai, eta bazkideendako 10 eurotan.

Hainbat sari irabazi ditu Igor Elortzak eta Unai Iturrirak idatzitako antzezlanak: Donostia antzerki saria eta Txalo saria Azpeitiko 28. topaketetan. Dagoeneko 7.000 lagunek gora ikusle izan ditu. Ander Lipus da aktoreetako bat.

Diskoa aurkeztu du Governors taldeak

Bilbon egin zuen aurkezpena Arrasateko taldeak, atzo. *Collage* da lan berria, 10 abestiz osatutakoa. Usurbilgo Hi-Gain estudioan grabatu zuten, irailaren 26tik urriaren 23ra bitartean, Haritz Harreguy teknikariarekin. Dagoeneko salgai dago eta Durangon ere egongo da, Mauka diskoetxearen mahaian.



ANDER MONEDERO

Irati Aguado | Argazkilaria

"Argazkilaritzak indarra ematen dit barruko sentipenak eta kezkak kanpora ateratzeko"

MAIDER ARREGI | ESKORIATZA

Belaunaldi berriko artista da 23 urteko Irati Aguado eskoriatzarra. Nortasun handiko argazkilaria, eta edonork ez daukan ikuspuntutuduna. Argazkilaritza Profesionala ikasten dihardu Donostiako Ivasfot eskolan. Daukanarekin bizi izatea eta horretaz gozatzea da haren bizitzako filosofia.

Noiztik datorkizu zaletasuna?

Betidanik egon naiz arteaz inguratuta nola edo hala. Margolaritza eta marrazketa izan dira nire zaletasun nagusiak txiki-txikitatik; 18 urte nituela, Salamancara joan nintzen ikasketekin jarraitzeko amoz. Bertan izandako bizipenak eta zailtasunak bultzatuta argazkilaritzan bete-betean sartu nintzen; barruan nituen sentipenak eta kezkak nolabait kanporatzeko beharrezkoa nuen indarra izan nuen.

Argazki ona ateratzeko sekretua?

Zeinek du eskubidea argazki bat ona edo txarra dela esateko? Argazkilaritzaren historiari begiradaxo bat emanda, garai hartan teknikari demaseko garrantzia ematen zioten artistak zeuden; baina baita arauak alde batera utzi eta askatasun osoz nahi zutena egiten zutenak ere. Zer da ona? Eta zer da txarra? Argazki on bat barruan zerbait mugitu edo pizten duen irudia litzateke, axolagabe uzten ez duena.

Belaunaldi berriko artista zara, Starter erakusketan ere jarri dituzte zure argazkiak.

Primerako ideia iruditu zitzaidan. Nire argazki bat zintzilikatuta lehenengo aldiz ikusiko nuelako, pareta batean, eta esperientzia partekatuko nuelako. Gogor lan egin dugu erakusketa hori aurrera eramateko eta ikusleengandik jaso dugun erantzuna uste baino askoz hobea izan da. Etorkizun hurbilean beste gauza asko egiteko behar dugun indarra eta konfiantza ematen digu horrek.

Nolako argazkiak ateratzea gustatzen zaizu?

Momentu honetan ezingo nuke gauza bakar bat aipatu, zaila egiten zait oso. Ikasketa profesionalak hasi nituenetik, ikuspuntua izugarri aldatu eta zabaldu dut. Argazkilaritza hain da aberatsa eta zabala... Orain, esperimentatzeko eta ezagutzeko une hoberenean nagoela uste dut eta horretan nabil jo eta ke. Hala ere, egia da erretratuen eta pai-

saien eremuetan erosoan sentitzen naizela.

Metal musika da zure zaletasunetako bat. Zuzenekoetan ikusle ala argazkilari moduan erosoan?

Argazkilaritzarekin batera musika bateratzen dudanean, ez dago ezer hoberik niretzako! Deskriba ezina da sentitzen dudana nire bi zaletasunak bat eginda dudanean.

Argazki mota horiek ateratzeko teknika ere ezberdina izango da.

Argazki mota bakoitzak bere teknika eta arauak ditu, baina norberaren esku dago gero horiei guztiei kasu egin edo sorkuntza erabiltzea. Garrantzitsuena honetan erabiltzen den objektiboaren argitasuna da. Jeneralean, oso argitasun txikia egoten da aretoetan, edo dagoena ez dute ondo erabiltzen, eta horrek zailtasunak azaleratzen ditu abiadura eta diafragmak aukeratzeko orduan, argazkia mugituta irten ez dadin. Fokuak jolaserako eta aipatutako sorkuntzarako erabilgarri dira; baina kolore aldaketengatik argazkia hauts dezakete. Nik neuk oso argazkilari gutxi eza gutzen ditut kontzertuetako argazkietan benetan trebeak direnak. Gurako nuke teknika hori gehiago ikasi, eta, batek daki, agian hemendik urte batzuetara horretan lanean ibiliko naiz!

Argazki kamera bat?

Garrantzitsuena ez da zein kamera aukeratzeko den. Argazkiak, azken finean, argazkilariak berak ateratzen ditu, kamera laguntza edo horretarako behar den makina besterik ez da. Garbi eduki behar da zein argazki mota ateratzea nahi den, baita zertarako erabili behar diren irudi horiek.

Buruan duzun argazki hori?

Uf! Ez da galdera erraza erantzuteko. Askok dira oraindik ateratzeke ditudan argazkiak, zorionez; bestela, erretiratzea besterik ez litzaidake geratuko.

MARRA AZKARREZ

Herriko txoko maiteena: Atxorrotz.

Eskoriatzan biziko ez bazina, non?

Bartzelonan; naturatik gertu, behintzat.

Argazki bat: J. M. Cameron-en *The Echo*.

Pelikula bat: *El jovencito Frankenstein*.

Bidaia bat: Eskandinavia.

Eguna goibeltzen dizu: Langabezia datuak.

Eta alaitu? Argazki saio bat egin eta gustuko emaitzak lortzeak, kontzertuetara joateak, nire ametsak betetzen ikusteak...

Kantu bat: Numen-en *Isiltasunaren Hots Hutsa*.

Irati Aguado argazkia ateratzeko gertu.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Uriburu kalean etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldea, egongela, komuna eta despentsa. Berogailua. Barrutik eta kanpotik berritua. Ikuspegi ederra. Unibertsitatetik gertu. 153.000 euro. 615 71 86 84 edo 645 00 89 97

Bergara. 70 metro koadroko etxebizitza salgai Toki Ederren. Terraza handia. Bi logela, egongela, bainugela handia eta komuna. Igogailua eta berokuntza zentrala. Seigarren solairuan. 191.000 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 670 55 87 41

Bergara. Etxebizitza salgai San Pedro kalean. Bilogela. Ganbara. Egoera onean. 155.000 euro. 671 84 15 63

Oleta. 5 urteko etxe bakarra salgai. Lursaila dauka. Bizitzera joateko prest dago. Prezio interesgarria. Etxea trukatzeko ere aukera egon daiteke. Idatzi *camilabagues@gmail.com* helbidera edo deitu: 945 45 05 15 edo 645 73 82 31

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Musakolan etxebizitza ematen da errentan. Bi logela. Prezio interesgarria. 645 72 53 51

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan erdigunean edo San Andresen. 610 82 02 17

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan. 500-600 euro ordaintzeko gertu nago. Brigitte Castro. 664 51 64 98

Bergara. Bertako bikoteak etxebizitza behar du errentan. Hiru logelakoa, ahal bada. Deitu 675 62 30 03 edo 651 56 55 30 telefono zenbakietara.

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Logela ematen da errentan San Andresen. Erosoa eta handia. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 617 98 78 67

Arrasate. Logela ematen da errentan, erdigunean. Pertsona bakararentzat. Mutila bada, hobeto. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 69 64 90

Arrasate. Pisukide bila nabil. Erdigunean dago etxea. lone. Interesatuok deitu telefono honetara: 636 05 36 18

Bergara edo inguruan errentan hartzeko logela bila nabil. Mutila naiz. Lehenbailehen hobe. Interesatuok deitu telefono honetara: 672 68 57 77

Erasmus ikasleentzat logela. Otsailaren 1etik ekainaren 30era etorriko diren Erasmus ikasleentzat logelak behar dira Debagoienean. 600 04 76 38

2. GARAJEAK

201. SALDU

Aretxabaleta. Lausittakalean aurkitzen den garajea salgai. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 676 43 28 05

Arrasate. Garaje itxia salgai Musakolan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 659 94 67 65

Bergara. Garaje handia salgai. 30 metro karratuko garaje itxia, Burdinaten (Konde Panaderokua aldean). 24.000 euro. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 685 72 51 58

4. LANA

401. ESKAINTZAK

DEBAGOIENA

Klinika laguntzailea behar da hortz-klinikan, astean 2 egunez jarduteko. 656 70 27 09

DEBAGOIENA

Gozogintzako ofiziala behar da. 696 12 83 80

ESKORIATZA

Zerbitzaria eta sukalde laguntzailea behar dira tabernarako. 660 60 83 86 646 31 06 67

402. ESKAERAK

Arrasate edo Bergara. Neska gertu orduka lan egiteko: nagusiak zaindu, garbiketak edo sukalde laguntzaile. Honetan esperientzia daukat. Deitu 659 37 41 95 telefonora.

Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Neska euskalduna esperientzia handia duena, prest haurrak zaintzeko, eskolara eramateko edota etxerako lanak egiten laguntzeko. Magisteritzan diplomatua eta hezkuntza berezian espezialista. Deitu 600 39 47 77 zenbakira.

Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza. Emakumea gertu nagusiak zaindu edota garbiketala lanak egiteko. Deitu 672 88 01 01 telefonora.

Arrasate. 53 urteko emakume euskalduna, lanerako gertu, ume edo nagusiak zaintzen, etxeko lanak egiten eta abar. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943 79 60 89

Arrasate. Emakume euskalduna gertu plantxa egin edo bestelako lanetarako, orduka. 699 54 17 27

Arrasate. Erreferentzia onak dituen neska lan ezberdinetarako gertu: garbiketetan, nagusiak zaintzen eta abar. Marta. 671 15 96 97

Bergara edo Eibar. Emakume euskalduna eskaintzen da lan egiteko: etxeko lanak edin edo ume zein edadetuak zaintzen. 606 50 25 67

Bergara. Neska gazte eta euskalduna asteburuetan pertsona nagusiak zaintzeko prest. Bailerako edozein herritan ere egingo nuke lan. 649 19 81 15

Bergarako. neska gertu nagusi zein umeak zaintzen jarduteko Bergara, Arrasate, Eibar edo inguruan. Irene. 651 70 81 70

Debagoiena. Bergarako neska gertu orduka edo egun osoz lan egiteko: nagusiak zaintzen, garbiketak egiten, tabernan zein sukaldean arituko nintzateke. 671 18 50 83

Debagoiena. Emakumea etxean bertan bizi izaten lan egiteko gertu. 618 80 75 66

Debagoiena. Emakumea lan egiteko gertu, umeak zaintzen, garbiketara edo dendari lanak. Orduka edo egun osoz. Erreferentziaduna. 606 72 28 76

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.

Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

Debagoiena. Erizaintzako laguntzaile titulua duen neska prest edozein lanetarako. Jacqueline. 650 83 66 58

Debagoiena. Esperientziadun emakumea pertsona nagusiak zaindu edo garbiketala lanak egiteko gertu. Zaharren egoitzetan eta tabernak garbitzen lan egingakoa. 680 77 06 46

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke, nagusiak zaintzen eta abar. 699 70 38 82

Debagoiena. Garbiketetan, nagusiak zaintzen (baita gauzez ere), tabernatan zein sukalde laguntzaile jardungo nuke. 943 10 96 89

Debagoiena. Lantegian, zerbitzari, kamioilari, nagusien zaintzan edo etxeko garbiketetan lan egingo nuke. Ambulantzia gidari titulua daukat. Eduardo. 690 25 29 33

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edo sukalde laguntzaile lan egingo nuke. 697 88 35 62 edo 691 03 25 02

Debagoiena. Neska arduratsua orduka garbiketala lanak egiteko gertu, umeak edo nagusiak zaintzeko eta nagusiak pasioan ateratzeko. 943 71 53 74 edo 695 73 87 95

Debagoiena. Neska garbiketala lanetarako gertu. Deitu 635 71 12 88 zenbakira.

Debagoiena. Neska gertu astean zehar orduka edo asteburuetan lan egiteko. Deitu 659 90 85 13 telefonora.

Debagoiena. Neska gertu nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketak egiteko eta abar. 645 67 82 24

Debagoiena. Sukaldari laguntzaile, etxean postreak egiten edo garbitasun lanetan lan egingo nuke. 686 66 80 63



Deba Garaia Inmobiliaria

Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA

- Sanantonabat, 75 m², oso ondo, eguzkitsua, lorategia.
- Aranerrek, 80 m², oso ondo. Prezio ona.
- Matxiategi, 72 m², eguzkitsua. Prezio ona.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Burdiñate, 104 m², oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 m², oso ondo.
- Herrilagunak, 60 m².
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Urteaga 109 m², berritua, prezio onean.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m².
- Masterrek, 46 m², eraikuntza berria.
- San Lorentzo. Prezio ona. Berria.
- Urteaga. Berritzeko. Prezio ona.
- Urarte (Lorentxoko). 140 m². Berria
- Bidekurutzeta. 78 m². Berritua.
- Juan XXIII enparantza. 87 m². Ondo.
- Etxebizitza berrien eraikuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon, San Lorentzon eta Lorentxokon.
- Lorentxokon aukera ona.
- Basarte. 69 m². Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m². Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale, 48 m². Apartamentua. Oso ondo.
- Ibargarai, 88 m². Berria. Garajearekin.
- Fraizkozuri, 75 m², eguzkitsua, oso ondo.

ANTZUOLA

